Instituto Vasco del Conocimiento de la Formación Profesional
Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua

EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



GIZARTE- ETA KULTURA-ZERBITZUAK

Oinarrizko Curriculum Diseinua

# KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# AURKIBIDEA

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA 4. or.

2. LANBIDE-PROFILA ETA LANBIDE-INGURUNEA 4. or.

- 2.1 Konpetentzia orokorra
- 2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda
- 2.3 Lanbide-ingurunea

3. HEZIKETA-ZIKLOAREN IRAKASGAIAK 5. or.

- 3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak
- 3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa
- 3.3 Lanbide-moduluak
  - 1. Komunikazio-, mintzaira- eta hizketa-arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko metodologia
  - 2. Gizarte-sentsibilizazioa eta partaidetza
  - 3. Gor-itsuekin gizartean eta hezkuntzan esku hartzea
  - 4. Gor-itsuekiko kominikazio-bitartekotzaren testuingurua
  - 5. Zeinu-mintzaira
  - 6. Zeinu-mintzaira aplikatzeko eremuak
  - 7. Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzea
  - 8. Komunikazioan esku hartzeko teknikak
  - 9. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak
  - 10. Gizarte-trebetasunak
  - 11. Lehen laguntzak
  - 12. Komunikazio-bitartekotzako proiektua
  - 13. Ingeles teknikoa
  - 14. Laneko prestakuntza eta orientabidea
  - 15. Enpresa eta ekimen sortzailea
  - 16. Lantokiko prestakuntza

4. GUTXIENEKO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK 139. or.

- 4.1 Espazioak
- 4.2 Ekipamenduak

5. IRAKASLEAK 140. or.

- 5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan

6. LANBIDE-MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK 141

7. TITULUKO LANBIDE-MODULUEN ETA KONPETENTZIA-ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE- ETA EGOKITASUN-LOTURAK 141. or.

- 7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko
- 7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

# 1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Komunikazio Bitartekotza.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Gizarte eta Kultura Zerbitzuak.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: INSN-5b.
- Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan duen maila: 1. maila, goi-mailako teknikaria.

# 2. LANBIDE-PROFILA ETA LANBIDE-INGURUNEA

## 2.1 Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra honako hau da: gorrekin, gor-itsuekin eta entzuteko desgaitasuna dutenekin, Espainiako zeinu-mintzaira erabili edo ez, edo komunikazio-, mintzaira- eta hizketa-zailtasunak dituztenekin komunikazio-bitartekotzako esku-hartzeak egitea, hala nola Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzen duten pertsona gorrei eta gor-itsuei zuzenduriko eta gizartea sentsibilizatzeko programak sustatzea, erabiltzaileen idiosinkrasia errespetatuta.

## 2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

a. Gorren erkidegoaren sustapena, garapena eta parte-hartzea. SSC449_3 (1096/2011 Errege Dekretua, uztailaren 22koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, Gizarte eta Kultura Zerbitzuak lanbide-arloko bederatzi lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
    UC1437_3: Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzea bere eginkizunak gauzatzean.
    UC1447_3: Gorren erkidegoaren gaineko aholkuak eta sentsibilizazioa ematea banakoei, kolektiboei eta erakundeei.
    UC0252_3: Gizarteratzeko esku-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea.
    UC1023_3: Elkarte-ehunaren sorreran eta garapenean esku hartzea, bultzatzea eta laguntzea.

b. Pertsona gor-itsuaren eta erkidegoaren arteko bitartekotza egitea. SSC447_3 (1096/2011 Errege Dekretua, uztailaren 22koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, Gizarte eta Kultura Zerbitzuak lanbide-arloko bederatzi lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
    UC1437_3: Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzea bere eginkizunak gauzatzean.
    UC1438_3: Pertsona gor-itsuen berariazko komunikaziorako laguntza-sistemak eta -bitartekoak eta gidari ikusmendunaren teknikak erabiltzea.
    UC1439_3: Pertsona gor-itsuentzako hezkuntza- eta prestakuntza-programen garapenean parte hartzea.

UC1440_3: Pertsona gor-itsuen isolamendu-egoerak arintzera bideratutako esku-hartzeak egitea.
UC1441_3: Pertsona gor-itsuek oinarrizko zereginetan ingurunearekin elkarreragitea erraztea.

Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

a. Dinamizazio komunitarioa. SSC321 (1368/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, Gizarte eta Kultura Zerbitzuak lanbide-arloko sei lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez):
   UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea esku-hartze sozialeko proiektuetan.

b. Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunetan heztea. SSC090_3 (295/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa. Haren bidez lanbide-kualifikazio berriak ezarri eta lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean sartzen dira; gainera haiei dagozkien prestakuntza-moduluak Lanbide Heziketako Moduluen Katalogoan sartzen dira):
   UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak finkatzea, egokitzea eta aplikatzea.

## 2.3 Lanbide-ingurunea

Titulu hau eskuratzen dutenek pertsona gorrentzako, gor-itsuentzako, entzumen-desgaitasunen bat dutenentzako eta komunikatzeko zailtasunak dituzten Espainiako zeinu-mintzairaren erabiltzaileentzako zerbitzuen sektorean egingo dute lan. Zerbitzu horien barruan daude arretan, hezkuntzan, arlo psikosozialean eta oinarrizko zereginetarako laguntzan ematen direnak.

Halaber, gizartearen aldeko zerbitzuen sektorean ere egin dezakete lan, dinamizazio komunitarioan eta pertsonen aukera-berdintasunaren sustapenean.

Hauek dira zeregin eta lanpostu aipagarrienak:

- Gorren erkidegoa garatzeko agentea.
- Pertsona gorrak sustatzeko, artatzeko eta prestatzeko teknikaria.
- Gorren erkidegoa dinamizatzeko agentea.
- Gorren erkidegoko gizarte-bitartekaria.
- Gor-itsuen erkidegoa garatzeko agentea.
- Gor-itsuen erkidegoa dinamizatzeko agentea.
- Pertsona gor-itsuen bitartekaria.
- Pertsona gor-itsuen laguntzailea.
- Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen bitartekaria.

# 3. HEZIKETA-ZIKLOAREN IRAKASGAIAK

## 3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Informazioa interpretatzea, eta estrategiak eta bitartekoak hautatzea, komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko programak osatzeko, indarrean dagoen araudia eta genero-ikuspegia aplikatuta.

2. Informazioa lortzeko teknikak eta bitartekoak hautatzea, erabiltzailearen beharren eta ezaugarrien arabera, esku-hartze programetan jarduteko jarraibideak ezartzeko.
3. Gizarte-komunikazioko teknikak eta bitartekoak aztertzea, eta horien aukerak eta mugak identifikatzea, pertsona gorren, gor-itsuen, entzumen-desgaitasuna dutenen eta komunikazio-zailtasunak dituztenen gaineko aholkuak eta sentsibilizazioa emateko banakoei, kolektiboei eta erakundeei.
4. Mezuak osatu eta ezagutaraztea, hizkuntza-elementu eta -baliabide egokiak hautatuta, zeinu-mintzairan komunikatzeko mintzaira horren erabiltzaileekin.
5. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak eta ahozko komunikaziorako laguntza-bitartekoak erabiltzea, eta horien aukerak eta mugak aztertzea erabiltzaileen komunikazioaren sustapenean aplikatzeko.
6. Komunikazioa errazten edo zailtzen duten faktoreak identifikatzea, egoera pertsonalaren eta komunikazio-ingurunearen ezaugarriak eta aldaketak aztertuta, komunikazioa erabiltzaileari egoki dakion.
7. Estrategiak eta jardunbideak hautatzea, erabiltzailearen egunerokotasuna aztertuta, oinarrizko zereginetan autonomia gehiagoz jardutea sustatzeko.
8. Komunikazio-bitartekotzako teknikak identifikatzea, esku-hartzearen ingurunea, ezaugarriak eta solaskideak aztertuta, horien arteko komunikazioa bideratzeko.
9. Gidari ikusmendunaren teknikak eta komunikaziorako laguntza-sistemak hautatzea, komunikazio mota egoerari egokituta, pertsona gor-itsuak laguntzeko.
10. Estrategiak eta baliabide metodologikoak hautatzea, komunikazioan esku hartzeko programaren arabera, horiek antolatzeko eta ezartzeko.
11. Komunikazio-isolamenduko egoera prebenitzeko eta arintzeko estrategiak eta baliabideak hautatzea, egoera pertsonalaren eta sozialaren eta erabiltzailearen komunikazio-ingurunearen arabera.
12. Baliabide eta laguntza teknikoak aztertzea, pertsonaren eta ingurunearen ezaugarrien araberako funtzionamendua eta egokitzapena aplikatuz, komunikazio-bitartekotzako esku-hartzeak gauzatzeko.
13. Ebaluazio-teknikak eta -tresnak hautatzea, kalitate-irizpideen eta -adierazleen arabera, komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonei zuzendutako komunikazio- eta gizarteratze-programak ebaluatzeko.
14. Istripuetan edo larrialdietan jarduteko protokoloak deskribatzea, lehen laguntzak aplikatzeko teknika egokiak hautatuta.
15. Lan-ingurunean behar diren gizarte-trebetasunak aztertzea, esku-hartzean inplikatutako pertsonekin harreman ona izateko eta balizko gatazkak konpontzeko erabakigarriak diren faktoreak identifikatuta.
16. Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-espirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
17. Sormena eta berrikuntzako espiritua garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.
18. Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, tartean diren aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabeherei aurre egiteko eta horiek ebazteko.
19. Gidaritza-, motibazio-, gainbegiratze- eta komunikazio-teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lantaldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.
20. Komunikazio-estrategiak eta -teknikak aplikatzea eta transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzaileen ezaugarrietara egokitzea, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.
21. Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.

22. Irisgarritasun unibertsalari eta guztiontzako diseinuari erantzuteko beharrezkoak diren lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.
23. Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak gainbegiratzeko eta hobetzeko gai izateko.
24. Kultura ekintzailearekin, enpresakoarekin eta ekimen profesionalekoarekin erlazionatutako prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.
25. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan harturik, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

## 3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa:

| LANBIDE-MODULUA | Ordu-esleipena | Kurtsoa |
|---|---|---|
| 1111. Komunikazio-, mintzaira- eta hizketa-arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko metodologia | 99 | 1 |
| 1112. Gizarte-sentsibilizazioa eta partaidetza | 99 | 1 |
| 1113. Gor-itsuekin gizartean eta hezkuntzan esku hartzea | 140 | 2 |
| 1114. Gor-itsuekiko kominikazio-bitartekotzaren testuingurua | 160 | 2 |
| 1115. Zeinu-mintzaira | 198 | 1 |
| 1116. Zeinu-mintzaira aplikatzeko eremuak | 140 | 2 |
| 1117. Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzea | 99 | 1 |
| 1118. Komunikazioan esku hartzeko teknikak | 132 | 1 |
| 0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak | 132 | 1 |
| 0017. Gizarte-trebetasunak | 132 | 1 |
| 0020. Lehen laguntzak | 60 | 2 |
| 1119. Komunikazio-bitartekotzako proiektua | 50 | 2 |
| E-200. Ingeles teknikoa | 40 | 2 |
| 1120. Laneko prestakuntza eta orientabidea | 99 | 1 |
| 1121. Enpresa eta ekimen sortzailea | 60 | 2 |
| 1122. Lantokiko prestakuntza | 360 | 2 |
| **Zikloa, guztira** | **2.000** | |

## 3.3 Lanbide-moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

# 1. lanbide-modulua 1

# KOMUNIKAZIO-, MINTZAIRA- ETA HIZKETA-ARAZOAK DITUZTEN PERTSONAK GIZARTERATZEKO METODOLOGIA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Komunikazio-, mintzaira- eta hizketa-arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko metodologia** |
| Kodea: | 1111 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 99 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Kreditu kop.: | 5 |
| Irakasleen espezialitatea: | Interbentzio soziokomunitarioa<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal hauei lotuta dago:<br>UC0252_3: Gizarteratzeko esku-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea.<br>UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea esku-hartze sozialeko proiektuetan. |
| Helburu orokorrak: | 1 / 10 / 13 / 22 / 23 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Komunikazio-bitartekotzaren ingurunearen ezaugarriak zehazten ditu, gizarteratzeko eta gizarte-bazterkeriako prozesuak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gizarteratze-esparruko zein sektoretan esku hartu behar den identifikatu du.
b) Giza garapen ebolutiboaren oinarrizko prozesuak azaldu ditu.
c) Pertsonen gizarteratzean eragiten duten prozesuak eta faktoreak deskribatu ditu.
d) Gizarte-prozesuetan aplikagarri diren psikologiako eta soziologiako oinarrizko kontzeptuak eta prozesuak azaldu ditu.
e) Pertsonen eta kolektiboen gizarteratzeari eta gizarte-bazterkeriari loturiko oinarrizko prozesuak deskribatu ditu.
f) Gizarte-bazterkeriaren faktoreak eta adierazleak identifikatu ditu.
g) Aurreiritzia eta diskriminazioa aztertu ditu, gizarte-bazterkeriaren kausa diren aldetik.
h) Kultura-faktoreek marjinazioaren eta desgaitasunaren konfigurazioan duten eragina aztertu du.

2. Gizarte-arloko esku-hartzearen esparrua interpretatzen du, horren egitura juridikoa eta administratiboa esku-hartze zerbitzuekin eta programekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gizarte-babeseko eta mendekotasunari aurre egiteko sistemen aurrekariak eta bilakaera azaldu ditu.
b) Gizarte-babeseko ereduak alderatu ditu.
c) Gizarte-babesaren egoera aztertu du Europan.
d) Esku-hartze sozialaren administrazio-, lege- eta eskumen-esparrua deskribatu du.
e) Gizarte-babeseko sistemen alde agertu da, gizarteratzeko eta gizarte-orekarako elementu diren aldetik.
f) Diskriminazio positiboaren garrantzia nabarmendu du berdintasun-prozesuetan.
g) Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariak gizarteratzearen esparruan duen zeregina deskribatu du.
h) Kolektibo bakoitzak eskura ditzakeen prestazio eta laguntza nagusiak zerrendatu ditu.

3. Informazioa lortzeko metodoak, teknikak eta tresnak zehazten ditu, ezaugarriak eta aplikazio-esparrua interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Informazioa lortzeko metodo, teknika eta tresna nagusiak identifikatu ditu.
b) Tresna eta baliabideak aplikatzeko eskakizunak zehaztu ditu.
c) Teknika eta tresnen aplikazioak, aukerak eta mugak identifikatu ditu.
d) Xedearekin koherenteak diren tresnak landu ditu.
e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu, informazioa lortzeko.
f) Egoerarako egokiak diren analisi-teknikak hautatu ditu.
g) Errealitatea aztertzeak esku-hartzearen arrakastan duen garrantzia justifikatu du.
h) Informazio-bilketaren eta -tratamenduaren alderdi etikoak baloratu ditu.

4. Gizartean esku hartzeko proiektua osatzen duten elementuak zehazten ditu, eta elementu horiek plangintza-ereduekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gizartean esku hartzeko plangintzaren mailak identifikatu ditu.
b) Plangintza-prozesuaren faseak deskribatu ditu.
c) Plangintzaren oinarrizko elementuak identifikatu ditu.
d) Gizarteko esku-hartzean aplikatzekoak diren metodoak, teknikak eta tresnak alderatu ditu.
e) Programazio-eredua hautatzeko irizpideak identifikatu ditu.
f) Gizartean esku hartzeko proiektuak behar bezala funtsatzearen beharra justifikatu du.
g) Programazioko elementuen arteko koherentziaren beharra balioetsi du.

5. Gizartean esku hartzeko proiektuak lantzean genero-ikuspegia txertatzen du, eta erabilitako estrategiak eta irizpideak indarrean dagoen esparru teorikoarekin eta legalarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Generoaren ikuspegitik egiten den errealitatearen analisiaren garrantzia argudiatu du.
b) Gizartean esku hartzeko proiektuak egitean, generoaren ikuspegia txertatzearen beharra argudiatu du.

c) Aukera-berdintasuna sustatzen duen lege-esparrua interpretatu du.
d) Esku-hartzearen esparruko aukera-berdintasuneko erakundeen eta organismoen informazioa eta baliabideak interpretatu ditu.
e) Proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak identifikatu ditu.
f) Hizkuntza ez-sexistaren erabilerari buruzko nazioarteko protokoloak aztertu ditu.
g) Gizartean esku hartzeko proiektuen plangintzan hizkuntza ez-sexista erabiltzea ziurtatu du.

6. Esku-hartzearen gaineko kontrol- eta segimendu-jarduerak egiten ditu, horretarako teknikak eta tresnak hautatuta, bere jarduera eta diziplina-arteko taldearena atzeraelikatzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ebaluazio-ereduak, -teknikak eta -tresnak deskribatu ditu.
b) Ebaluazioaren funtzioak eta printzipio orokorrak azaldu ditu.
c) Ebaluazioaren faseak deskribatu ditu.
d) Ebaluazio-teknikak, -adierazleak, -irizpideak eta -tresnak zehaztu ditu.
e) Lortutako datuak interpretatu ditu.
f) Programen funtzionamendua optimizatzeko eta horien kalitatea bermatzeko ebaluazioa egitearen beharra argudiatu du.
g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu ebaluazio-txostenak eta memoriak lantzeko eta aurkezteko.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZAREN INGURUNEAREN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Gizarteratze-esparruko zein sektoretan esku hartu behar den identifikatzea.<br>- Giza garapen ebolutiboaren oinarrizko prozesuak aztertzea.<br>- Gizarteratze-prozesua eta bizi-zikloa aztertzea.<br>- Pertsonak nahiz kolektiboak gizarteratzeko eta/edo baztertzeko faktoreak eta prozesuak identifikatzea.<br>- Komunikazio-bitartekotzaren esparrua definitzea.<br>- «Hizkuntza», «mintzaira», «komunikazio-sistema» eta «hizketa» definitzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Gizarteratze prozesuetan aplikaturiko gizarte-psikologia eta soziologia.<br>- Gizarteratze-prozesuen eta gizarte-marjinaziokoen gaineko kontzeptuak eta teoria.<br>- Marjinazioaren eta desgaitasunaren kultura-konfigurazioa.<br>- Hizkuntza-garapena eta hizkuntzaz jabetzea versus mintzairen ikaskuntza. |
| | |
| jarrerazkoak | - Aurreiritzia eta diskriminazioa aztertzea, gizarte-bazterkeriaren kausa diren aldetik.<br>- Gutxiengo linguistiko deituarekiko jakin-mina.<br>- Komunikazio-zailtasunak dituztenen beharren gaineko sentsibilitatea eta enpatia. |

| 2. GIZARTE-ARLOKO ESKU-HARTZEAREN ESPARRUA INTERPRETATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Gizartean esku hartzeko Espainiako eta inguruko herrialdeetako ereduen azterketa konparatiboa.<br>- Gizartean esku hartzeko esparruan EAEk dituen eskumenak identifikatzea.<br>- Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren lanbide-profila definitzea. |
| kontzeptuzkoak | - Gizarteko esku-hartzea.<br>- Gizarte-arloko administrazio-, lege- eta eskumen-esparrua.<br>- Administrazioek kolektiboei eskainitako prestazioak eta laguntzak. |
| jarrerazkoak | - Gizarte-babeseko sistemak aldeztea, gizarteratzeko eta gizarte-orekarako elementu diren aldetik.<br>- Diskriminazio positiboaren garrantzia nabarmentzea berdintasun-prozesuetan.<br>- Abian jarritako ekimenak modu eraikitzailean baloratzea.<br>- Ezagutza-eguneratze etengabea baloratzea.<br>- Gizarte-babesaren eskubidea baloratzea. |

| 3. INFORMAZIOA LORTZEKO METODOAK, TEKNIKAK ETA TRESNAK ZEHAZTEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Informazio-iturri eta informazioa erregistratzeko sistema nagusiak aztertzea: behaketa, elkarrizketa, galdetegia, inkesta eta dokumentu-bilketa.<br>- Tresnak eta baliabideak aplikatzeko eskakizunak zehaztea.<br>- Informazio biltzeko tresnak eta baliabideak zehaztea eta aplikatzea.<br>- Datuak aztertzea eta interpretatzea honakoen bidez: metodoak, teknikak, tresnak eta estatistikak.<br>- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea, datuak lortzeko.<br>- Egoeran egoerako teknika egokiak hautatzea. |
| kontzeptuzkoak | - Informazio-iturriak, bitartekoak eta komunikazio-hizkuntzak.<br>- Tekniken eta tresnen aplikazioak, aukerak eta mugak. |
| jarrerazkoak | - Errealitatea aztertzeak esku-hartzearen arrakastan duen garrantzia baloratzea.<br>- Informazio-bilketaren eta -tratamenduaren alderdi etikoak baloratzea. |

| 4. GIZARTEAN ESKU HARTZEKO PROIEKTUEN OSAGAIAK ZEHAZTEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Gizartean esku hartzeko ereduak aztertzea.<br>- Plangintza-prozesuaren faseak eta elementuak aztertzea.<br>- Programazio-eredu egokiena hautatzeko irizpideak identifikatzea.<br>- Gizarteko esku-hartzeen programazioa. |

| | |
|---|---|
| | |
| kontzeptuzkoak | - Gizarteko esku-hartze ereduak.<br>- Gizarteko esku-hartzearen programazio-metodo, -teknika eta -tresna bereizgarriak.<br>- Programazio-plangintza eta -teknikak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Esku-hartzearen funtsezko elementutzat hartzea plangintza.<br>- Programazioko elementuen arteko koherentziaren beharra balioestea. |

| 5. GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA GIZARTEAN ESKU HARTZEKO PROIEKTUETAN | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Genero-ikuspegiaren arabera aztertzea egoera.<br>- Estatuko eta nazioarteko protokoloak identifikatzea; adierazpide ez sexisten gidak eta eskuliburuak.<br>- Genero-berdintasuna sustatzeko baliabideak eta erakundeak aztertzea.<br>- Proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak identifikatzea.<br>- Aukera-berdintasunaren gaineko lege-esparrua interpretatzea.<br>- Berdintasunerako erakundeen informazioa eta baliabideak interpretatzea esku-hartzearen esparruan. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Aukera-berdintasunaren ikuspegi historikoa eta gizarteratzeko aukerak dituzten taldeen konparaketa.<br>- Pentsaera, aurreiritziak, itxaropenak, adierazpideak eta generoa.<br>- Generoen aukera-berdintasunerako rolak, estereotipoak eta balioak.<br>- Genero-eraikuntzaren teoria.<br>- Generoen arteko aukera-berdintasunaren gaineko lege-esparrua. |
| | |
| jarrerazkoak | - Sinesmenak, jarrerak eta portaerak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna balioestea.<br>- Tolerantzia, errespetua eta ekitatea balioestea, gatazkei aurre egin eta horiek konpontzeko. |

| 6. ESKU-HARTZEAREN GAINEKO KONTROL- ETA SEGIMENDU-JARDUERAK EGITEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Komunikazio-bitartekotzako esku-hartzeen gaineko segimendua eta ebaluazioa.<br>- Ebaluazio-baliabideak eta -jarduerak antolatzea.<br>- Ebaluazioan lortutako datuak eta prozesua bera interpretatzea eta aztertzea.<br>- Ebaluazio-txostenak eta memoriak osatzea eta aurkeztea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Ebaluazio-ereduak, -teknikak, -adierazleak, -irizpideak eta -tresnak.<br>- Ebaluazioaren faseak, elementuak, funtzioak eta printzipioak.<br>- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informazioaren kudeaketan.<br>- Komunikazio-bitartekotzako proiektuen kalitatea kudeatzeko sistemak. |
| | |

| | |
|---|---|
| jarrerazkoak | - Ebaluazioaren garrantzia balioestea, esku-hartzearen kalitate-programak hobetu ditzakeen aldetik.<br>- Ebaluazioan objektibotasuna baloratzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu honi dagokionez, eta irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuak antolatzeari eta martxan jartzeari begira, hainbat gomendio eskainiko dira jarraian, prozesua era bikainean gara dadin, eraginkortasunari dagokionez:

### 1) Sekuentziazioa

Eredu zehatz hau egituratzeko, jarraian zehaztutako faseak edo atalak ezarritako hurrenkeran gauzatzea komeni da:

1. Komunikazio-bitartekotzari dagozkion ingurunearen, prozesuen eta sektoreen ezaugarriak zehaztea.
2. Gizarteko esku-hartze komunikatiboaren proiektua antolatzea.
3. Gizarteko esku-hartze komunikatiboaren proiektua gauzatzea eta hari segimendua egitea.

**1.** Zikloaren lehen modulua denez, hasteko, komeni da komunikazio-bitartekotzaren esparrua eta esparru horretan erabilitako terminologia ikuspegi semantikotik eta soziokulturaletik azaltzea. Hau da, titulu honen zenbait alderdi definitzea, zer (kultura-bitartekotza, gizarteko esku-hartzea, hizkuntza, zeinu-mintzaira, desgaitasuna, etab.), nork (pertsona gorra, gor-itsua, bitartekaria, etab.) eta beste alderdi batzuk kasu.

Terminoek denentzat adiera bera izatea lortuta, komunikazio-bitartekotzaren esparruaren ezaugarriak identifikatuko dira, hala nola sektore espezifikoak eta bitartekotza ezartzeko prozesuak.

**2.** Ondoren, gizarteko esku-hartze komunikatiboaren proiektua prestatzeko lanetan egin beharreko azterketa landuko da.

Horretarako, aldez aurretik jakin behar da zertan datzan proiektu mota hori eta zein diren esparru horretara hobekien egokitzen diren metodoak, teknikak eta tresnak.

Segidan, hautatutako programaren plangintza landuko da: zer datu behar den, eta horiek zer-nola lortu; eta zer-nola aztertu, aurre egin beharreko premiak kontuan hartuta. Horretarako, programazio-jarraibideak, -mailak eta -elementuak aztertuko dira.

**3.** Azkenik, planifikatutako proiektua gauzatzeko plan arautua zein eratara ezartzen den ikasiko da, esku-hartze estrategia eragindako pertsonari eta egoerari egokituta eta programatutakoaren garapen pragmatikora mugatzea ekidinez.

Aldi berean, egin beharreko segimendu- eta kontrol-jarduerak zehaztuko dira, eta horien plangintza ere lehendik egingo da, esku-hartzean etengabeko hobekuntza ezarri ahal izateko.

### 2) Alderdi metodologikoak

Moduluaren beraren izenak dioen legez, ezin gara ahaztu komunikazio-bitartekotzaren helburuko erabiltzaileez; hizkuntza-elkarreraginean, adierazpenean eta/edo ulermenean,

arazoak dituzten pertsonak. Horietako ia inork ez du jaso beharren araberako erantzunik, pertsona gorrak edo gor-itsuak diren aldetik (ia guztiak), bai ordea kolektibo horri dagokion ingurune sozioedukatiboak.

Horrenbestez, ziklo eta modulu honen irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesua, lanbide-esparru jakin baterako bidea ematen duena, aipatutako errealitatea ulertzetik hasi behar da, hala ikuspegi profesionaletik nola zerbitzu horien erabiltzaileenetik.

Printzipio hori finkatuta, itxuraz teorikoa den lehen modulu honek aukera emango du erabat irakaslean oinarritutako ereduetatik ikasleek eta irakasleek lehendik zehaztu eta ordenatu diren edukien lanketan era aktiboan parte hartzeko ereduetara aldatzeko.

Alegia, bigarren esparru-printzipioa aipatutako edukien adierazgarritasun-tratamenduari buruzkoa da; irakasleek beren bitartekotza-lanaren eredu gisa esku hartu dezakete, ikasleei protagonismo, motibazio eta parte-hartze handiagoa eskainiz era mailakatuan.

Hasteko, modulua aurkez dezake arduradunak eta, aldi berean, ikasleei iritziak, ezagutzak edo itxaropenak azaltzea eska diezaieke. Era berean, aukera izango dute jardun profesionalerako autonomia eta segurtasuna garatzeko eta pertsonekiko harremana ezinbestekoa den lanetan egon ohi diren oztopoak gainditzeko.

Aurrera egin ahala, kasuko ikasle-taldea gorabehera (bistan da; taldeek bilakaera eta emaitza desberdinak lortuko dituzte, desberdinak direnez) eta kide bakoitzaren bereizgarriei ezikusi egin gabe, hainbat ekintza aginduko dira diseinatutako helburuak lortzeko. Esaterako, honakoak:

- ✓ Bakarkako lanak eta talde-lanak.
- ✓ Datuak aztertzeko tresnak (ideia-jasa, bateratze-lanak, etab.).
- ✓ Kasuak, teknikak, programak, etab., aztertzea.
- ✓ Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzea.
- ✓ Ikasgelako errutina apurtzeko, gonbidatuak ekartzea, errealitatearen eta irtenbide profesionalen gaineko ikuspegi gehiago eskaintzeko.
- ✓ Ikasleek ahal duten neurrian zeinu-mintzaira erabiltzea komunikazio-hizkuntza gisa zikloan, neurri handi batean hori baliatuko baitute komunikazio-bitartekotzako zerbitzuen erabiltzaileek, adierazpidea eta ulermena bermatzen dien bakarra denez.

Zikloko irakasleek koordinatuta jardutea komeni da, beraz, eta bikoiztasunak saihestea, moduluak elkarren osagarri izatea sustatuz.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Komunikazio-bitartekotzari dagozkion ingurunearen, prozesuen eta sektoreen ezaugarriak zehaztea:
  - Esparruari loturiko albiste bat labur azaltzea, ahal dela, zeinu-mintzairan.
  - Ikasle-taldearen ideia-jasa eta honakoen ezaugarriak zehaztea:
    - Komunikazio-bitartekotzaren esparrua.
    - Komunikazio-bitartekotzaren zerbitzuaren balizko erabiltzaileak.
    - Eguneroko komunikazio-hesiak eta horien ondoriozko zailtasun «ezkutuak».
    - Komunikazio-bitartekariaren profila.

- Gizarteko esku-hartze komunikatiboko zenbait alderdiren ezarpena (eta zein mailatan ezarri) talde txikitan lantzea:
  - Honako terminoak eta kontzeptuak bereiztea: «pertsona desgaitua eta desgaitasuna duen pertsona»; «hizkuntza eta mintzaira»; eta «ahozko eta zeinuzko hizketa».
  - Genero-ikuspegiaren tratamendua.
- Esparru horri buruzko testuak bilatzea Interneten, eta horien genero-tratamendua aztertzea.

✓ Gizarteko esku-hartze komunikatiboaren proiektua antolatzea:

- Gizarte-arloan esku hartzeko programa orokorren dokumentu-azterketa (lurralde-mailaren arabera: tokikoa, erkidegokoa, Estatukoa, Europakoa) eta komunikazio-bitartekotzara egokitzeko proposamenak.
- Komunikazio-bitartekotzan esku hartzeko proiektuaren prozeduraren plangintza, genero-berdintasunaren ikuspegia txertatuta, bai edukian bai egiteko garaian.
- Ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen gaien zerrenda osatzea, gai horiek komunikazio-bitartekotzan esku hartzeko proiektua gauzatzearekin eta aplikatzearekin duten lotura azalduta. Ondoren, aditu bat ekar daiteke ikasgelara gai horiei buruz hitz egin dezan eta ikasleek adierazitako arazoentzako konponbideak proposa ditzan.
- Balizko erabiltzaileen gaineko informazioa biltzea, bitartekari bati esleitzen dizkioten zereginen gainekoa, hain zuzen. Bildutako datuen arabera, autonomia pertsonala zein neurritan osa daitekeen zehaztea.

✓ Gizarteko esku-hartze komunikatiboaren proiektua gauzatzea eta hari segimendua egitea:

- Bakarka zerrendatzea (geroago taldearekin bateratzeko) komunikazio-bitartekotzako proiektu baten segimendua egiteko neurketa- eta azterketa-tresnak egokienak.
- Beste talde batek egindako gizartean esku hartzeko komunikazio-bitartekotzako proiektuaren segimendua simulatzea eta haren ebaluazioa egitea, taldeka.
- Erabiltzaileek erreklamazioa jarri izanaren egoerak eta horien aurrean bitartekariak eman ditzakeen konponbideak simulatzea, esku hartzeko proiektuen balizko eranskinen barnean.

# 2. lanbide-modulua 2
# GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTAIDETZA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Gizarte-sentsibilizazioa eta partaidetza** |
| Kodea: | 1112 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 99 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Kreditu kop.: | 6 |
| Irakasleen espezialitatea: | Interbentzio soziokomunitarioa<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal hauei lotuta dago:<br>UC1447_3: Gorren erkidegoaren gaineko aholkuak eta sentsibilizazioa ematea banakoei, kolektiboei eta erakundeei.<br>UC1023_3: Elkarte-ehunaren sorreran eta garapenean esku hartzea, bultzatzea eta laguntzea. |
| Helburu orokorrak: | 1 / 10 / 13 / 22 / 23 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Pertsona gorren eta gor-itsuen kolektiboaren ezaugarriak zehazten ditu, ezaugarri psikosozialak eta kulturalak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsona gorren eta gor-itsuen ezaugarri psikosozialak eta kulturalak identifikatu ditu.
b) Gorren erkidegoa eta horren egiturazko elementuak identifikatu ditu.
c) Pertsona gorren eta gor-itsuen ezaugarri psikosozialak eta komunikazio-beharrak lotu ditu.
d) Pertsona gorren eta gor-itsuen kolektiboaren heterogeneotasuna balioetsi du.
e) Pertsona gorren eta gor-itsuen mendekotasuna eragiten duten faktoreak aztertu ditu.
f) Zeinu-mintzairaren identitate-balioa azaldu du.
g) Inguruneak pertsona gorren eta gor-itsuen garapenean duen eragina aztertu du.

2. Gizarte-sentsibilizazioko eta pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetza sustatzeko programak diseinatzen ditu, gizarte-komunikabideak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsona gorren eta gor-itsuen eskubideak aitortzean dituen lege-esparrua interpretatu du.
b) Gorren eta gor-itsuen erkidegoari eragiten dioten gaiak eta esparruak identifikatu ditu.
c) Pertsona gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonek plangintza-prozesuan parte hartzea sustatzeko estrategiak ezarri ditu.
d) Pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen gaineko gizarte-sentsibilizazioko programen helburuak zehaztu ditu.
e) Gizarte-sentsibilizazioaren printzipio metodologikoak aztertu ditu.
f) Kolektibo hartzaileen ezaugarriekin eta beharrekin bat datozen sentsibilizazio-jarduerak diseinatu ditu.
g) Giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide espazialak zehaztu ditu.
h) Gizarte-komunikazioko teknikak hautatu ditu.

3. Gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak antolatzen ditu, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetza sustatzeko eta bermatzeko bideak ezarrita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gizarte-sentsibilizazioko ekintzak sustatzeko laguntza-teknikak eta -baliabideak hautatu ditu.
b) Gizarte-sentsibilizazioko ekintzak sustatzeko baliabide ez konbentzionalak identifikatu ditu.
c) Pertsona gorren eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetza balioetsi du, esku hartzeko baliabide ez konbentzionala den aldetik.
d) Irisgarritasun-beharrak identifikatu ditu, inguruneak eta ezaugarriak kontuan hartuta.
e) Irisgarritasun unibertsala ezinbesteko betekizun gisa balioetsi du, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen parte-hartzeari dagokionez.
f) Esku hartzeko beharrezkoak diren egokitzapenak identifikatu ditu, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen parte-hartzea sustatzeko.
g) Irisgarritasun unibertsala eta guztientzako diseinua balioetsi ditu, aukera-berdintasunean sentsibilizatzeko estrategia gisa.
h) Ekintzak koordinatzeko estrategiak ezarri ditu inplikatutako pertsonekin eta eragileekin.

4. Gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko estrategiak aplikatzen ditu, komunikazio- eta hedapen-baliabideekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gizarte-sentsibilizazioa errazten duten hedapen-teknikak eta -estrategiak hautatu ditu.
b) Estrategiak hautatu ditu, pertsona gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonek komunikabideetan duten presentzia sustatzeko.
c) Gizarte-sentsibilizazioko ekintzak ezagutarazteko dokumentuak osatu ditu.

d) Hedapenerako eta gizarte-sentsibilizazioko helburuen araberako mezuak osatu ditu.
e) Erakundearteko lankidetza balioetsi du, hedapenerako eta gizarte-sentsibilizazioko baliabide eta estrategia den aldetik.
f) Sare sozial digitalen garrantzia balioetsi du, hedapenerako eta gizarte-sentsibilizazioko baliabide gisa.
g) Identitate-bereizgarrien garrantzia azaldu du, kolektibo horien sustapen kultural eta artistikorako.

5. Pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen gizarte-partaidetza sustatzeko estrategiak aplikatzen ditu, eta elkarte-ehuna garatzeko prozesuekin duten lotura azaltzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsona gorren eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetzari buruzko lege-esparruko elementu nagusiak identifikatu ditu.
b) Elkarte-ehunaren garrantzia azaldu du, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetza sustatzeko eragile nagusia den aldetik.
c) Elkarteen egoitzak, azpiegitura eta kideen inplikazioa balioetsi ditu, gizarte-partaidetza sustatzeko eta garatzeko baliabide metodologiko gisa.
d) Elkarte bat eratzeko prozesuari dagokion dokumentazioa bete du.
e) Elkarte-ehunari laguntza teknikoa eskaintzeko estrategiak garatu dira.
f) Balio estrategikoa duten sare sozialak eta eztabaida-foroak sortu dira, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetza eta komunikazioa sustatzeko.
g) Gizarte-partaidetzarako komunikazio-teknikak aplikatu ditu, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen ezaugarrietara egokituz.
h) Pertsona gorrak, gor-itsuak eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonak esku-hartzearen fase guztietan inplikatzearen balio estrategikoa eta metodologikoa azaldu ditu.

6. Pertsona gorren eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen gizarte-sentsibilizazioko eta -partaidetzako programen gaineko kontrol- eta segimendu-jarduerak egiten ditu, hobekuntza-esparruak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gizarte-sentsibilizazioko eta partaidetzako ekintzen gaineko kontrol- eta segimendu-teknikak hautatu ditu.
b) Gizarte-sentsibilizazioko eta partaidetzako esku-hartzeen gaineko kontrol-protokoloak ezarri ditu.
c) Pertsona gorren eta gor-itsuen prestakuntza- eta informazio-erregistroak bete ditu, horiek komunikazio-beharrekin lotuta.
d) Ekintzen irisgarritasun-maila ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak ezarri ditu.
e) Sentsibilizazio-ekintzek gizarte-komunikabideetan duten eragina neurtzeko adierazleak ezarri ditu.
f) Esku-hartzearen hartzaileek prozesu osoan zehar duten partaidetza-maila ebaluatzeko adierazleak ezarri ditu.
g) Esku-hartzearen atzeraelikadura bermatzeko eta erabakiak hartzea errazteko tresnak eta protokoloak egin ditu.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. PERTSONA GORREN ETA GOR-ITSUEN KOLEKTIBOEN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Pertsona gorren eta gor-itsuen ezaugarri psikosozialak eta kulturalak identifikatzea.<br>- Gorreri motak aztertzea.<br>- Gorren eta gor-itsuen erkidegoen egiturazko elementuak aztertzea.<br>- Pertsona gorren eta gor-itsuen ezaugarri psikosozialen eta komunikazio-beharren arteko lotura.<br>- Pertsona gorren eta gor-itsuen familia- eta hezkuntza-esparruen ezaugarriak aztertzea.<br>- Pertsona gorrek eta gor-itsuek komunikazioan dituzten beharrak aztertzea.<br>- Pertsona gorren eta gor-itsuen kolektiboaren heterogeneotasuna balioestea.<br>- Pertsona gorren eta gor-itsuen mendekotasuna eragiten duten faktoreak aztertzea.<br>- Zeinu-mintzairaren identitatea balioestea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Pertsona gorrak eta gor-itsuak. Ezaugarriak.<br>- Gorreria: motak eta loturiko gutxitasunak.<br>- Mendekotasunaren arriskuak pertsona gorren eta gor-itsuen kasuan.<br>- Pertsona gorren eta gor-itsuen garapen-esparrua.<br>- Pertsona gorrak eta gor-itsuak heztea. Antolaketa. |
| | |
| jarrerazkoak | - Pertsona gorren eta gor-itsuen kolektiboekiko enpatia. |

| 2. PERTSONA GORREN, GOR-ITSUEN ETA KOMUNIKAZIO-ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONEN PARTAIDETZA SUSTATZEKO ETA GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOKO PROGRAMAK DISEINATU DITU | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Esku-hartzearen helburuko kolektiboak aztertzea.<br>- Pertsona gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonek plangintza-prozesuan parte hartzea sustatzeko estrategiak ezartzea.<br>- Gizarte-sentsibilizazioaren printzipio metodologikoak aztertzea.<br>- Kolektibo hartzaileen ezaugarriekin eta beharrekin bat datozen sentsibilizazio-jarduerak diseinatzea.<br>- Giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide espazialak zehaztea.<br>- Gizarte-komunikazioko teknikak hautatzea.<br>- Komunikabide sozialak balioestea, sentsibilizazio- eta partaidetza-baliabide diren aldetik. |
| | |

| | |
|---|---|
| kontzeptuzkoak | - Pertsona gorren eta gor-itsuen eskubideen lege-esparrua.<br>- Gorren eta gor-itsuen erkidegoei loturiko gaiak eta esparruak.<br>- Parte-hartzezko plangintza-estrategiak.<br>- Gizarte-sentsibilizazioko programak. Helburuak zehaztea.<br>- Printzipio metodologikoak.<br>- Sentsibilizazio-ekintzak.<br>- Gizarte-komunikazioko teknikak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Errealitate soziokultural desberdinen aurreko portaerei tratu berdina ematearen aldeko interesa.<br>- Komunikazio-zailtasunak dituzten kolektiboetara egokitzeko gaitasunaren balorazioa. |

| **3. GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEKO EKINTZAK ANTOLATZEA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Gizarte-sentsibilizazioko ekintzak sustatzeko laguntza-teknikak eta -baliabideak hautatzea.<br>- Gizarte-sentsibilizazioko ekintzak sustatzeko baliabide ez konbentzionalak identifikatzea.<br>- Pertsona gorren eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetza balioestea, esku hartzeko baliabide ez konbentzionala den aldetik.<br>- Esku hartzeko beharrezkoak diren egokitzapenak identifikatzea, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen parte-hartzea sustatzeko.<br>- Irisgarritasun unibertsala eta guztientzako diseinua balioestea, aukera-berdintasunean sentsibilizatzeko estrategia gisa.<br>- Elkarte-ehunaren balorazioa, gizarte-sentsibilizaziorako baliabide den aldetik.<br>- Ekintzak koordinatzeko estrategiak ezartzea inplikatutako pertsonekin eta eragileekin. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko laguntza-teknikak eta -baliabideak.<br>- Baliabide ez konbentzionalak bilatzeko teknikak.<br>- Partaidetza-espazioetan, tartean, biltzarrak eta foroak, adostutako erabakiak.<br>- Irisgarritasuna eta guztientzako diseinua, pertsona gorrei, gor-itsuei eta komunikazio-zailtasunak dituzten kolektiboei aplikatuta.<br>- Pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen eguneroko bizitzarako doikuntza teknikoak eta teknologikoak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Pertsona gorrekin edo komunikazio-zailtasunak dituztenekin esku hartzean inplikaturiko eragileekin lankidetzan jarduteko interesa.<br>- Giza harremanekiko interesa. |

| **4. GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK APLIKATZEA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Gizarte-sentsibilizazioa errazten duten hedapen-teknikak eta -estrategiak hautatzea. |

| | |
|---|---|
| | - Estrategiak hautatzea, pertsona gorrek eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonek komunikabideetan duten presentzia sustatzeko.<br>- Gizarte-sentsibilizazioko ekintzak ezagutarazteko dokumentuak osatzea.<br>- Hedapenerako eta gizarte-sentsibilizazioko helburuen araberako mezuak osatzea.<br>- Erakundearteko lankidetza balioestea, hedapenerako eta gizarte-sentsibilizazioko baliabide eta estrategia den aldetik.<br>- Identitate-bereizgarrien garrantzia azaltzea, kolektibo horien sustapen kultural eta artistikorako. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazio-iturri formalak eta informalak.<br>- Gizarte-arloko komunikabideak. Inpaktu-adierazleak.<br>- Pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten kolektiboen sustapen kulturala eta artistikoa.<br>- Sare sozial digitalen erakundearteko lankidetza hedapenean eta gizarte-sentsibilizazioan. |
| | |
| jarrerazkoak | - Lanarekin lotutako ekintzekiko konpromisoa. |

| **5. PERTSONA GORREN, GOR-ITSUEN ETA KOMUNIKAZIO-ZAILTASUNAK DITUZTEN KOLEKTIBOEN GIZARTE-PARTAIDETZA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK APLIKATZEA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetzari buruzko lege-esparruko elementu nagusiak identifikatzea.<br>- Elkarte-ehunaren garrantzia azaltzea, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetza sustatzeko eragile nagusia den aldetik.<br>- Pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten kolektiboen gizarte-partaidetza sustatzeko estrategiak aplikatzea.<br>- Elkarteen egoitzak, azpiegitura eta kideen inplikazioa balioestea, gizarte-partaidetza sustatzeko eta garatzeko baliabide metodologiko gisa.<br>- Partaidetza-prozesuarekin loturiko dokumentazioa osatzea.<br>- Elkarte-ehunari laguntza teknikoa eskaintzeko estrategiak garatzea.<br>- Balio estrategikoa duten sare sozialak eta eztabaida-foroak sortzea, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetza eta komunikazioa sustatzeko.<br>- Pertsona gorrei eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonei aplikagarri zaizkien komunikazio- eta partaidetza-teknikak hautatzea.<br>- Komunikazio-, informazio- eta hedapen-teknologiak aplikatzea zeinu-mintzairan.<br>- Pertsona gorrak eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonak esku-hartzearen fase guztietan inplikatzearen balio estrategikoa eta metodologikoa azaltzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Elkarte-ehunaren lege-esparrua.<br>- Pertsona gorren eta komunikazio-zailtasunak dituzten kolektiboen elkarte-ehuna.<br>- Pertsona gorren eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen gizarte- eta partaidetza-egoera beren sare sozialen barnean eta horietatik kanpo.<br>- Partaidetza-dinamikak. |

| | |
|---|---|
| | - Pertsona gorren eta komunikazio-zailtasunak dituzten kolektiboen elkarte-mugimenduaren iragana, oraina eta geroa. |
| | |
| jarrerazkoak | - Laneko zehaztasuna, metodoa eta hobekuntza balioestea.<br>- Arazoak ebazteko prozesu-sistema bat aplikatzeko interesa. |

| **6. GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOKO ETA PARTAIDETZAKO PROGRAMEN GAINEKO KONTROL- ETA SEGIMENDU-JARDUERAK EGITEA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Gizarte-sentsibilizazioko eta partaidetzako ekintzen gaineko kontrol- eta segimendu-teknikak hautatzea.<br>- Gizarte-sentsibilizazioko eta partaidetzako esku-hartzeen gaineko kontrol-protokoloak ezartzea.<br>- Pertsona gorren prestakuntza- eta informazio-erregistroak betetzea, horiek komunikazio-beharrekin lotuta.<br>- Ekintzen irisgarritasun-maila ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak ezartzea.<br>- Sentsibilizazio-ekintzek gizarte-komunikabideetan duten eragina neurtzeko adierazleak ezartzea.<br>- Esku-hartzearen hartzaileek prozesu osoan zehar duten partaidetza-maila ebaluatzeko adierazleak ezartzea.<br>- Esku-hartzearen atzeraelikadura bermatzeko eta erabakiak hartzea errazteko tresnak eta protokoloak egitea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Gizarte-sentsibilizazioko eta -partaidetzako ekintzei aplikagarri zaizkien kontrol- eta segimendu-teknikak.<br>- Irisgarritasun- eta partaidetza-adierazleak.<br>- Inpaktu-adierazleak.<br>- Esku-hartzearen atzeraelikadura-mekanismoak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Erabakimena sustatzea, banaka eta taldeka.<br>- Egoeraren araberako portaera pertsonala.<br>- Lana modu independentean gauzatzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

### 1) Sekuentziazioa

Modulua hasteko, komeni da hasieran unitate didaktiko bat ezartzea, moduluaren bitartez lortu nahi dena labur eta argi azaltzeko. Gainera, hasierako tarte hori aprobetxatu daiteke oinarriak azaltzeko, epeak jakinarazteko, arauak ezartzeko eta, era berean, ikasleen itxaropenak eta moduluko edukien gainean dakitena ezagutzeko.

Modulu honen irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuaren lehen urratsa pertsona gorren eta gor-itsuen ezaugarriak azaltzea izatea komeni da. Ezaugarri horiek azalduta, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten kolektiboen partaidetza sustatzeko programen eta gizarte-sentsibilizaziokoen diseinua landuko da.

Ondoren, gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko ekintzen antolaketari helduko zaio. Hala, aurrerago, sustapen horri dagozkion estrategiak aplikatu ahal izango dira.

Segidan, sustapen-estrategiak landuko dira: kasu honetan, pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten kolektiboen gizarte-partaidetza.

Azkenik, gizarte-sentsibilizazioko eta partaidetzako programen gaineko kontrol- eta segimendu-jarduerak aztertuko dira.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hipotesi teorikoek eta egoera simulatuen gainean egingo da lan. Batean zein bestean, oso garrantzitsua da ezaugarriak argi zehaztea, eta kasuok ahal bezain egiatiak eta askotarikoak izatea. Kasu horiek argi azaldu behar dira; ikasleek argi eduki behar dute horien helburua.

Zenbait jarduera egiteko, komeni da lan-eskema bat ematea, prozesua modu ordenatuan gauzatzeko. Hala, ikaslea urratsez urrats lortu beharreko emaitzez jabetuko da. Zenbaitetan, eskema hori bera osatzea edo eskuliburuak eta protokoloak erabiltzea ikaskuntza-prozesuaren alderdi garrantzitsuenetako bat izango da.

Irakasleak rol desberdinak bete ditzake, egoki denaren arabera.

Moduluaren hasieran, batez ere, irakasleak gidatuko du prozesua. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, ikasleak protagonismo handiagoa izango du ikaskuntzan, eta irakaslea laguntza eta orientabideak ematera mugatuko da.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Pertsona gorren kolektiboaren ezaugarriak zehaztea:

- Gorren kolektiboari buruzko aurretiazko ezagutzak neurtzeko bakarkako galdetegia.
- *El grito de la gaviota* (Emmanuelle Laborit) liburua irakurri eta, ondoren, lana egitea.
- *Veo una voz* (Oliver Shacks) liburua irakurri eta, ondoren, lana egitea.
- Gorren erkidegoari buruzko bideoak ikustea.
- Gorren erkidegoari buruzko eztabaidak zeinu-mintzairan.
- Gorren erkidegoari buruzko egunkari-zati berri eta zaharren gaineko lana.
- Profil desberdineko pertsona gorren bisitaldiak (aurrelokutiboak edo postlokutiboak, gorren erkidegoan inplikazio-maila handia edo txikia dutenak), ikasleek horiekin zeinu-mintzaira praktikatzeko eta bisitarien errealitatea bertatik bertara ezagutzeko.

Pertsona gorren eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen partaidetza sustatzeko eta gizarte-sentsibilizazioko programak diseinatzea:

- Pertsona gorrek eta entzun dezaketenek eta pertsona gorren eta/edo komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen elkarteetako langileek ikasgela bisitatzea, mota horretako programak diseinatzean eman behar diren urratsak azaltzeko.
- Programa horien gaineko eztabaidak egitea zeinu-mintzairan.
- Interneten dagoen informazioa biltzea.
- Kide gutxiko taldeek egindako lanak, hainbat programa mota diseinatuz.

Gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak antolatzea:

- Pertsona gorren elkarteak bisitatzea.
- Institutuan bertan antolatzea sentsibilizazio-kanpainak, zeinu-mintzaira erabiliz.
- Zeinu-mintzairako prestakuntza-jarduerak antolatzea institutuko gainerako ikasleentzat, sentsibilizazio-neurri gisa.
- Ikasleek Pertsona Gorren Munduko Egunean parte hartzea.

Pertsona gorren eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen gizarte-sentsibilizazioa eta -partaidetza sustatzeko estrategiak aplikatzea:

- Kasu jakin batzuen ezaugarriak zehaztea eta aztertzea, jardueraren komunikazio-hizkuntza gisa zeinu-mintzaira erabilita.
- Informazioa bilatzea talde txikietan, bitarteko teknologikoak erabiliz.
- Gaiari buruzko bideoak ikustea.

Gizarte-sentsibilizazioko eta -partaidetzako programen gaineko kontrol- eta segimendu-jarduerak egitea:

- Talde txikietan osatzea sentsibilizazio-programa osoa.
- Kasu zehatzak aztertzea.
- Sentsibilizazio-zerbitzuen erabiltzaileak elkarrizketatzea.
- Sentsibilizazio-zerbitzuetan lan egiten duten profesionalak elkarrizketatzea.

# GOR-ITSUEKIN GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Gor-itsuekin gizartean eta hezkuntzan esku hartzea** |
| Kodea: | 1113 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 140 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Kreditu kop.: | 10 |
| Irakasleen espezialitatea: | Gizartearentzako zerbitzuak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)<br>Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal hauei lotuta dago:<br>UC1439_3: Pertsona gor-itsuentzako hezkuntza- eta prestakuntza-programen garapenean parte hartzea.<br>UC1441_3: Pertsona gor-itsuek oinarrizko zereginetan ingurunearekin elkarreragitea erraztea. |
| Helburu orokorrak: | 1 / 2 / 3 / 6 / 7 / 10 / 11 / 13 / 21 / 22 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Pertsona gor-itsuei zuzendutako komunikazioko esku-hartzearen ezaugarriak zehazten ditu, printzipio metodologikoak eta prozesu kognitiboekin eta esku-hartzearen mailekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Esku-hartzea zuzentzen duten oinarri metodologikoak deskribatu ditu.
b) Sortzetiko gor-itsutasuna duten pertsonen garapen kognitiboaren prozesua aztertu du.
c) Sortzetiko gor-itsutasuna duten pertsonei zuzenduriko esku-hartzearen mailak zehaztu ditu.
d) Sortzetiko gor-itsutasuna duten pertsonen portaera-ikaskuntzaren prozesua deskribatu du.
e) Portaera arazotsuen komunikazio-balioa eta esku hartzeko teknika egokienak aztertu ditu.

f) Gor-itsutasunaren ondorio nagusiak zehaztu ditu, autonomia pertsonala eskuratzeari eta bermatzeari dagokienez.
g) Hartutako gor-itsutasuna duten pertsonen ikaskuntzaren berezitasunak deskribatu ditu.
h) Hartutako gor-itsutasunaren ondorio psikosozialak deskribatu ditu.

2. Pertsona gor-itsuei zuzenduriko esku-hartzea antolatzen du, horien ezaugarriak banakako arreta-planean ezarritako esku hartzeko esparruekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Banakako arreta-plana aztertu du, elementuak identifikatuta.
b) Pertsona gor-itsuaren ezaugarri nagusiak identifikatu ditu, esku hartzeko esparruekin eta helburuekin lotuta.
c) Lehentasunezko jarduerak hautatu ditu, programatutako helburuen arabera.
d) Zentroko eta inguruko baliabideak identifikatu ditu, esku-hartzea optimizatzeko.
e) Diziplinarteko taldearen antolaketa- eta funtzio-egitura identifikatu ditu, bitartekariaren koordinazioarekin lotuta.
f) Esku-hartzearen helburuen eta jardueren plangintzaren arteko koherentziaren garrantzia azaldu du.
g) Banakako arreta-plana lantokiko esparru orokorrarekin lotzearen garrantzia aztertu du.

3. Komunikazio-bitartekotzako programak ezartzen ditu, pertsona gor-itsuak dauden zentroetan esku hartzeko esparruetara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatu ditu, detekzio goiztiarreko programen garapen-planera egokituta.
b) Esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatu ditu, hezkuntza arrunt eta bereziko programen garapen-planera egokituta.
c) Esparru soziolaboralera egokitutako esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatu ditu.
d) Bizitoki-esparrura egokitutako esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatu ditu.
e) Esparruan esparruko materialak osatzeko eta egokitzeko irizpide nagusiak balioetsi ditu.
f) Talde-lanaren balioa zehaztu du esku hartzeko esparruetan.
g) Taldeko profesionalek esku hartzean bete behar duten papera errespetatzearen garrantzia balioetsi du, esparruan esparruko berezitasunak kontuan hartuta.

4. Komunikazio-bitartekotzako programak ezartzen ditu, pertsona gor-itsuen familia- eta gizarte-ingurunearen ezaugarrien arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsona gor-itsuaren eta bere inguruko pertsonen arteko harremana zehazten duten alderdiak identifikatu ditu.
b) Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren zeregina deskribatu du, gizarte- eta familia-esparruko programak garatzeari dagokionez.
c) Familia-esparruan gaitasun komunikatiboa areagotzeko estrategiak zehaztu ditu.
d) Bitartekotza-baliabideak eta -estrategiak erabili ditu, gizarte- eta familia-inguruneko bakartze-egoerak arintzeko.
e) Pertsona gor-itsuak bere gizarteratzea sustatzeko jardueretan parte hartzea eragin dezaketen inguruneko baliabideak identifikatu ditu.

f) Komunikazio-bitartekotzako jarraibideak aplikatu ditu, oinarrizko zereginak gauzatzeko eta etxebizitza antolatzeko nahiz kudeatzeko.
g) Aisia-jardueretan eta astialdian esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatu ditu.
h) Neutraltasun-, objektibotasun- eta errespetu-printzipioak bermatu beharra azaldu du, familia-unitatearen intimitateari dagokionez.

5. Esku-hartze komunikatiboaren segimendua egiten du, ezarritako erregistro-dokumentuak betez.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ebaluazio-adierazleak ezarri ditu.
b) Esku-hartzearen segimendu-erregistroak bete ditu.
c) Komunikazio-bitartekotzaren programa ebaluatzeko beharrezkoak diren espazioak eta denborak hautatu ditu.
d) Txostenak eta memoriak egin ditu.
e) Informazioa diziplinarteko taldeari transmititzearen garrantzia argudiatu du.
f) Diziplinarteko taldeko kideei informazioa helarazteko bideak zehaztu ditu.
g) Bitartekotza-prozesuan inplikatutako eragile guztien arteko komunikazio-kanalei eustearen garrantzia balioetsi du.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. GOR-ITSUEKIKO KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZAREN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Esku-hartze maila aztertzea eta hautatzea, pertsona gor-itsuaren ezaugarrien arabera. |
| kontzeptuzkoak | - Gor-itsuekin esku hartzearen printzipio metodologikoak.<br>- Pertsona gor-itsuen prozesu kognitiboak.<br>- Esku-hartze mailak:<br>• Elkarreragin komunikatiboa.<br>• Komunikazioaren garapena.<br>• Hizkuntza.<br>- Ikaskuntza-prozesuak.<br>- Pertsona gor-itsuaren portaeraren komunikazio-balioa.<br>- Sortzetik gor-itsuak diren pertsonen autonomia pertsonalerako programak.<br>- Hartutako gor-itsutasunaren inplikazioak:<br>• Norberaren autonomia.<br>• Zentzumen-egoera berrira doitzea.<br>• Ikaskuntza egokituak. |
| jarrerazkoak | - Gaitasun-aniztasuna balioestea eta errespetatzea.<br>- Jarrera malgua eta sortzailea. |

| 2. GOR-ITSUEKIN ESKU HARTZEA ANTOLATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Gor-itsuekin esku hartzeko jarduerak diseinatzea.<br>- Ikasmaterialak eta ikas-baliabideak egitea eta egokitzea.<br>- Pertsona gor-itsuekin esku hartzeko baliabideak identifikatzea. |

| | |
|---|---|
| kontzeptuzkoak | - Arreta-programak. Elementuak. Banakako arreta-plana, lantokian.<br>- Esku hartzeko arloak:<br>• Garapen motorra.<br>• Pertzepzio-ahalmenak.<br>• Kognizioa, komunikazioa eta hizkuntza.<br>• Hezkuntza.<br>• Autonomia pertsonala.<br>• Desgaitasunera doitzea.<br>• Laneko trebetasunak.<br>• Gizarte-garapena.<br>• Komunikazio-teknologiak eta informaziorako sarbidea izatekoak.<br>- Diziplinarteko taldea.<br>- Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren zeregina diziplinarteko talde batean.<br>- Profesionalen arteko koordinazioa. |
| | |
| jarrerazkoak | - Profesionalak koordinatzearen garrantzia baloratzea. |

| 3. PERTSONA GOR-ITSUEKIN KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZAKO PROGRAMAK EZARTZEA ZENTROETAN | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Arreta goiztiarrean aplikatzea esku hartzeko estrategiak eta teknikak, garapen-planera eta pertsona gor-itsuaren ezaugarrietara egokituta.<br>- Arreta goiztiarreko materialak garatzea eta egokitzea.<br>- Hezkuntza arrunteko eta bereziko ikastetxean aplikatzea esku hartzeko estrategiak eta teknikak, garapen-planera eta pertsona gor-itsuaren ezaugarrietara egokituta.<br>- Esparru soziolaboraleko erakundeetan aplikatzea esku hartzeko estrategiak eta teknikak, garapen-planera eta pertsona gor-itsuaren ezaugarrietara egokituta.<br>- Bizitoki-esparruko erakundeetan aplikatzea esku hartzeko estrategiak eta teknikak, banakako planera eta pertsona gor-itsuaren ezaugarrietara egokituta. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Arreta goiztiarrean esku hartzeko estrategiak eta teknikak.<br>- Haur gor-itsuaren garapen sozial eta emozionala.<br>- Behaketa eta ekiteko nahia.<br>- Hezkuntza arrunteko eta bereziko ikastetxean esku hartzeko estrategiak eta teknikak.<br>- Esparru soziolaboraleko erakundeetan esku hartzeko estrategiak eta teknikak.<br>- Bizitoki-esparruko erakundeetan esku hartzeko estrategiak eta teknikak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Talde-lana balioestea esku-hartze esparru bakoitzean. |

| 4. KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZAKO PROGRAMAK EZARTZEA FAMILIA- ETA GIZARTE-INGURUNEAN | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Familia-inguruneko komunikazio-bitartekotzako baliabideak eta estrategiak aplikatzea.<br>- Gizarte-inguruneko komunikazio-bitartekotzako baliabideak eta |

| | |
|---|---|
| | estrategiak aplikatzea.<br>- Berdinen arteko komunikazio-bitartekotzako baliabideak eta estrategiak aplikatzea.<br>- Aisia-jarduеretako eta astialdiko komunikazio-bitartekotzako baliabideak eta estrategiak aplikatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Familia eta gor-itsutasuna.<br>- Pertsona gor-itsuak bere ingurune sozialarekin duen harremana.<br>- Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren zeregina.<br>- Familia-esparruan gaitasun komunikatiboa areagotzeko jarraibideak.<br>- Etxebizitza antolatzeari eta kudeatzeari buruzko komunikazio-bitartekotzarako jarraibideak.<br>- Oinarrizko zereginak egiteko komunikazio-bitartekotzarako jarraibideak.<br>- Aisia-jarduеretako eta astialdiko komunikazio-bitartekotzarako estrategiak eta teknikak.<br>- Familia- eta gizarte-unitateko jardunbide egokiak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Bitartekariaren zeregina balioestea, komunikazio-eredu den aldetik.<br>- Pertsona gor-itsua aske jardutea eta bere autonomia pertsonala errespetatzea eta sustatzea. |

| 5. KOMUNIKAZIO ESKU-HARTZEAREN SEGIMENDUA EGITEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Ebaluazio-adierazleak diseinatzea.<br>- Erregistro-tresnak diseinatzea eta betetzea.<br>- Espazioak eta denborak hautatzea.<br>- Txostenak eta memoriak egitea.<br>- Diziplinarteko taldeari informazioa helarazteko tresnak sortzea eta erabiltzea.<br>- Ebaluazio-tresnak sortzea eta erabiltzea:<br>• Proposatutako helburuak betetzea.<br>• Premia berriak hautematea.<br>- Bitartekotzan inplikatutako pertsonen gogobetetzea.<br>- Diziplinarteko taldeari informazioa transmititzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Ebaluazio-adierazleak.<br>- Txostenak eta memoriak.<br>- Ebaluazio-tresnak: elkarrizketa, behaketa, galdetegiak.<br>- Bitartekotza-prozesuaren segimendurako komunikazio-kanalak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Ebaluazioaren objektibotasunaren garrantzia balioestea.<br>- Diziplinarteko taldeko profesionalen arteko informazio-trukearen garrantzia balioestea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

### 1) Sekuentziazioa

Hasteko, pertsona gor-itsuekin esku hartzearen ezaugarriak zehaztu daitezke; zehazki, pertsona gor-itsuen prozesu kognitiboak, esku-hartze mailak eta ikaskuntza-prozesuak. Ondoren, blokearen gainerako edukiei helduko zaie. Horrela, kolektibo horrekin esku hartzearen berezitasunen gaineko oinarrizko ezagutzak bereganatuko dituzte, esku-hartzeak proposatzen dituztenerako beharko dituzte-eta.

Bigarrenik, esku-hartze esparruak landuko dira, hala nola diziplinarteko taldea, Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren zeregina eta profesionalen arteko koordinazioa. Horrela, ikasleek lanbidearen eta funtzioen gaineko ikuspegi orokorra izango dute, eta errazago ulertuko dute pertsona gor-itsuekin egin beharreko hezkuntza-lanen izaera eta taldean lan egitearen garrantzia.

Familia- eta gizarte-inguruneko komunikazio-bitartekotzako programei eta komunikazio-bitartekotzaren segimenduari eustea komeni da.

Gainerako bitartekotza-programei ekin aurretik landu behar dira pertsona gor-itsuekin esku hartzeko jardueren diseinua, ikasmaterialak eta ikas-baliabideak sortzea eta egokitzea eta pertsona gor-itsuekin esku hartzeko baliabideak identifikatzea.

Azkenik, 3. eduki-blokea landuko da, pertsona gor-itsuak dauden zentroetan komunikazio-bitartekotzako programak ezartzeari buruzkoa: arreta goiztiarrean, hezkuntza arruntean eta berezian eta esparru soziolaboralean eta bizitoki-esparruan esku hartzea.

Gainera, sekuentziazio horri esker, eta bitartekotza-inguruneari buruzko moduluarekin batera, ikasleak bitartekotza-programa orotako ezagutza eta trebetasun beharrezkoak eta ezinbestekoak eskuratuko ditu.

### 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, garrantzi berdina dute kontzeptuzko edukiek zein prozedurazkoek. Irakasle-jarduna, funtsean, ikasleek beharrezkoak dituzten ezagutzak eta horiek praktikan jartzeko trebetasunak eskuratzera bideratutako jarduerak egoki hautatzean datza, haiek programak eta jarduerak diseinatu eta esparru jakin batean aplikatu ditzaten, eta erabiltzaile jakin batekin.
Gor-itsuekin esku hartzearen elementu nagusiak komunikazioa eta hizkuntza direnez, egoki baino egokiagoa da hainbat komunikazio-sistema eta -baliabide erabiltzea ikasgelan. Esaterako, irakasleak komunikazio-hizkuntza gisa erabili dezake, edota ikasleek, aurkezpenetan eta bestelako jardueretan.
Ikaslearen parte-hartze aktiboa ezinbestekoa da moduluaren izaera praktikoa dela-eta, helburuak lortuko direla bermatzeko.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Beharrezkoa den esku-hartze maila hautatzea erabiltzailearen bereizgarrien arabera.
- ✓ Askotariko pertsona gor-itsuekin esku hartzeko jarduerak diseinatzea.

- ✓ Lehendik dauden ikasmaterialak egokitzea, erabiltzaileen bereizgarrietara egokituta, eta jarduteko plana ezartzea.
- ✓ Lehendik dauden ikasmaterialak prestatzea, erabiltzaileen bereizgarrietara egokituta, eta jarduteko plana ezartzea.
- ✓ Laguntza tiflotekniko eta komunikazio-laguntza egokiak deskribatzea eta praktikan jartzea portaera-saiakeren bidez hezkuntza-, lan-, familia-, gizarte- edota bizitoki-arloetan.
- ✓ Esku-hartze sozioedukatiboa ebaluatzeko adierazleak eta tresnak diseinatzea.
- ✓ Emaitzak erregistratzeko tresnak diseinatzea eta betetzea.
- ✓ Esku-hartze sozioedukatiboaren gaineko txostenak eta memoria egitea.

4. lanbide-modulua 4

# GOR-ITSUEKIKO KOMINIKAZIO-BITARTEKOTZAREN TESTUINGURUA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Gor-itsuekiko kominikazio-bitartekotzaren testuingurua** |
| Kodea: | 1114 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 160 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Kreditu kop.: | 10 |
| Irakasleen espezialitatea: | Gizartearentzako zerbitzuak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)<br>Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1440_3: Pertsona gor-itsuen isolamendu-egoerak arintzera bideratutako esku-hartzeak egitea. |
| Helburu orokorrak: | 2 / 3 / 6 / 9 / 10 / 12 / 22 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Komunikazio-bitartekariaren zereginaren ezaugarriak zehazten ditu, funtzioak eta konpetentzia profesionalak identifikatuta, baita jarduteko esparrua ere.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsona gor-itsuekin esku hartzearen gaineko kontzeptuak zehaztu ditu, bitartekariari dagokionez.
b) Komunikazio-bitartekotza mota identifikatu du, pertsona gor-itsuaren beharren arabera.
c) Populazio horri bideratutako komunikazio-bitartekotzaren funtzioak eta helburuak aztertu ditu.
d) Bitartekotza-prozesuaren alderdi esanguratsuenak identifikatu ditu, erabiltzaileen ezaugarrietara egokituta.
e) Komunikazio-bitartekaria, zeinu-mintzairaren interpretea eta pertsona gor-itsuen gida-interpretea kontzeptuetan eta esku-hartzean zertan diren desberdinak aztertu du.
f) Kolektibo horri bideratutako esku-hartzean bitartekariak duen garrantzia azaldu du.

2. Pertsona gor-itsuen kolektiboaren ezaugarriak zehaztu ditu, horien eta zentzumen-egoeren zein populazio-taldearen arteko lotura adierazita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gor-itsutasunaren adierak identifikatu ditu.
b) Gor-itsutasunaren kausa nagusiak deskribatu ditu.
c) Zentzumen-, ikusmen- eta entzumen-egoeren ondorioak identifikatu ditu.
d) Populazio-taldeak sailkatu ditu, gor-itsutasuna agertu den unearen eta ordenaren arabera.
e) Populazio-taldeak sailkatu ditu, pertsona gor-itsuen funtzionamendu-mailaren arabera.
f) Esku-hartzearen ezaugarriak eta gor-itsutasuna agertu duen unea lotu ditu.
g) Gor-itsutasunari eragiten dioten aldagai nagusiak identifikatzearen garrantzia azpimarratu du.

3. Komunikazio-egoerak ezartzen ditu, komunikaziorako laguntza-sistema edo -baliabidea hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsona gor-itsuak erabilitako komunikazio-sistemak eta komunikaziorako laguntza-baliabideak deskribatu ditu.
b) Sistema bakoitzaren berariazko jardunbide bereizgarriak deskribatu ditu.
c) Pertsona gor-itsuari egoki zaion sistema hautatu du, zentzumen-ezaugarriei eta gainerako berezitasunei erreparatuta.
d) Komunikazio-trukea gauzatzeko sistemaren hautaketan pertsona gor-itsuari kontsultatzearen beharra aztertu du.
e) Komunikazio-egoerak ezartzera bideratutako ekintzen sekuentzia zehaztu du.
f) Komunikazio-trukea egingo den ingurunea aztertu du, horri doitzea errazteko.

4. Lekualdatzeak egiten ditu pertsona gor-itsuarekin, gidari ikusmendunaren teknikak eta komunikazio-jarraibideak aplikatuta, erabiltzailearen segurtasuna bermatzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsona gor-itsuekin erabilitako gidari ikusmendunaren teknikak deskribatu ditu, segurtasunez mugitu daitezen konplexutasun-maila desberdineko estalpeko nahiz kanpoaldeko guneetan.
b) Gidari ikusmendunaren teknikaren egokitzapenak aztertu ditu, lekualdatzeei loturiko komunikazio-trukeetarako.
c) Pertsona gor-itsuekin komunikatzeko jarraibideak deskribatu ditu, lekualdatzeetan igorri eta jasoko diren mezuei dagokienez.
d) Komunikaziorako laguntza-sistemei eta -baliabideei egingo zaizkien egokitzapenak identifikatu ditu, lekualdatzeetan erabiltzeko.
e) Lekualdatzeei loturiko arrisku-egoerak aztertu ditu, segurtasun-neurri egokiak aplikatuz.
f) Komunikazioari baino garrantzi handiagoa eman dio segurtasunari pertsona gor-itsuekin egindako lekualdatzeetan.

5. Laguntza tifloteknikoak eta komunikazio- eta informazio-teknologia espezifikoak erabiltzen ditu, horien ezaugarriak eta erabiltzailearenak lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ordenagailua eta Internet ikusmenaren bidez erabili ahal izateko gailu tifloteknikoak eta softwarea erabili ditu.
b) Ordenagailua eta Internet entzumenaren bidez erabili ahal izateko gailu tifloteknikoak eta softwarea erabili ditu.
c) Ordenagailua eta Internet ukimenaren bidez erabili ahal izateko gailu tifloteknikoak eta softwarea erabili ditu.
d) Aplikazio informatikoen eta komunikaziorako baliabideen erabilerraztasuna, erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna aztertu ditu, pertsona gor-itsuen ikuspegitik.
e) Pertsona gor-itsuei inprimatutako informazioa eskuratzeko aukera ematen dieten gailu tifloteknikoak eta softwareak erabili ditu.
f) Pertsona gor-itsuei euskarri digitaleko informazioa eskuratzeko aukera ematen dieten gailu tiflotekniko espezifikoak erabili ditu.
g) Pertsona gor-itsuei telefonia mugikorrerako sarbidea eskaintzen dieten gailu tifloteknikoak erabili ditu, entzumenaren, ikusmenaren eta ukimenaren bidez.
h) Aurrez aurreko komunikaziorako gailu tifloteknikoak eta laguntza-baliabideak erabili ditu.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. KOMUNIKAZIO-BITARTEKARIAREN ZEREGINAREN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Komunikazio-bitartekotza mota identifikatzea, pertsona gor-itsuaren ezaugarrien arabera.<br>- Bitartekotza-prozesua aztertzea.<br>- Bitartekotza-prozesua erabiltzaileen ezaugarrietara egokitzea.<br>- Komunikazio-bitartekaria, Espainiako zeinu-mintzairaren interpretea eta gida-interpretea kontzeptuetan eta esku-hartzean zertan diren desberdinak aztertzea.<br>- Komunikazio-bitartekariak pertsona gor-itsuekin esku hartzeko izan beharreko gaitasunak eta jarrerak identifikatzea, bitartekotzan erabilitako informazioari dagokionez. |
| kontzeptuzkoak | - Pertsona gor-itsuen komunikazio-bitartekaria. Definizioa.<br>- Komunikazio-bitartekotzaren helburuak.<br>- Komunikazio-bitartekotza motak.<br>- Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren konpetentzia profesionalak.<br>- Pertsona gor-itsuekin esku hartzen duten figura profesionalen arteko desberdintasunak. |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-bitartekotza aztertzea pertsona gor-itsuekin esku hartzean.<br>- Jarraitu behar diren arauak, portaerak eta jarrerak identifikatzea.<br>- Erabiltzailearen eta bere senideen askatasuna, autonomia eta intimitatea errespetatzea.<br>- Populazio horrekin esku hartzen duten gainerako profesionalen funtzioak aintzat hartzea eta errespetatzea.<br>- Bitartekotzan lortutako erabiltzaileei buruzko informazioaren gaineko konfidentzialtasuna bermatzea. |

| 2. PERTSONA GOR-ITSUEN KOLEKTIBOAREN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Gor-itsutasunaren kausa nagusiak deskribatzea. |

| | |
|---|---|
| | - Zentzumen-, ikusmen- eta entzumen-egoeren ondorioak identifikatzea.<br>- Populazio-taldeak sailkatzea, gor-itsutasuna agertu den unearen eta ordenaren arabera.<br>- Pertsona gor-itsuen funtzionamendu-maila aztertzea: maila baxua, maila ertaina eta maila altua.<br>- Populazio-taldeak sailkatzea, pertsona gor-itsuen funtzionamendu-mailaren arabera. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Gor-itsutasuna. Zehaztapena eta oinarrizko kontzeptuak.<br>- Gor-itsutasunaren etiologia ohikoenak.<br>- Gor-itsutasunaren ikusmen- eta entzumen-patologia eragile nagusiak.<br>- Sortzetiko gor-itsutasuna. Kausak. Ezaugarri orokorrak.<br>- Hartutako gor-itsutasuna.<br>- Esku-hartzeak zertan diren desberdinak, gor-itsutasuna sortzetikoa edo hartutakoa den gorabehera:<br>• Sortzetiko entzumen-urritasuna eta hartutako ikusmen-galera duen pertsona gor-itsua.<br>• Sortzetiko ikusmen-urritasuna eta hartutako entzumen-galera duen pertsona gor-itsua.<br>• Ikusmen- eta entzumen-urritasunik gabe jaio, baina bizitzako uneren batean ikusmena eta entzumena galdu dutenak.<br>- Gor-itsuen populazioa Euskadin eta Espainian.<br>- Elkarte-mugimendua Euskadin eta Espainian.<br>- Gor-itsuen populazioaren berariazko arreta-erakundeak eta -zerbitzuak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Kolektiboaren dibertsitatearen eta gaitasunen aurreko jarrera irekia eta malgua.<br>- Gor-itsutasunari eragiten dioten aldagai nagusiak identifikatzearen garrantzia azpimarratzea. |

| **3. KOMUNIKAZIO-EGOERAK EZARTZEA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Pertsona gor-itsuak erabilitako komunikazio-sistemak eta komunikaziorako laguntza-baliabideak deskribatzea.<br>- Hautatutako komunikazio-sistema edo -baliabidea erabiltzea, zentzumen-ezaugarriei eta bestelako berezitasunei erreparatuta, erabiltzailearen eta ingurunearen arteko komunikazio-trukea eta mezu-fluxua bermatzeko.<br>- Brailleraz idazteko eta irakurtzeko teknikak aplikatzea.<br>- Komunikazio-trukea gauzatzeko sistemaren hautaketan pertsona gor-itsuari kontsultatzearen beharra aztertzea.<br>- Idatzizko testuak pertsona gor-itsuen ulertzeko modura egokitzea.<br>- Komunikazio-egoerak ezartzera bideratutako ekintzen sekuentzia zehaztea.<br>- Ingurunea aztertzea komunikazio-trukeetan.<br>- Komunikazio-trukea egingo den ingurunea aztertzea, horri doitzea errazteko. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazio-sistemen heterogeneotasuna.<br>- Komunikaziorako sistema edo baliabidea hautatzeko irizpideak:<br>• Komunikazioa pertsona gor-itsuarekin.<br>• Komunikazioa pertsona gor-itsuarekin, zeinu-mintzairaren bidez.<br>• Komunikazioa pertsona gor-itsuarekin, zeinu-mintzairaren bidez, |

| | |
|---|---|
| | urrutitik, baina ikusmen-eremuaren barruan.<br>• Komunikazioa pertsona gor-itsuarekin, ahozko hizketa egokituaren bidez.<br>• Komunikazioa pertsona gor-itsuarekin, esku-ahurreko alfabeto daktilologikoaren bidez.<br>• Brailleraz idaztea eta irakurtzea.<br>- Ulermenezko irakurketa-zailtasunak dituzten erabiltzaileetara egokitutako idatzizko testuak osatzeko jarraibideak.<br>- Testuinguruan jartzea pertsona gor-itsuekin komunikatzean. |
| | |
| jarrerazkoak | - Kolektiboaren dibertsitatearen eta komunikaziorako sistema edo laguntza-baliabideen aurreko jarrera ireki eta malgua.<br>- Erabiltzaile gor-itsuaren autonomia eta askatasuna errespetatzea komunikazio-trukean.<br>- Mezuaren izaerari eta bitartekotzaren inguruneari zor zaizkion komunikazio-zailtasunak modu sortzailean eta malguan ebaztea. |

| 4. PERTSONA GOR-ITSUEKIN LEKUALDATZEAK EGITEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Pertsona gor-itsuekin erabilitako gidari ikusmendunaren teknikak deskribatzea, segurtasunez mugitu daitezen konplexutasun-maila desberdineko estalpeko nahiz kanpoaldeko guneetan.<br>- Pertsona gor-itsuak gidatzea estalpeko nahiz kanpoaldeko lekualdatzeetan.<br>- Pertsona gor-itsuak gidatzea garraiobideetan.<br>- Pertsona gor-itsuak gidatzea ingurunearen eta objektuen esplorazioan eta erabileran.<br>- Gidari ikusmendunaren teknikaren egokitzapenak aztertzea, lekualdatzeei loturiko komunikazio-trukeetarako.<br>- Komunikazioa pertsona gor-itsuekin lekualdatzean.<br>- Lekualdatzeei loturiko arrisku-egoerak aztertzea, segurtasun-neurri egokiak aplikatuz.<br>- Komunikazioari baino garrantzi handiagoa ematea segurtasunari pertsona gor-itsuekin egindako lekualdatzeetan. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Gidari ikusmendunaren teknikak lekualdatzeetarako.<br>- Gidari ikusmendunaren teknikak garraiobideak erabiltzeko.<br>- Gidari ikusmendunaren teknikak ingurunea eta objektuak esploratzeko eta erabiltzeko.<br>- Lekualdatzeak era independentean egiteko teknikak.<br>- Gidari ikusmendunaren teknikak lekualdatu bitarteko komunikaziorako: komunikazio-jarraibideak.<br>- Segurtasuna lekualdatzeetan: arrisku-egoerak bereiztea eta ukimenaren bidez harremanetan jartzea. |
| | |
| jarrerazkoak | - Erabiltzailearen askatasuna eta autonomia errespetatzea lekualdatzeetan.<br>- Espazio pertsonalaren murrizketaren eta harreman fisiko zuzen, hurbil eta luzerakoaren aurreko jarrera ireki eta malgua. |

| 5. LAGUNTZA TIFLOTEKNIKOAK ETA KOMUNIKAZIO- ZEIN INFORMAZIO-TEKNOLOGIA ESPEZIFIKOAK ERABILTZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Ikusmenerako laguntzak eta horien ezaugarriak aztertzea, zentzumen-egoeren arabera.<br>- Entzumenerako laguntzak eta horien ezaugarriak aztertzea, zentzumen-egoeren arabera.<br>- Pantaila-handitzaileak erabiltzea.<br>- Pantaila-irakurgailuak erabiltzea:<br>• Ezaugarri orokorrak.<br>• Hizketaren sintesi bidezko sarbidea.<br>• Braille bidezko sarbidea.<br>- Informatika-aplikazioak erabiltzea.<br>- Pertsona gor-itsuei inprimatutako informazioa eskuratzeko aukera ematen dieten gailu tifloteknikoak eta softwareak erabiltzea.<br>- Gailu tiflotekniko autonomoak erabiltzea informazioaren tratamenduan.<br>- Gailu eta software tifloteknikoa erabiltzea telefonia mugikorrean.<br>- Komunikatzaileak erabiltzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Ikusmenerako laguntzak: motak eta ezaugarri orokorrak.<br>- Entzumenerako laguntzak: motak eta ezaugarri orokorrak.<br>- Informazio inprimaturako sarbidea.<br>- Informazioaren tratamendurako gailu tiflotekniko autonomoak:<br>• Ahotsezko eta/edo braillerazko idazkari elektronikoak: ezaugarriak eta funtzionaltasuna. Modeloak.<br>• Liburuak soinu-formatuan erreproduzitzeko gailuak (Daisy).<br>• Inprimagailuak.<br>• Software tiflotekniko espezifikoa.<br>- Telefonia mugikorra erabiltzeko gailu eta software tifloteknikoa:<br>• Pantaila-irakurgailuak.<br>• Braille bidezko sarbidea. |
| | |
| jarrerazkoak | - Laguntza tifloteknikoek eta teknologikoek pertsona gor-itsuen egunerokotasunean duten garrantzia nabarmentzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

### 1) Sekuentziazioa

Modulua hasteko, pertsona gor-itsuen kolektiboaren ezaugarriak zehaztuko dira. Horrela, erabiltzaileak eta erabiltzen dituzten komunikazio-sistemak eta -baliabideak askotarikoak direla ulertuko dute ikasleek. Halaber, bitartekotza motak eta horien ezaugarriak ulertzeko informazioa izango dute, pertsona gor-itsuekin gizartean eta hezkuntzan esku hartzeari buruzko moduluan ikasiko dutena.

Hala ere, pertsona gor-itsuekin lekualdatzeak egiteko gidari ikusmendunaren teknikak eta horiekin komunikatzeko sistemak eta baliabideak praktikatzeari aski denbora eskaini behar zaionez ikasleek bi alderdi horietan konpetentzia-maila nahikoa eskuratu eta Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren eginkizunak zuzen bete ahal izateko, komeni da bi alderdi horien ikaskuntzari ahalik eta lasterren ekitea.

Horrenbestez, moduluaren asteko orduak hasieratik bertatik banatzea gomendatzen da, pertsona gor-itsuak lekualdatzeetan gidatzeko eta horiekin komunikatzeko sistemak eta baliabideak egoki erabiltzeko beharrezkoak diren trebetasunak aldi berean ikasi eta praktikan jarri ditzaten, gainerako edukiak irakasten diren bitartean.

Lekualdatzeei dagokienez, komeni da hasieran teknika errazenak lantzea (oinarrizko teknika, pasabide estua, aldez aldatzea, ateak irekitzea eta ixtea, eserlekua aurkitzea, etab., hala estalpean nola kanpoaldean). Ondoren, zailagoak landuko dira (ateak irekitzea eta ixtea, mota guztietako eskailerak igotzea eta jaistea, etab.), eta, azkenik, garraiobideen erabilera. Kolektibo horrekin komunikatzeko tekniken eta baliabideen erabileran sakondu ahala, horiek praktikan jarriko dira lekualdatzeak egingo diren inguruneetan.

Komunikazio-egoeren ezarpenari ekin aurretik azaldu behar da komunikazio-sistemen eta -baliabideen heterogeneotasuna, hala nola horietatik egokiak erabiltzailearen ezaugarrien eta gaitasunen arabera hautatzearen garrantzia. Horiek mezuak igortzeko eta hartzeko erabiltzeari dagokionez, zeinu-mintzaira lagunduarekin eta alfabeto daktilologikoaren erabilerarekin hastea komeni da, bi alderdi horietan trebetasunez eta arin jarduteko praktikaldi nahikoa behar delako. Horietan sakondu ahala, praktikari denbora gutxiago eskaini ahal zaio, brailleraz idatzi eta irakurtzeari gehiago eskainita. Landuko diren azken sistemak, ikasteko denbora gutxiago behar dutenez, honakoak izan daitezke: ikus-eremuaren barneko zeinu-mintzaira, ukimenaren bidez eskumuturrera eta esku batera egokitutako zeinu-mintzaira, ahozko hizkuntza egokitua eta ahozko hizkuntza idatziaren egokitzapena.

Astean zenbait ordu bideratuko dira lekualdatzeak lantzera eta komunikazio-egoerak ezartzera, eta, aldi berean, asteko gainerako orduak gainerako edukiak lantzera bideratzea komeni da. Hasieran esandakoaren arabera, kolektiboaren ezaugarriak zehaztuko dira hasieran, bitartekaria landuko da ondoren, eta azkenik laguntza tifloteknikoak eta komunikazio- eta informazio-teknologia espezifikoen erabilera.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau batik bat praktikoa da. Irakaslearen eginkizun nagusia da jarduera praktikoak behar bezala hautatzea, errazenetik zailenera sekuentziatuta, eta jarduerak garatzen eta arian-arian trebeziak eskuratzen ikaslea gidatuko duten prozesu-orriak egitea.

Zeinu-mintzaira, braillea eta pertsona gor-itsuen gainerako komunikazio-sistema eta -baliabideak ahozko hizkuntzarekin eta hizkuntza idatziarekin txandakatu behar dira ikasgelan, komunikazio-hizkuntza gisa.

Ezinbestekoa da ikasleen parte-hartze aktiboa, eta irakaslea ezin da ahaztu parte-hartzea dinamizatu eta sustatzeaz. Kontzeptuak eta prozedurak bitartekariaren jardun profesional errealera eta erabiltzaileen ikuspegira egokitu behar dira, moduluan ezarritako helburuak behar bezala lortzea bermatzeko. Honako teknikak eta sekuentziazioa erabili daiteke: heziketa, indargarria, moldatzea, portaera-saiakera, *role-playing*, moldatzea, etxerako lanak eta orokortzea.

Kasu honetan, irakaslearen zeregin eredugarria oso garrantzitsua da, baina askoz ere garrantzitsuagoa da ikasleek, profesionalaren rolaz gain, sistematikoki eta sendotasunez bete dezaten erabiltzailearen rola. Horrela, komunikazio-sistemen eta -baliabideen nahiz gidari ikusmendunaren tekniken gaineko ezagutza teorikoa eta praktikoa eskuratuko dute. Horretarako, antifazak edo betaurreko eraldatuak erabiliko dira, ikusmen-gaixotasunak simulatzeko. Halaber, entzungailuak, tapoiak, musika-gailuak, etab.,

erabiliko dira, etorkizuneko bitartekotza-profesionalak zentzumen-urritasuna nozitzen duten erabiltzaileen larruan jartzeko. Horrela, komunikazio-trukeetan edo lekualdatzeetan egiazko erabiltzaileen antzeko portaera eta erreakzioak izango dituzte eta, horrenbestez, profesionalek zailtasun, arazo eta egoera errealagoei egin ahal izango diete aurre, eta ikaskuntza askoz ere adierazgarriagoa izango da. Era berean, erabiltzaileek kolektiboari buruz duten iritzia ulertu ahal izango da.

Gainera, erabiltzaile errealen lankidetza eta profesionalen zein senideen bisitaldiak ere beharko dira, konpetentzia profesionalak hobeto eskuratzeko ez ezik, gizartearen gehiengoak ezagutzen ez duen eta sarbide zailekoa den errealitate eta kolektibo horiek ezagutzeko aukera emango baitute.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Komunikazio-bitartekotza mota hautatzea, ezaugarrien arabera.
- ✓ Ezaugarri ezezaguneko erabiltzaile batekin harremanetan jartzea eta horri egokitutako komunikaziorako sistema edo baliabidea hautatzea, horren portaera paralinguistikoa eta gure aurrean duen erreakzioa behatzearen bitartez.
- ✓ Lekualdatzeak egitea bikoteka, bikoteko batek pertsona gor-itsuaren rola hartuta ingurune simulatu eta errealetan, eta zailtasun-maila handituz.
- ✓ Lekualdatzeak egitea bikoteka, bikoteko batek pertsona gor-itsuaren rola hartuta ingurune simulatu eta errealetan, lekualdatu bitarteko komunikazioa gauzatuz.
- ✓ Mezuak adieraztea, komunikazio-sistemak edo -baliabideak erabilita.
- ✓ Komunikazio-sistemen edo -baliabideen bidez adierazitako mezuak ulertzea.
- ✓ Solaskide entzumendunaren eta pertsona gor-itsuaren rola jokatzen duenaren arteko mezu-transmisioa, askotariko ingurune erreal eta simulatuetan.
- ✓ Pertsona gor-itsuaren rola jokatzen duten ikaskideen arteko mezuen transmisioa, guztiek komunikazio-sistema desberdinak erabilita.
- ✓ Solaskide entzumendunaren eta pertsona gor-itsuaren rola jokatzen duenaren arteko mezu-transmisioa egin bitartean hautatzea informazioa, eta testuinguruan jartzea, erabiltzailearen abiada- eta/edo erregistro-premiara egokitzen ez zaizkion inguruneetan.
- ✓ Pertsona gor-itsuekin komunikatzea laguntza tifloteknikoen eta komunikaziorako laguntzaren bitartez.
- ✓ Braillerazko testuak ulertzea eta idaztea.

# 5. lanbide-modulua
# ZEINU-MINTZAIRA 5

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Zeinu-mintzaira** |
| Kodea: | 1115 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 198 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Kreditu kop.: | 10 |
| Irakasleen espezialitatea: | Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1437_3: Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzea bere eginkizunak gauzatzean. |
| Helburu orokorrak: | 4 / 5 / 6 / 8 / 19 / 22 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Diskurtso argi eta errazetan bildutako eguneroko informazioa ezagutzen du eta mezuaren eduki globala identifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Eguneroko esamolde erabilienetako batzuk identifikatu ditu.
b) Berehalako premiak asetzera bideratutako esaldi errazak identifikatu ditu.
c) Espainiako zeinu-mintzairan egindako mezuaren ideia nagusia ulertu du.
d) Zeinuzko mezu batean jasotako informazioa identifikatu du.
e) Espainiako zeinu-mintzairan egindako mezu baten ideia nagusiak atera ditu.
f) Esleitutako komunikazio-egoera baten argumentuaren haria identifikatu du.
g) Ikusitako sekuentzian erabilitako oinarrizko hiztegia identifikatu du.

2. Mezu errazak bidaltzen ditu Espainiako zeinu-mintzairaren bidez, eguneroko egoeren gaineko hiztegia eta esamoldeak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zehatz identifikatu du eguneroko hainbat alderditan erabilitako hiztegia.
b) Espainiako zeinu-mintzairaren bidez igorritako mezuaren informazio adierazgarriena atera du.
c) Agindu errazak eman ditu, mezura egokitutako hiztegia eta esamoldeak erabilita.

d) Egitura errazak identifikatu ditu, Espainiako zeinu-mintzairaren bidez informazioa eskatzeko edo galderak egiteko.
e) Erabiltzailearentzat bereziki garrantzitsuak diren esperientzia-esparruei loturiko esaldiak eta esamoldeak erabili ditu.

3. Espainiako zeinu-mintzairaren bidez, mezu errazak, argiak eta ondo egituratuak igortzen ditu, eta eskuratutako hizkuntza-egiturekin lotzen du mezuaren xedea.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Formula errazak, loturak eta elkarreragin-estrategiak erabilita ezarri da komunikazioa.
b) Oinarrizko hizkuntza-egiturak behar bezala erabili ditu.
c) Erraz antzera deskribatu ditu eguneroko egoerak.
d) Nork bere burua labur aurkeztu du, baita besteona ere, modu argian eta dagozkion protokoloak erabiliz.
e) Etxebizitzari, ondasunei eta ezagutzen dituen pertsonei buruzko oinarrizko informazioa igorri du.
f) Galdera laburrei erantzun die.
g) Oinarrizko informazioa arin samar trukatu du, eta, horretarako, egitura sinpleko perpausak erabili ditu.
h) Iritzi eta eskaera errazak egin ditu, ingurune ezagunetara egokitutako Espainiako zeinu-mintzaira aplikatuta.

4. Espainiako zeinu-mintzaira aplikatzen du, iritzi edo eskaera errazak adierazteko, horiek ingurune ezagunetara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Espainiako zeinu-mintzairari loturiko ohitura pertsonalen alderdi adierazgarrienak zehaztu ditu.
b) Espainiako zeinu-mintzairaren bidez eskatu du honako informazioa: datu pertsonalak, helbidea, lana, aisia-jarduerak, etab.
c) Espainiako zeinu-mintzairaren oinarrizko egiturak identifikatu ditu hainbat komunikazio-esparrutan.
d) Espainiako zeinu-mintzaira erabili du eguneroko egiteko erraz ezagunak deskribatzeko.
e) Modu errazean deskribatu ditu iraganaren, ingurunearen eta berehalako premien gaineko hainbat alderdi.
f) Espainiako zeinu-mintzairaren erabiltzaileen hiztegia eta komunikazio-estrategiak ezagutu ditu.

5. Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzen du bat-bateko solasetan, eguneroko gaiei buruz erraz jardunez, eta ekintzak iraganari edo etorkizunari dagozkion adierazteko denbora-markatzaileak erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mezuak igorri ditu Espainiako zeinu-mintzairaren bidez eguneroko gaien, interes pertsonalen eta egoera edo gai ezezagunagoen edo ez hain ohikoen gainean.
b) Askotariko komunikazio-egoeretan aski erraz moldatu da.
c) Iritziak, sentimenduak eta erreakzioak adierazi ditu Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.
d) Informazioa trukatu, egiaztatu eta berretsi du Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.
e) Gai abstraktu edo kultural bati buruz pentsatzen duena adierazi du Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.

f) Elkarrizketak egin ditu Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. ZEINU BIDEZKO DISKURTSO ARGI ETA ERRAZETAN JASOTAKO INFORMAZIO ARRUNTA ULERTZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Eguneroko esamolde erabilienetako batzuk identifikatzea.<br>- Berehalako premiak asetzera bideratutako esaldi errazak identifikatzea.<br>- Espainiako zeinu-mintzairan egindako mezuaren ideia nagusia ulertzea.<br>- Zeinuzko mezu batean jasotako informazioa identifikatzea.<br>- Zeinu-mintzairan egindako mezu baten ideia nagusiak ateratzea.<br>- Esleitutako komunikazio-egoera baten argumentuaren haria identifikatzea.<br>- Ikusitako sekuentzian erabilitako oinarrizko hiztegia identifikatzea.<br>- Espazioa erabiltzea adierazpen- eta gramatika-baliabide gisa.<br>- Agurrak eta aurkezpen formalak nahiz informalak: letreiatzea. Beste norbaiten aurkezpena egitea.<br>- Baimena eta barkamena eskatzeko modu errazak.<br>- Helbide baten gaineko argibideak eta argibide-eskaerak.<br>- Errepikatzea eskatzea.<br>- Zenbakiak identifikatzea zeinu-mintzairan.<br>- Orduak identifikatzea zeinu-mintzairan.<br>- Koordinazio eta arintasun motorra. |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazioa ezartzeko jarraibideak.<br>- Gorputz- eta aurpegi-adierazpeneko trebetasunak eta espazioa erabiltzea.<br>- Bereizmen eta oroimen bisualeko trebetasunak.<br>- Espazioa adierazpen-baliabide gisa. |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-egoera berrietara egokitzeko gaitasuna. |

| 2. MEZU ERRAZAK IGORTZEA ESPAINIAKO ZEINU-MINTZAIRAN | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Zehatz identifikatzea eguneroko hainbat alderditan erabilitako hiztegia.<br>- Espainiako zeinu-mintzairaren bidez igorritako mezuaren informazio adierazgarriena ateratzea.<br>- Agindu errazak ematea, mezura egokitutako hiztegia eta esamoldeak erabilita.<br>- Egitura errazak identifikatzea, Espainiako zeinu-mintzairaren bidez informazioa eskatzeko edo galderak egiteko.<br>- Erabiltzailearentzat bereziki garrantzitsuak diren esperientzia-esparruei loturiko esaldiak eta esamoldeak erabiltzea.<br>- Generoa, pluralak eta adjektibazioa egoki erabiltzea. |
| kontzeptuzkoak | - Identifikazio pertsonala areagotzeko teknikak.<br>- Pertsonak deskribatzea<br>- Lekuak deskribatzea: etxea, kalea, auzoa eta hiria.<br>- Objektuak deskribatzea eta identifikatzea.<br>- Elementu suprasegmentalak eta gorputz-adierazpena.<br>- Pertsonak, objektuak eta lekuak kokatzeko moduak. |

| | |
|---|---|
| | - Espazioari buruzko informazioa eskatzea eta eskaintzea.<br>- Espazio topografikoa eta sintaktikoa erabiltzea.<br>- Lekuei eta helburuei buruzko argibideak eskatzea eta eskaintzea.<br>- Baimena eskatzea. Baiestea eta ezestea.<br>- Proposamen, eskaintza edo gonbidapen bat onartzea eta errefusatzea.<br>- Agindu, eskaera edo eskakizun bat erantzutea, ezezko borobila emanez.<br>- Proposamen, eskaintza edo gonbidapen bat onartzea. |
| | |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-gaitasuna hobetzeko interesa.<br>- Lana gauzatzen parte hartzea eta laguntzea. |

| 3. MEZU ARGI, ZEHATZ ETA ONDO EGITURATUAK IGORTZEA ESPAINIAKO ZEINU-MINTZAIRAN | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Formula errazak, loturak eta elkarreragin-estrategiak erabilita ezartzea komunikazioa.<br>- Oinarrizko hizkuntza-egiturak zuzen erabiltzea.<br>- Aski erraz moldatzea eguneroko egoerak deskribatzen.<br>- Nork bere burua labur aurkeztea, baita besteona ere, modu argian eta dagozkion protokoloak erabiliz.<br>- Etxebizitzari, ondasunei eta ezagutzen dituen pertsonei buruzko oinarrizko informazioa igortzea.<br>- Galdera laburrei erantzutea.<br>- Oinarrizko informazioa arin samar trukatzea, eta, horretarako, egitura sinpleko perpausak erabilltzea.<br>- Informazio pertsonala trukatzea.<br>- Iritzi eta eskaera errazak adieraztea, ingurune ezagunetara egokitutako Espainiako zeinu-mintzaira aplikatuta.<br>- Adberbio-adierazpideak eta izenordain-formak zuzen erabiltzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Sentimenduak, iritziak, nahiak, gustuak eta lehentasunak adieraztea.<br>- Elementu suprasegmentalak (aurpegi-adierazpena).<br>- Iritziak adieraztea.<br>- Barkamena adieraztea.<br>- Baimena eskatzea eta ematea.<br>- Aginduak, aholkuak, gomendioak eta debekuak.<br>- Ohiko ekintzak adieraztea: Orduak eta datak.<br>- Diskurtsoa egituratzea, eraikitzea eta interpretatzea.<br>- Proposamenak, iradokizunak, oharrak eta aholkuak.<br>- Norbera eskaintzea zer edo zertarako.<br>- Aisia-jarduerak: gustuak, zaletasunak, kirolak, ohiturak, jarduerak eta eginkizunak.<br>- Familia.<br>- Harremanak.<br>- Informazioa eta laguntza eskatzea eta eskaintzea. |
| | |
| jarrerazkoak | - Komunikazio enpatikoarekiko interesa. |

| 4. ESPAINIAKO ZEINU-MINTZAIRA APLIKATZEA IRITZI ETA ESKAERA ERRAZAK ADIERAZTEKO | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Ohitura pertsonalen alderdi adierazgarrienak zehaztea Espainiako zenu-mintzairaren bidez.<br>- Espainiako zeinu-mintzairaren bidez eskatzea honako informazioa: datu pertsonalak, helbidea, lana eta aisia-jarduerak, etab.<br>- Espainiako zeinu-mintzairaren oinarrizko egiturak identifikatzea hainbat komunikazio-esparrutan.<br>- Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzea eguneroko egiteko erraz ezagunak deskribatzeko.<br>- Modu errazean deskribatzea iraganaren, ingurunearen eta berehalako premien gaineko hainbat alderdi.<br>- Ekintzak sekuentziatzea espazio sintaktikoan eta topografikoan.<br>- Espainiako zeinu-mintzairaren erabiltzaileen hiztegia eta komunikazio-estrategiak ezagutzea.<br>- Era sortzailean, zuzentasunez eta koherentziaz erabiltzea sailkatzaile motak eta moduzko zein aspektuzko perifrasiak. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Ingurunea eta etxebizitza.<br>- Denbora-tarte batean zehar gauzatzen den ekintza bat deskribatzea.<br>- Plan, proiektu eta esperientzia pertsonalak adierazteko moduak. Akordioak negoziatzea.<br>- Betekizunak adierazteko teknikak.<br>- Aholkuak eta iradokizunak.<br>- Proposamenak onartzea eta errefusatzea.<br>- Ohiko ekintzak eta ez-ohikoak.<br>- Aginduak eta argibideak adieraztea. |
| | |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-egoeretara egokitzeko interesa. |

| 5. ESPAINIAKO ZEINU-MINTZAIRAN SOLASTEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Mezuak igortzea Espainiako zeinu-mintzairaren bidez eguneroko gaien, interes pertsonalen eta egoera edo gai ezezagunagoen edo ez hain ohikoen gainean.<br>- Askotariko komunikazio-egoeretan aski erraz moldatzea.<br>- Iritziak, sentimenduak eta erreakzioak adieraztea Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.<br>- Informazioa trukatzea, egiaztatzea eta berrestea Espainiako zeinu-mintzairan.<br>- Gai abstraktu edo kultural bati buruz pentsatzen duena adieraztea Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.<br>- Elkarrizketak egitea Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.<br>- Sinonimoak, antonimoak eta jatorri eufemistikoko zeinuak zuzen erabiltzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | -Iraganeko eta etorkizuneko ekintzak kontatzeko teknikak:<br>• Iraganaren eta etorkizunaren denbora-markatzaileak.<br>• Espazioa erabiltzea, denbora-erregulatzaile gisa.<br>- Iraganeko ekintzak deskribatzea eta zenbait ekintzen arteko denbora-desberdintasunak adieraztea. |

| | |
|---|---|
| | - Denbora-tarte amaitu bati eta amaitu gabeko bati buruzko kontakizuna osatzeko moduak:<br>• Ekintzen hasierari eta amaierari buruzko adierazpideak.<br>• Promesak, aitzakiak, usteak, iragarpenak, etab.; zehaztasunik adierazi gabe hitz egitea.<br>- Geroari buruzko iraganeko aipamenak eta alderantziz. |
| | |
| jarrerazkoak | - Arazoak ebazteko sistema bat erabiltzeko interesa.<br>- Giza harremanekiko interesa. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komeni da daktilologia eta aurpegi-adierazpenaren oinarriak ezagutzea eta erabiltzea, Espainiako zeinu-mintzairaren ikaskuntzari ekiteko funtsezko tresna diren aldetik. Jarraian, aurkezpen moten eta agur informalen gaineko lehen edukiak landuko dira. Hiztegia aberastu ahala, eguneroko informazioa emateko zeinuzko diskurtso argi eta errazak lantzeari ekingo zaio.

Zeinu-mintzairan jarduten trebatu ahala, mezuak bat-batean ulertzeko mekanismo oinarrizkoak landuko dira; «galdera-erantzuna» motakoak edo elkarrizketa errazak.

Hiztegia eta gramatika-egiturak aberastuta, Espainiako zeinu-mintzairaren bidez osatutako mezu erraz, argi eta ondo egituratuen ulermen gidatua eta igorpena lantzeari ekingo zaio.

Azkenik, Espainiako zeinu-mintzairan bat-batean hitz egiteko edo zer edo zer kontatzeko estrategiak landuko dira.

### 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honen ikaskuntzan funtsezkoa da irakasleak eskolak osorik ematea Espainiako zeinu-mintzairan, ahotsa inoiz erabili gabe.

Lehenik, eduki-blokearen azalpen teorikoa eskainiko du irakasleak; ikasleak praktikan jarriko du.

Modulua erabat praktikoa dela kontuan hartuta, irakasleak egoki hautatu beharko du zein jarduera egin ikasgelan. Horiek gero eta zailagoak izan beharko dira, betiere ikasleen gaitasun indibidualak eta eguneroko aurrerapausoak kontuan hartuta.

Ikasketen hasieratik bertatik parte hartu beharko dute ikasleek, eta gero eta gehiago hartuko dute parte, ezagutzak eskuratu eta komunikatzeko norbere gorputza erabiltzeko lotsak galdu ahala.

Bigarren fasean, banaka nahiz taldeka egin beharko da lan, gaiari buruz eskuratutako ezagutzak egiaztatzeko. Horretarako, funtsezkoa da ikasleen parte-hartzea.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Daktilologia ezagutzea eta erabiltzea:

- Aurkezpenak (izen-deiturak).
- Elkarrizketak, daktilologia bakarrik erabiliz.
- Diktaketak (testuen translazioa daktilologiaren bidez).
- Jolas didaktikoak («urkatua», «letra-zopa», etab.).
- Terminoen zerrendak osatzea.
- Daktilologia ezagutzea ukimenaren bidez bakarrik.
- Daktilologia erabiltzea nagusia ez den eskuarekin.
- Daktilologia erabiltzea bi eskuekin aldi berean.
- Prentsako tituluak edo iragarki laburrak sortzea.

✓ Zeinu-mintzairan adierazitako zenbakiak ulertzea eta erabiltzea:

- Bingoa erabiltzea.
- Zenbaki-zerrendak osatzea.
- Datak adieraztea.

✓ Norbera aurkeztea:

- Elkarrizketak, binaka.
- Norbera eta taldekideak aurkeztea.

✓ Norbere familia aurkeztea:

- Familia eta ahaidetasun-harremanak deskribatzea familia-argazki baten bidez.
- Familia bat deskribatzea marrazki baten bidez.

✓ Orduak adieraztea:

- Pertsona batek egunean zehar egindakoaren kontakizun laburra.
- Orduak esatea, jostailuzko ordulari baten bitartez.
- Norberaren jardueren kontakizuna, ordutegiaren arabera.

✓ Asteko egunak, hilabeteak eta urteko sasoiak deskribatzea:

- Taldekako solasaldiak unitateari buruz.
- Norberaren eta bere senideen jaiotegunak esatea.
- Urteko sasoiak deskribatzea (hasiera- eta amaiera-data).

✓ Deskribapen fisikoa, arropa eta apaingarriak:

- Marrazkien deskribapena.
- Ikaskidearen deskribapena.
- Gustuko alderdi fisikoen, arroparen eta apaingarrien azalpena.

✓ Sailkatzaileak egitea:

- Ekintza errazak adieraztea, komikietako irudiak erabilita.
- Marrazkien deskribapena.

✓ Norabideak eta mugimenduak adieraztea, espazio itxietarako eta irekietarako:

- Hiri bateko planoen deskribapena.
- Norberaren etxebizitzaren marrazkia eta horren deskribapena.
- Ikastetxetik hurbil dagoen leku baten deskribapena prestatzea taldean, eta gainerako ikaskideei *in situ* aurkeztea.

✓ Narrazio laburrak:

- Prentsako tituluak osatzea.
- Prentsako tituluak eta sarrerak osatzea.
- Prentsako albiste laburrak osatzea, kronologikoki ordenatuta.
- Prentsako albiste laburrak osatzea, kronologikoki ordenatu gabe.
- Esperientzia pertsonal baten aurkezpena prestatzea etxean, zazpi minutukoa, eta ikaskideei aurkeztea gelan.
- Hirugarren bati buruzko aurkezpena prestatzea etxean, hamar minutukoa, eta ikaskideei aurkeztea gelan.

# 6. lanbide-modulua 6
# ZEINU-MINTZAIRA APLIKATZEKO EREMUAK

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Zeinu-mintzaira aplikatzeko eremuak** |
| Kodea: | 1116 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 140 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Kreditu kop.: | 10 |
| Irakasleen espezialitatea: | Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1437_3: Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzea bere eginkizunak gauzatzean. |
| Helburu orokorrak: | 4 / 5 / 6 / 8 / 20 / 22 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Zeinuzko diskurtsoetan jasotako informazioa identifikatzen du; bizitza sozialarekin, profesionalarekin edo akademikoarekin lotuta dago informazio hori.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mezuaren ideia nagusia identifikatu du.
- b) Bizitza sozialarekin, profesionalarekin edo akademikoarekin lotzen diren zeinuzko diskurtsoetatik atera du informazioa.
- c) Hiztunaren ikuspuntuak eta jarrerak identifikatu ditu.
- d) Ideia nagusiak identifikatu ditu gai zehatzen eta abstraktuen gaineko adierazpenetan eta mezuetan.
- e) Espainiako zeinu-mintzairan emandako argibideen xehetasun guztiak ulertu ditu.
- f) Mezua emateko erabilitako erregistroak identifikatu ditu.
- g) Mezu bat bere elementu guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.

2. Espainiako zeinu-mintzairan adierazitako mezuak ulertzen ditu, besteak beste, aisialdiko, laneko eta bidaietako egoeren berariazko hiztegia identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Espainiako zeinu-mintzairan zehaztutako jarraibideak bete ditu.
- b) Hainbat egoera arruntetako diskurtsoen ideia nagusiak atera ditu.

c) Gai arrunten gaineko solasaldietan parte hartu du, ulertzeko gai dela berretsiz eta gainerakoak parte hartzera gonbidatuz.
d) Zeinuz adierazitakoaren zati bat errepikatu du, esan zaiona ulertu duela berresteko.
e) Gai zehatzei eta abstraktuei buruzko hizkuntza-konplexutasun handiko diskurtso baten ideia nagusiak ulertu ditu.
f) Espainiako zeinu-mintzairan zehaztutako jarraibideak bete ditu.
g) Eztabaidetan parte hartu du, gertakari zehatz baten gaineko informazioa trukatuz edo arazo zehatz baten gaineko jarraibideak edo konponbideak emanez.

3. Mezu argi eta ondo egituratuak adierazten ditu Espainiako zeinu-mintzairan, egoeraren edukia aztertuta eta solaskidearen hizkuntza-erregistrora egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bat-batean komunikatzeko gai izan da, egoerak eskatzen zuen formaltasun-maila hartuta.
b) Jariotasunez, zehaztasunez eta eraginkortasunez mintzatu da gai orokor, akademiko, profesional edo aisialdiko sorta-zabalari buruz, eta ideien arteko erlazioa nabarmendu du, Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.
c) Askotariko gaien aurkezpen argi eta zehatzak egin ditu, terminologia zuzena erabilita.
d) Ikuspuntuak argi adierazi eta defendatu ditu, azalpenak eta argudio egokiak erabiliz.
e) Gai abstraktuei eta kulturalei buruz mintzatu da, tartean, filmak, liburuak, musika eta sentimenduak.
f) Usteak, iritziak, adostasunak eta desadostasunak adierazi ditu Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.
g) Askotariko hizkuntza-elementuak malgutasunez erabili ditu, nahi zuen hori adierazteko.
h) Solasaldietan gertatu ohi diren norabide-, estilo- eta enfasi-aldaketetara egokitu da.

4. Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzen du eguneroko esperientziak eta gertakariak azaltzeko eta deskribatzeko, gramatika-baliabideak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Deskribapen argi eta zehatzak egin ditu.
b) Kontakizunak egin ditu (istorioak, liburuak, filmak eta abar) Espainiako zeinu-mintzairan, adierazitako gramatika-baliabideak erabilita.
c) Gai orokorrei buruzko ikuspegien abantailak eta desabantailak nabarmendu ditu, egitura konplexuak erabilita.
d) Argudioak garatu ditu Espainiako zeinu-mintzairan, hizkuntza-errepertorio zabala erabilita.
e) Esperientziak, gertakariak, ametsak eta asmoak deskribatu ditu, esaldiak erraz kateatuta.
f) Hainbat ikuspuntu argi adierazi eta defendatu ditu Espainiako zeinu-mintzairan, azalpenak eta argudio egokiak erabiliz.
g) Ekintza jakin bat gauzatzeko modua deskribatu du Espainiako zeinu-mintzairan, jarraibide zehatzak emanda.
h) Adierazpidea doitu du, egoera ez-ohikoei edo zailagoei aurre egiteko Espainiako zeinu-mintzairan.

5. Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzen du askotariko gai orokorren gaineko diskurtsoak osatzeko eta ulertzeko, hiztegia hautatua eta esamolde konplexuak erabilita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bat-batean komunikatzeko gai izan da, baldintzen araberako zuzentasun gramatikalarekin eta formaltasun-mailarekin.
b) Argi egituratutako diskurtsoak jarraitu ditu, adierazitakoa zehatz ulertuta, baita interferentzia bisualak egonik ere.
c) Hainbat emozio-maila adierazi ditu, hiztunak gertakarian edo esperientzian zeri ematen dion garrantzia nabarmenduta.
d) Gai orokorren gaineko solasaldietan parte hartu du era aktiboan.
e) Espezialitateari loturiko gaien gaineko elkarrizketak jarraitu ditu, solaskideak nabarmendutako ideiak zehatz ulertuta.
f) Iritziak adierazi ditu, besteen proposamenak ebaluatuta, horiei erantzunez eta hipotesiak eginez zein defendatuz.
g) Zeregin jakin bati buruzko deskribapen argi eta zehatzak egin ditu, jarraibide zehatzak emanez.
h) Hainbat iturritatik jasotako informazioa eta argudioak laburbildu ditu (aurkezpena, elkarrizketa eta dokumentuak, besteak beste), xehetasunen gaineko galdera osagarriei erantzunez.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. ZEINUZKO DISKURTSOETAN JASOTAKO INFORMAZIOA IDENTIFIKATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Mezuaren ideia nagusia identifikatzea.<br>- Zeinuzko diskurtsoetan jasotako informazioa identifikatzea, bizitza sozialarekin, profesionalarekin edo akademikoarekin lotuta.<br>- Hiztunaren ikuspuntuak eta jarrerak identifikatzea.<br>- Ideia nagusiak identifikatzea gai zehatzen eta abstraktuen gaineko adierazpenetan eta mezuetan.<br>- Espainiako zeinu-mintzairan emandako argibideen xehetasun guztiak ulertzea.<br>- Mezua emateko erabilitako erregistroak identifikatzea.<br>- Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazioa kontrolatzeko teknikak, jakin-mina adieraztea eta piztea.<br>- Errepikapenak, galderak, zalantzak eta laburpenak.<br>- Espainiako zeinu-mintzairaren esamoldeak: harridura edo jakin-mina, iraganarekiko desberdintasuna adierazita.<br>- Jarraibideak, aholkuak, gomendioak eta konponbideak emateko moduak.<br>- Baimenak emateko, aginduak emateko, eskaintzak egiteko, desadostuna adierazteko eta adeitasuna adierazteko teknikak.<br>- Hezkuntzari, osasunari, erlijioari, zuzenbideari eta ekonomiari buruzko hiztegia. |
| | |
| jarrerazkoak | - Hainbat lan-esparrura egokitzeko gaitasuna.<br>- Lan-esparruetako langileekiko begirunea.<br>- Lan-jardueran esku hartzen duten zeinu-mintzairaren interpreteei laguntzea. |

| 2. ESPAINIAKO ZEINU-MINTZAIRAN IGORRITAKO MEZUAK ULERTZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Espainiako zeinu-mintzairan zehaztutako jarraibideen segimendua. |

| | |
|---|---|
| | - Hainbat egoera arruntetako diskurtsoen ideia nagusiak ateratzea.<br>- Gai arrunten gaineko solasaldietan parte hartzea, ulertzeko gai dela berretsiz eta gainerakoak parte hartzera gonbidatuz.<br>- Zeinuz adierazitakoaren zati bat errepikatzea, esan zaiona ulertu duela berresteko.<br>- Gai zehatzei eta abstraktuei buruzko hizkuntza-konplexutasun handiko diskurtso baten ideia nagusiak ulertzea.<br>- Espainiako zeinu-mintzairan zehaztutako jarraibideen segimendua.<br>- Eztabaidetan parte hartzea, gertakari zehatz baten gaineko informazioa trukatuz edo arazo zehatz baten gaineko jarraibideak edo konponbideak emanez.<br>- Pertsona gorren bereizgarrietara egokitzea komunikazio mota. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Gorputz-jarrerak. Deskribatzaileak edo sailkatzaileak.<br>- Iraganari buruzko solasaldiak, iraganeko eta etorkizuneko nahiak eta aukerak adieraztea.<br>- Denboraren joana adierazteko aurpegi-adierazpenak.<br>- Kezka, harridura, aukera, nahi baten aurreko erreakzioak, atsekabea, lasaitasuna, ezespen eta baiespen irmoa adieraztea.<br>- Probabilitate-markatzaileak eta lehenaldiko partizipioa.<br>- Pertsona gorren zeinu-estilo edo motak (adina, kultura-maila, jatorria, etab., kontuan hartuta). |
| | |
| jarrerazkoak | - Lankideekin elkarlanean jarduteko interesa. |

| 3. MEZU ARGI ETA ONDO EGITURATUAK ADIERAZTEA ESPAINIAKO ZEINU-MINTZAIRAN | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Bat-batean komunikatzea, egoerak eskatzen zuen formaltasun-maila hartuta.<br>- Jariotasunez, zehaztasunez eta eraginkortasunez mintzatzea gai orokor, akademiko, profesional edo aisialdiko sorta-zabalari buruz, eta ideien arteko erlazioa nabarmentzea, Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.<br>- Askotariko gaien aurkezpen argi eta zehatzak egitea, terminologia zuzena erabilita.<br>- Hainbat ikuspuntu argi adierazi eta defendatzea, azalpenak eta argudio egokiak erabiliz.<br>- Gai abstraktuei eta kulturalei buruz mintzatzea, tartean, filmak, liburuak, musika eta sentimenduak.<br>- Usteak, iritziak, adostasunak eta desadostasunak adieraztea Espainiako zeinu-mintzaira erabilita.<br>- Askotariko hizkuntza-elementuak malgutasunez erabiltzea, nahi zuen hori adierazteko.<br>- Zer edo zer dakien edo inor ezagutzen duen beste bati galdetzea.<br>- Iritzia ematea, zer edo zeren garrantzia azpimarratuta.<br>- Solasaldietan gertatu ohi diren norabide-, estilo- eta enfasi-aldaketetara egokitzea.<br>- Adierazpen idiomatikoak erabiltzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Deskribapena eta zehaztapena.<br>- Argudiatzea: diskurtsoaren antolatzaileak, deskribatzaileak eta sailkatzaileak.<br>- Objektuak, lekuak eta pertsonak identifikatzeko teknikak. Bigarren mailako informazioa ematea.<br>- Naturaren elementuak. |

| | |
|---|---|
| | - Bi une desberdin lotzea.<br>- Geroko unea finkatzea.<br>- Denbora- eta espazio-lokailuak, denbora-lerroen arabera.<br>- Adierazpen idiomatikoak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-egoeretara egokitzeko gaitasuna. |

## 4. ESPAINIAKO ZEINU-MINTZAIRA ERABILTZEA EGUNEROKO ESPERIENTZIAK ETA GERTAKARIAK AZALTZEKO ETA DESKRIBATZEKO

| | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Deskribapen argi eta zehatzak egitea.<br>- Kontakizunak egitea (istorioak, liburuak, filmak eta abar) Espainiako zeinu-mintzairan, adierazitako gramatika-baliabideak erabilita.<br>- Gai orokorrei buruzko ikuspegien abantailak eta desabantailak, egitura konplexuak erabilita.<br>- Argudioak garatzea Espainiako zeinu-mintzairan, hizkuntza-errepertorio zabala erabilita.<br>- Esperientziak, gertakariak, ametsak eta asmoak deskribatzea, esaldiak erraz kateatuta.<br>- Hainbat ikuspuntu argi adierazi eta defendatzea Espainiako zeinu-mintzairan, azalpenak eta argudio egokiak erabiliz.<br>- Ekintza jakin bat gauzatzeko modua deskribatzea Espainiako zeinu-mintzairan, jarraibide zehatzak emanda.<br>- Adierazpidea doitzea, egoera ez-ohikoei edo zailagoei aurre egiteko Espainiako zeinu-mintzairan.<br>- Argota erabiltzea Espainiako zeinu-mintzairan. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Azalpenak ematea eta barkamena eskatzea, etsimendua, atsekabea eta lasaitasuna ematea eta norbait kontsolatzea.<br>- Iritzi bat justifikatzea, lehenagoko bat ezetsiz.<br>- Ondorioa eta helburua adieraztea: argudio-konektoreak.<br>- Aholkuak eta gomendioak ematea.<br>- Gonbidapen edo eskaintza bat ezestea.<br>- Laguntza, zerbitzua edo ideia bat eskaintzea. Zorion-hitzak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Komunikazioaren ingurune fisikoan eta sozialean arreta jartzeko gaitasuna. |

## 5. ESPAINIAKO ZEINU-MINTZAIRA ERABILTZEA DISKURTSOAK EGITEKO ETA ULERTZEKO

| | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Bat-batean komunikatzeko gai izatea, baldintzen araberako zuzentasun gramatikalarekin eta formaltasun-mailarekin.<br>- Argi egituratutako diskurtsoak jarraitzea, adierazitakoa zehatz ulertuta, baita interferentzia bisualak egonik ere.<br>- Hainbat emozio-maila adieraztea, hiztunak gertakarian edo esperientzian zeri ematen dion garrantzia nabarmenduta.<br>- Gai orokorren gaineko solasaldietan parte hartzea era aktiboan.<br>- Espezialitateari loturiko gaien gaineko elkarrizketak jarraitzea, solaskideak nabarmendutako ideiak zehatz ulertuta.<br>- Iritziak adieraztea, besteen proposamenak ebaluatuta, horiei erantzunez eta hipotesiak eginez zein defendatuz.<br>- Zeregin jakin bati buruzko deskribapen argi eta zehatzak egitea, |

| | |
|---|---|
| | jarraibide zehatzak emanez.<br>- Hainbat iturritatik jasotako informazioa eta argudioak laburbiltzea (aurkezpena, elkarrizketa eta dokumentuak, besteak beste), xehetasunen gaineko galdera osagarriei erantzunez.<br>- Sinonimoak, polisemia eta homonimoak erabiltzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Iritziak eta balorazioak adieraztea. Sentimenduak eta lehentasunak.<br>- Ideia baten alde edo aurka agertzea.<br>- Kexak eta nahigabeak adieraztea. Aholkuak eta gomendioak.<br>- Kausazko mendeko perpausak (orainaldia, lehenaldia eta geroaldia), sintaxi-espazio topografikoarekin.<br>- Espazioak eta loturiko aditzek zehaztutako iraupenaren adierazpena.<br>- Espazioan edo gorputzean markatutako gorputz-deskribatzaileak. Erabilera semantikoa eta pragmatikoa.<br>- Juntagailu adbertsatiboak.<br>- Iritzi bat justifikatzea eta argudiatzea.<br>- Arazoentzako konponbideak proposatzea. Proposamenak onartzea eta errefusatzea.<br>- Aukerak adieraztea eta hipotesiak egitea.<br>- Etorkizuneko proiektuak garatzea.<br>- Espazio sintaktikoa erabiltzea: estilo zuzena eta zeharkakoa. |
| | |
| jarrerazkoak | - Inguruneko informazioan (ikaskideak) arreta jartzeko gaitasuna. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu honetan ikasi beharrekoen bitartez, «***Zeinu-mintzaira***» moduluan ezagututako edukia sakonago landuko da. Horretarako, komeni da zeinuzko diskurtso labur eta errazetan jasotako informazioa identifikatzeari eta emateari buruzko errepasoa egitea.

Aurreko kurtsoan «Espainiako zeinu-mintzaira» moduluan ikasitako hiztegia eta oinarrizko egiturak berrikusi ondoren, hiztegi aberatsagoa eta egitura konplexuagoak adieraztea eta ulertzea landuko da, tartean, bizitza sozialari, akademikoari edo profesionalari buruzkoak (osasuna, hezkuntza, ekonomia, erlijioa eta zuzenbidea).

Eduki teknikoagoen edo espezifikoen adierazpidea eta ulermena landuko dira modu mailakatuan. Aldi berean, esparru akademiko eta/edo profesionaletan aplikatutako zeinu-mintzairaren ezagutza eta erabilera aurreratuaren funtsezko lau alderdiak landuko dira: diskurtsoaren aberastasuna, adierazpen-baliabideak hedatzea, diskurtsoaren jarioa eta abiada eta zeinuen naturaltasuna.

Atal berezi batean, kurtsoaren erdialdean, landuko dira zeinu-mintzairaren gaineko ezagutza eta erabilera hobetzeko oso garrantzitsuak diren bi tresna: sailkatzaileak eta adierazpen idiomatikoak.

Azkenik, askotariko erabiltzaileek, nork bere zeinu-estiloa eta argota duela, Espainiako zeinu-mintzairan egindako denetariko mezuekiko ulermen-maila altua eskuratzera bideratuko da irakaskuntza. Halaber, prestakuntza-ekintza guztien xedea da Espainiako zeinu-mintzairaren bidez askotariko mezuak era argi eta ezin hobean egituratuta

adierazteko beharrezkoak diren trebetasunak eskuratzea, jariotasun- eta bikaintasun-maila nahikoan.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ahalik eta arrakasta handiena lortzeko oinarri metodologiko nagusia ikasturte osoan Espainiako zeinu-mintzaira bakarrik erabiltzea izango da, ahotsa inoiz erabili gabe.

Eduki-bloke bakoitzaren hasieran, irakasleak azalpen teorikoa egingo du, ikasleak praktikan jar dezan irakasleak berak gidatuta eta/edo lagunduta.

Modulua erabat praktikoa dela kontuan hartuta, irakasleak egoki hautatu beharko du zein jarduera egin ikasgelan. Horiek gero eta zailagoak izan beharko dira, betiere ikasleen gaitasun indibidualak eta eguneroko aurrerapausoak kontuan hartuta.

Aurreko kurtsoko «***Zeinu-mintzaira***» moduluari esker ikasleek gorputz-desinhibizio eta zeinu-mintzaira erabiltzeko trebetasun nahikoa dutela kontuan hartuta, ikasleek jarduera guztietan parte hartu behar dute derrigor, banakako zein taldekako lanak eginez eta kurtsoaren fase bakoitzean eskuratutako ezagutzak erakutsiz.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Zeinuzko diskurtsoetan jasotako informazioa identifikatzea:
  - Zeinuzko bideoak ikustea (telebista, Internet, etab.).
  - Zeinuzko diskurtsoetan jasotako informazio-bilketa.

✓ Espainiako zeinu-mintzairan igorritako mezuak ulertzea:
  - Zeinuzko bideoak ikustea (telebista, Internet, etab.) eta horien edukiari buruzko galdetegia erantzutea.
  - Zeinu-estilo edo argot desberdinak erabiltzen dituzten pertsonen bisitaldiak.

✓ Espainiako zeinu-mintzairan igorritako mezuak adieraztea:
  - Narrazioak taldean prestatzea eta ikasgelan dramatizatzea.
  - Bikoteka eta banaka prestatzea poesiak, zeinu-mintzairari egokituta, eta ikasgelan errezitatzea.
  - Banaka prestatzea eta ikasgelan aurkeztea genero desberdineko historiak (beldurrezkoak, umorezkoak, zientzia fikziozkoak, amodiozkoak, etab.).
  - Esaera zaharrak irakurtzea, prestatzea eta adieraztea.
  - Esamoldeak irakurtzea, prestatzea eta adieraztea.
  - Gorren erkidegoko pertsona ospetsuei elkarrizketa simulatuak egitea, bikotetan edo talde txikietan.

✓ Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzea eguneroko esperientziak eta gertakariak azaltzeko eta deskribatzeko:
  - Gizarteko esparruetan hainbat rol jokatuta esku hartzea simulatzea.
  - Telebistako albistegiak edo telesaioak simulatzea.
  - Filmei eta literatur-lanei buruzko eztabaidak.
  - Arazoak ebazteko talde-dinamikak.
  - Gaurkotasun-gaiei buruzko eztabaidak.

# 7. lanbide-modulua 7
# KOMUNIKAZIO-ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONEKIN ESKU HARTZEA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzea** |
| Kodea: | 1117 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 99 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Kreditu kop.: | 5 |
| Irakasleen espezialitatea: | Gizartearentzako zerbitzuak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)<br>Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Tituluaren profilari lotutako modulua. |
| Helburu orokorrak: | 1 / 2 / 5 / 6 / 7 / 10 / 11 / 12 / 13 / 22 / 23 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Esku-hartzearen ezaugarriak zehazten ditu, oinarrian dauden komunikazio-printzipioak zehaztuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Komunikazio-bitartekotzaren esku-hartze esparruak aztertu ditu.
b) Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren funtzioak deskribatu ditu.
c) «Komunikazioa eta mintzaira» kontzeptua zehaztu du.
d) «Hizketa» kontzeptua definitu du.
e) «Elkarreragina» kontzeptua definitu du.
f) Gizarte-elkarreraginerako zailtasunak aztertu ditu.
g) Mintzairari, ahotsari eta hizketari eragiten dieten komunikazioko nahasmendu nagusiak identifikatu ditu.
h) Elkarreragin motak eta komunikazioa ezartzeko baldintza onenak aztertu ditu.

2. Esku-hartzearen ingurunearen ezaugarriak zehazten ditu, baliabide erabilgarriak aztertuta, eragindako kolektiboak eta dagokien lege-esparrua kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Esku-hartzearen lege-esparrua identifikatu du.
b) Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonentzako zerbitzuak eskaintzen edo kudeatzen dituzten erakundeak identifikatu ditu.
c) Komunikazio-urritasuna duen populazioaren eta horren ondoriozko komunikaziorako laguntza-sistemen eta -baliabideen heterogeneotasuna deskribatu du.
d) Mintzairaren garapenean zailtasunak dituzten pertsonen ezaugarri nagusiak identifikatu ditu.
e) Inguruneak komunikazioa errazteko edo oztopatzeko izan dezakeen eragina aztertu du.
f) Komunikaziorako laguntza-sistema edo -baliabidea hautatu du, erabiltzailearen ezaugarrien arabera.
g) Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren printzipio etikoak eta deontologikoak deskribatu ditu.

3. Komunikazio-bitartekotzako programak garatzen ditu komunikatzeko eta gizarte-elkarreraginerako zailtasunak dituzten pertsonentzat, komunikazio-sistemak eta esku-hartze estrategiak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Autismoaren esparruko nahasmendua eta mintzairaren berariazko nahasmendua duten pertsonen ezaugarri kognitiboak, komunikazio-ezaugarriak eta mintzaira-ezaugarriak deskribatu ditu.
b) Oinarrizko komunikazio-funtzioak eskuratzeko esku-hartzearen plangintza egin du.
c) Esku-hartzea antolatu du, komunikazioa, hizkuntza eta gizarte-harremanak errazteko oinarrizko estrategiak jarraituz.
d) Aurre hartzearen eta egituratzearen garrantzia aztertu du, laguntza bisualak erabiliz.
e) Autismoaren esparruko nahasmendua eta mintzairaren berariazko nahasmendua duten pertsonekin esku-hartze goiztiarrak egiteko komunikazio-modalitate nagusiak identifikatu ditu.
f) Autismoaren esparruko nahasmendua eta mintzairaren berariazko nahasmendua duten pertsonekin erabilitako sistema nagusien ezaugarriak eta funtzioak deskribatu ditu.
g) Sistema egokiena hautatu du, mintzairaren berariazko nahasmendua duen erabiltzailearen konpetentzien arabera.
h) Autismoaren esparruko nahasmendua eta mintzairaren berariazko nahasmendua duten pertsonekin esku hartzeko beharrezkoak diren jarrerak bereganatu ditu.

4. Komunikazio-bitartekotzako programak garatzen ditu mintzaira- eta hizketa-nahasmenduak dituzten pertsonentzat, komunikazio-sistemak eta esku-hartze estrategiak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mintzaira- eta hizketa-nahasmenduak dituzten pertsonen ezaugarriak deskribatu ditu.
b) Oinarrizko komunikazio-funtzioak eskuratzeko eta ulertzeko esku-hartzearen plangintza egin du.
c) Esku-hartzea antolatu du, komunikazioa, mintzaira eta hizketa errazteko oinarrizko estrategiak jarraituz.
d) Aurre hartzearen eta egituratzearen garrantzia aztertu du, laguntza bisualak, eskuzkoak eta teknikoak erabiliz.
e) Mintzairaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonekin esku-hartze goiztiarrak egiteko komunikazio-modalitate nagusiak identifikatu ditu.
f) Mintzairaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonekin erabilitako sistema nagusien ezaugarriak eta funtzioak deskribatu ditu.

g) Sistema egokiena hautatu du, erabiltzailearen konpetentzien eta beharren arabera.
h) Mintzairaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonekin esku hartzeko beharrezkoak diren jarrerak bereganatu ditu.

5. Esku-hartzearen gaineko kontrol- eta segimendu-jarduerak egiten ditu, bere jarduera eta diziplina-arteko taldearena atzeraelikatzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzearen helburuak betetzen diren ebaluatzeko modeloak, teknikak eta tresnak deskribatu ditu.
b) Entzumen-urritasuna duten pertsonek erabilitako laguntzen funtzionamendua zuzena den ebaluatzeko sistemak identifikatu ditu.
c) Baliabideak diziplinarteko taldera egokitzea beharrezkoa dela adieraztearen garrantzia nabarmendu du.
d) Gaitasun komunikatiboak erregistratzeko tresnak prestatu ditu, erabiltzailearen ezaugarrien eta horrekin egingo den esku-hartzearen arabera.
e) Komunikazio-egoera berri bat eragin dezaketen aldaketak hauteman ditu erabiltzaileen beharretan.
f) Aldian behingo erregistroak egitearen garrantzia nabarmendu du, gaitasun komunikatiboa ebaluatzeko bitarteko gisa.
g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu ebaluazio-txostenak eta memoriak lantzeko eta aurkezteko.
h) Informazioa diziplinarteko taldeari transmititzearen garrantzia aztertu du.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. ESKU-HARTZEAREN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Komunikazio-bitartekotzaren esku-hartze esparruak aztertzea.<br>- Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren funtzioak deskribatzea.<br>- «Komunikazioa eta mintzaira» kontzeptua zehaztea.<br>- «Hizketa» kontzeptua definitzea.<br>- «Elkarreragina» kontzeptua definitzea.<br>- Gizarte-elkarreraginerako zailtasunak aztertzea.<br>- Mintzairari, ahotsari eta hizketari eragiten dieten nahasmendu nagusiak identifikatzea.<br>- Elkarreragin motak eta komunikazioa ezartzeko baldintza onenak aztertzea.<br>- Esku-hartze esparruak aztertzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren funtzioak.<br>- Komunikazio-prozesua.<br>- Komunikazioaren elementuak.<br>- Mintzaira eskuratzeko mekanismoak.<br>- Mintzaira eskuratzeko eta erabiltzeko zailtasunak.<br>- Funtzio sinbolikoaren eta gizarte-gaitasunaren nahasmenduak, mintzairari dagokionez.<br>- Zeinu-mintzairaren gramatika.<br>- Zeinuen jatorria eta eraketa.<br>- Zeinuen sailkapena.<br>- Sailkatzaileen gramatika-funtzioa zeinu-mintzairan. |
| | |
| jarrerazkoak | - Egoera berrietara egokitzeko prestasuna. |

| | |
|---|---|
| | - Enpatia sustatzeko interesa. |

| 2. ESKU-HARTZEAREN INGURUNEAREN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Esku-hartzearen lege-esparrua identifikatzea.<br>- Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonentzako zerbitzuak eskaintzen edo kudeatzen dituzten erakundeak identifikatzea.<br>- Komunikazio-zailtasunak dituen populazioaren heterogeneotasuna zehazten duten aldagaiak aztertzea.<br>- Komunikazio-urritasuna duen populazioaren eta horren ondoriozko komunikaziorako laguntza-sistemen eta -baliabideen heterogeneotasuna deskribatzea.<br>- Mintzairaren garapenean zailtasunak dituzten pertsonen ezaugarri nagusiak identifikatzea.<br>- Inguruneak komunikazioa errazteko edo oztopatzeko izan dezakeen eragina aztertzea.<br>- Komunikaziorako laguntza-sistema edo -baliabidea hautatzea, erabiltzailearen ezaugarrien arabera.<br>- Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren printzipio etikoak eta deontologikoak deskribatzea.<br>- Mintzairaren guneari eragiten dioten nahasmendu neuropsikologikoei buruzko oinarrizko edukiak deskribatzea: apraxia, agnosia, amnesia, akalkulia, afasia, alexia eta lesio lobarren ondoriozko sindrome neuropsikologikoak. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Lege-esparrua.<br>- Komunikatzeko eta gizarte-elkarreraginerako zailtasunak dituzten pertsonak: autismoaren esparruko nahasmenduak.<br>- Mintzairaren garapeneko nahasmenduak dituzten pertsonak.<br>- Ahozko hizkuntza eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonak.<br>- Hartutako mintzaira-zailtasunak dituzten pertsonak.<br>- Eragina desgaitasunen bat duen populazioan. Estatistikak.<br>- Ingurunearen eginkizuna komunikazioan. |
| | |
| jarrerazkoak | - Kode etikoa betetzea.<br>- Ikasteko grina eta motibazioa. |

| 3. KOMUNIKATZEKO ETA GIZARTE-ELKARRERAGINERAKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONEKIN KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZA EGITEKO PROGRAMAK GARATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Autismoaren esparruko nahasmendua eta mintzairaren berariazko nahasmendua duten pertsonen ezaugarri kognitiboak, komunikazio-ezaugarriak eta mintzaira-ezaugarriak deskribatzea.<br>- Gizarte-harremanak aztertzea, autismoaren esparruko nahasmenduan eta mintzairaren berariazko nahasmenduan.<br>- Oinarrizko komunikazio-funtzioak eskuratzeko esku-hartzearen plangintza egitea.<br>- Esku-hartzea antolatzea, komunikazioa, mintzaira eta gizarte-harremanak errazteko oinarrizko estrategiak jarraituz.<br>- Aurre hartzearen eta egituratzearen garrantzia aztertzea, laguntza bisualak erabiliz.<br>- Autismoaren esparruko nahasmendua eta mintzairaren berariazko nahasmendua duten pertsonekin esku-hartze goiztiarrak egiteko |

| | |
|---|---|
| | komunikazio-modalitate nagusiak identifikatzea.<br>- Autismoaren esparruko nahasmendua eta mintzairaren berariazko nahasmendua duten pertsonekin erabilitako sistema nagusien ezaugarriak eta funtzioak deskribatzea.<br>- Sistema egokiena hautatzea, mintzairaren berariazko nahasmendua duen erabiltzailearen konpetentzien arabera.<br>- Autismoaren esparruko nahasmendua eta mintzairaren berariazko nahasmendua duten pertsonekin esku hartzeko beharrezkoak diren jarrerak bereganatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Oinarrizko komunikazio-funtzioak.<br>- Autismoaren esparruko nahasmendua eta mintzairaren berariazko nahasmendua dutenekin komunikazioan eta mintzairan esku hartzeko estrategia orokorrak.<br>- Aurre hartzea eta egituratzea, laguntza bisualen bitartez.<br>- Esku-hartze goiztiarreko komunikazio-modalitateak.<br>- Komunikatzeko eta gizarte-elkarreraginerako arazoak dituzten pertsonek erabilitako komunikazio-sistema nagusiak.<br>- Sistema baten edo bestearen irizpideak hautatzea, mintzairaren berariazko nahasmendua duten pertsonen ezaugarrien arabera.<br>- Jarrera zuzenak mintzairaren berariazko nahasmendua duten pertsonekin esku hartzean. |
| | |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-egoera berrietara egokitzeko interesa.<br>- Giza harremanekiko interesa. |

| 4. KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZAKO PROGRAMAK GARATZEA MINTZAIRAREN ETA HIZKETAREN NAHASMENDUAK DITUZTEN PERTSONENTZAT | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Mintzaira- eta hizketa-nahasmenduak dituzten pertsonen ezaugarriak deskribatzea.<br>- Gutxieneko komunikazio-zeinuak aztertzea.<br>- Oinarrizko komunikazio-funtzioak eskuratzeko eta ulertzeko esku-hartzearen plangintza egitea.<br>- Esku-hartzea antolatzea, komunikazioa, mintzaira eta hizketa errazteko oinarrizko estrategiak jarraituz.<br>- Aurre hartzearen eta egituratzearen garrantzia aztertzea, laguntza bisualak, eskuzkoak eta teknikoak erabiliz.<br>- Mintzairaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonekin esku-hartze goiztiarrak egiteko komunikazio-modalitate nagusiak identifikatzea.<br>- Mintzairaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonekin erabilitako sistema nagusien ezaugarriak eta funtzioak deskribatzea.<br>- Sistema egokiena hautatzea, erabiltzailearen konpetentzien eta beharren arabera.<br>- Mintzairaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonekin esku hartzeko beharrezkoak diren jarrerak bereganatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Mintzaira- eta hizketa-nahasmenduak dituzten pertsonen ezaugarriak.<br>- Esku hartzeko estrategia espezifikoak, mintzaira- eta hizketa-mailaren arabera.<br>- Ahozko komunikaziorako laguntza-bitartekoak.<br>- Esku-hartze goiztiarreko komunikazio-modalitateak.<br>- Komunikazio- eta hizketa-nahasmenduak dituzten pertsonentzako laguntza-sistema hautatzeko irizpideak. |

| | |
|---|---|
| | - Mintzairaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonekin esku hartzeetarako neurri zuzentzaileak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Arazoak ebazteko prozesu-sistema bat aplikatzeko interesa. |

| 5. ESKU-HARTZEAREN GAINEKO KONTROL- ETA SEGIMENDU-JARDUERAK EGITEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Erregistro-orriak egitea.<br>- Komunikazio-inguruneak erregistratzea.<br>- Laguntza tekniko pertsonalen funtzionamendua egiaztatzea.<br>- Laguntza tekniko kolektiboen funtzionamendua egiaztatzea.<br>- Baliabideen egokitzapen-premiak identifikatzea.<br>- Memoriak eta txostenak egiteko informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.<br>- Baliabideak diziplinarteko taldera egokitzea beharrezkoa dela adieraztearen garrantzia nabarmentzea.<br>- Komunikazio-egoera berri bat eragin dezaketen aldaketak identifikatzea erabiltzaileen beharretan. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzearen helburuak betetzen diren ebaluatzeko modeloak, teknikak eta tresnak deskribatzea.<br>- Entzumen-urritasuna duten pertsonek erabilitako laguntzen funtzionamendua zuzena den ebaluatzeko sistemak.<br>- Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzean diziplinarteko taldeari informazioa helaraztearen garrantzia. |
| | |
| jarrerazkoak | - Bitartekotza-prozesuan esku hartzen duten gainerako pertsonen parte hartzeko prestasuna eta lankidetza. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

### 1) Sekuentziazioa

Honako hau esku-hartze kasu zehatzetan oinarritutako aplikazio praktikoa duen prestakuntza-modulu teorikoa denez, komeni da irakaskuntza/ikaskuntza prozesua hastea komunikazioaren oinarrizko edukien gaineko azalpen argi bat eskainiz. Halaber, Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren funtzioak argi azalduko dira.

Ondoren, esku-hartzearen inguruneari erreparatuko zaio, bitartekariaren esku-hartzea barne hartzen duen lege-esparrua eta mintzairaren eremuari eragiten dioten nahasmendu neuropsikologikoei buruzko oinarrizko alderdi guztiak azaltzeko.

Gero, komunikatzeko eta gizarte-elkarreraginerako zailtasunak dituzten pertsonekin komunikazio-bitartekotzako programak landuko dira, eta aurrerago, mintzairaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonei bideratutako programak.

Azkenik, kolektibo horiekin egindako esku-hartzeen gaineko kontrol- eta segimendu-jarduerak ikasiko dira.

## 2) Alderdi metodologikoak

Unitate didaktiko oro hastean, komeni da aurkezteko denbora hartzea; batetik, ikasleak gaiari buruz zer dakien eta zer interes duen jakiteko, eta bestetik, ikasgaia bera aurkezteko. Horretarako, alderdi nagusiak barne hartuko dituzten askotariko jarduerak egin daitezke.

Unitate didaktiko batzuetan, kontzeptuzko edukiak bestelakoak baino nabarmen gehiago izan daitezke. Horrelakoetan, izaera teorikoagoko jarduerak diseinatu behar dira, lan kognitibo eta pertsonala eskatzen dutenak, eta jarduera parte-hartzaileagoekin tartekatu.

Bestetik, ibilbide didaktikoan zehar, zenbait mugarri ezarriko dira ordura artekoen errepasoa eta laburpena egiteko. Hala, ikasleek unitate didaktikoan zehar landutako edukiak, baita beste unitate didaktiko batzuetan landutakoak ere, osatu eta lotu ditzakete.

Ezagutzak eskuratu ahala praktikan jartzeko, amaierako unitate didaktiko bat proposatu daiteke, unitate didaktikoetan landutako edukiak txertatuko dituena. Unitate hori garatzeko, kasu hipotetikoak prestatu daitezke, egiazko lan-egoeren antzekoak, dagozkien ezagutzak eta teknikak erabili eta aplikatu, eta zerbitzu jakin bat eskuratzeko. Hala, ikasleek autonomia- eta ekimen-maila nahikoa erakutsi beharko dute dagozkien jarduerak gauzatzeko garaian.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Esku-hartzearen ezaugarriak zehaztea:
- Gaztelaniazko mezu idatziak zeinu-mintzairara itzultzea (prentsako albisteak, artikuluak, askotariko testuak).
- Pertsona gorren elkarte baten barne-analisia, komunikazio-bitartekari baten premiak eta funtzioak erregistratzeko.

✓ Esku-hartzearen ingurunearen ezaugarriak zehaztea:
- Ikaskuntza-esparruari loturiko lanbide-zentroak bisitatzea.
- Askotariko mintzaira-garapeneko zailtasunak dituzten pertsonen bideoak ikustea.
- Apraxia, agnosia, amnesia, akalkulia, afasia eta alexia kasuetan zein lesio lobarren ondoriozko sindrome neuropsikologikoetan esku hartzeko proba nagusiak identifikatzea eta praktikan jartzea (adibideak: *La evaluación de la afasia y trastornos relacionados*, Goodglass H. & Kaplan E., Argit. Panamericana, Madril, 1996. Bostongo testaren Espainiako egokitzapena; *Rehabilitación de la afasia y trastornos asociados*, Peña Casanova J., Pérez Pamiés M., Masson S.A., Bartzelona, 1994).

✓ Komunikatzeko eta gizarte-elkarreraginerako zailtasunak dituzten pertsonekin komunikazio-bitartekotza egiteko programak garatzea:
- Mintzaira-nahasmenduren bat eta autismoaren esparruko nahasmenduren bat duten pertsonen kasu errealak aztertzea.
- Mintzaira-nahasmenduak eta autismoaren esparruko nahasmenduak dituzten pertsonen arretarako jarrera zuzenak garatzeko *role-playing* motako jarduerak egitea.

- Talde-dinamikak, komunikazioa errazteko oinarrizko estrategiak martxan jartzeko.

✓ Komunikazio-bitartekotzako programak garatzea mintzairaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonentzat:
  - Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonei bideratutako esku-hartzearen plangintza egitea, *role-playing* bidez eta zeinu-mintzaira erabiliz.
  - Ezpain-irakurketako ariketak, bikoteka.

✓ Esku-hartzearen gaineko kontrol- eta segimendu-jarduerak egitea:
  - Erregistro-orriak osatzeari buruzko talde-lana.
  - Laguntza tekniko pertsonalak eta kolektiboak erabiltzea.
  - Diziplinarteko taldeari informazioa helarazteari buruzko ariketak egitea *role-playing* bidez.

# 8. lanbide-modulua 8
# KOMUNIKAZIOAN ESKU HARTZEKO TEKNIKAK

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Komunikazioan esku hartzeko teknikak** |
| Kodea: | 1118 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 132 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Kreditu kop.: | 9 |
| Irakasleen espezialitatea: | Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Tituluaren profilari lotutako modulua. |
| Helburu orokorrak: | 4 / 6 / 8 / 12 / 19 / 22 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Komunikazio-bitartekotzan esku hartzen du, erabiltzaileen eskubideak errespetatuz eta komunikazio-bitartekotzako arau profesionalak, printzipioak eta oinarriak bereiziz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsona gorrekin, gor-itsuekin eta entzumen-urritasuna dutenekin bitartekotza egiteko prozesuen printzipioak deskribatu ditu.
b) Komunikazio Bitartekotzako goi-mailako teknikariaren aurkezpenari eta jarrerei buruzko arau profesionalak deskribatu ditu.
c) Erabiltzaileari emandako tratuarekin loturiko harreman profesionalak deskribatu ditu.
d) Pertsona gorrekin, gor-itsuekin eta entzumen-urritasuna dutenekin bitartekotza-prozesua garatzeari loturiko arauak eta printzipioak aplikatzeko beharrezkoak diren komunikazio-bitartekotzako mekanismoak eta trebetasunak nabarmendu ditu.
e) Pertsona gorrei, gor-itsuei eta entzumen-urritasuna dutenei zuzendutako bitartekotza modalitate, mota eta bitarteko egokiak hautatu ditu, komunikazio-egoeraren arabera.

2. Zeinu-mintzaira erabiltzen duten pertsonei bideratutako bitartekotza-prozesua antolatzen du, komunikazio-ingurunea eta komunikazio-bitartekoak zein -estrategiak aztertuta eguneroko egoeretan.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zerbitzuak askotariko egoeratan eskatu ahal zaizkiola-eta, egoera horien arteko desberdintasunak identifikatu ditu.

b) Erabiltzaileekin bitartekotza egiteko beharrezkoak diren teknikak eta estrategiak hautatu ditu, ingurunearen edo egoeraren arabera.
c) Komunikazio-bitartekotzako hainbat egoeratan aplikatu beharreko laguntza-bitartekoak eta laguntza tekniko zein pertsonal egokiak zehaztu ditu.
d) Erabiltzailearen komunikazio-beharrei buruzko informazioa lortzeko bideak identifikatu ditu.
e) Aurre hartu die informazio-urritasunei, eta bitartekotzan beharrezkoa den hiztegia aurreratu du.
f) Zerbitzu bakoitzean beharrezkoa den informazioa hautatu eta aztertu du.
g) Informazioa biltzeko tresnak egin ditu.
h) Esku-hartze prozesua aurretiaz antolatzearen garrantzia nabarmendu du.

3. Zeinuzko mezuak igortzen ditu edozein komunikazio-kanal edo -koderen bidez, esku-hartzearen ingurunearen arabera, komunikazio-bitartekotzako teknikak aztertuta eta ezarrita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Espainiako zeinu-mintzairaren adierazpen-baliabideak hautatu ditu, edozein komunikazio-kanal edo -koderen bidez igorritako mezuak esan ostean transmititzeko.
b) Espainiako zeinu-mintzairaren adierazpen-baliabideak hautatu ditu, edozein komunikazio-kanal edo -koderen bidez igorritako mezuak aldi berean transmititzeko.
c) Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzen duten pertsona gorrekin, gor-itsuekin eta entzumen-urritasuna dutenekin edo komunikazio-, mintzaira- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzeko beharrezkoak diren atxikipen-, oroimen-, pertzepzio- eta kontzentrazio-estrategiak barneratu ditu.
d) Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzen duten pertsona gorrekin, gor-itsuekin eta entzumen-urritasuna dutenekin edo komunikazio-, mintzaira- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzeko beharrezkoak diren atxikipen-, oroimen-, pertzepzio- eta kontzentrazio-estrategiak aplikatu ditu.
e) Komunikazio-kanalen edo -kodeen berezko adierazpen-baliabideak hautatu ditu, Espainiako zeinu-mintzairaren bidez mezuak igortzeko.
f) Espainiako zeinu-mintzairaren zeinuak aplikatu ditu, sistema egokienak erabiliz.
g) Pertsona gorrei zuzenduriko komunikazio-bitartekotzan Espainiako zeinu-mintzairan igorritako mezuak komunikazio-kanal edo -koderen baten bitartez transmititzeko arau profesionalak aplikatzearen garrantzia nabarmendu du.

4. Ahozko mezuak igortzen ditu, edo, hala dagokionean, zeinuzko mezuen transkripzioak, adierazpen-teknikak aztertuta, komunikazio-bitartekotzaren eta esku-hartzearen ingurunearen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Espainiako zeinu-mintzairaren berezko adierazpenak transmititu ditu, esku-hartze inguruneen arabera, eta sistema egokienak erabiliz.
b) Kontzentrazio-teknikak landu ditu, zeinuzko mezuak hautemateko.
c) Atxikipen- eta oroimen-teknika egokiak aplikatu ditu esan osteko transmisioa egiteko.
d) Atxikipen- eta oroimen-teknikak aplikatu ditu, zeinuzko mezuen aldibereko transmisioa egiteko.
e) Mintzairaren adierazpen-baliabideak hautatu ditu, Espainiako zeinu-mintzairaren bidez igorritako mezuen esan osteko transmisioa egiteko.
f) Komunikazio-kanalen edo -kodeen berezko adierazpen-baliabideak hautatu ditu, Espainiako zeinu-mintzairaren bidez igorritako mezuen aldibereko transmisioa egiteko.

g) Espainiako zeinu-mintzairan igorritako mezuen esan osteko transmisioan arau profesionalak aplikatzearen garrantzia nabarmendu du.

5. Komunikazio-bitartekotza ebaluatzen du, ebaluazio-teknikak eta -erregistroak esku-hartze inguruneekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Plangintza-akatsak hauteman ditu erabiltzaileekin bitartekotza-prozesua gauzatu bitartean.
b) Erabiltzaileentzako bitartekotza-teknikak aztertu ditu, erabiltzailea eta egoera kontuan hartuta.
c) Erabiltzaileari doitutako laguntza-baliabideak erabili ditu bitartekotzan.
d) Erabiltzaileekin egindako bitartekotza-akatsak identifikatu ditu, kasuan kasuko zuzenketa egokiak adieraziz.
e) Komunikazio-egoeren ikusizko-erregistroak osatu ditu.
f) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia nabarmendu du.
g) Baliabideak mugitu eta sortzearen garrantzia argudiatu du, zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta lanbidearen garapenari laguntzeko.
h) Laneko segurtasunari eta higieneari buruzko arauen garrantzia nabarmendu du, prebentzio-jarduerak eta arrisku-egoerak lotuz.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZAKO EGOERETAN ESKU HARTZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Erabiltzaileei zuzenduriko bitartekotza-printzipioak eta -prozesuak zerrendatu eta aztertu ditu komunikazio-bitartekotzaren prozesua egin aurretik, bitartean eta ondoren.<br>- Komunikazio-bitartekotzaren berezko tresnak eta baliabideak aztertu eta bereizi ditu, egoeraren arabera. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazio-bitartekariaren profila.<br>- Komunikazio-bitartekariaren eginkizunak (informazioa transferitzea, laguntza eta argibideak ematea, etab.).<br>- Zeinu-mintzairaren interpretearen profilaren eta gida-interpretearen eta bitartekariaren profilen arteko desberdintasunak, antzekotasunak eta lotura.<br>- Komunikazio-bitartekotzako esku-hartzea behar duten komunikazio-egoerak.<br>- Komunikazio-bitartekariaren erreferentziazko arau profesionalak. Gaitzea, trebetasuna, jarrera eta pragmatismoa.<br>- Komunikazio-bitartekotzako prozesuen erabiltzaileen ezaugarriak eta beharrak (entzumen-urritasuna duten pertsonak, pertsona gor-itsuak, etab.). |
| | |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-bitartekotzan, erabiltzaile bakoitzaren egoera ulertzea.<br>- Konpromiso etikoa, errespetua eta tolerantzia izatea lanbide-jardunean. |

| 2. ZEINU-MINTZAIRAREN ERABILTZEENTZAKO BITARTEKOTZA-PROZESUA ANTOLATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Komunikazio-elkarreragin elebiduna eta kultura-bitasunekoa ikertzea eta zehaztea, interpretazio-prozesu bereizi gisa, informazioa lortzeko.<br>- Erabiltzaileen hizkuntza-, gizarte-, kultura- eta informazio-beharrak identifikatzea eta egoeran egoerako doikuntza egokiak egitea.<br>- Interpretazioren ordez, komunikazio-bitartekotza zer egoeratan egin daitekeen identifikatzea.<br>- Erabiltzaile baten informazioa beste erabiltzaile bati helarazteko, zeinu-mintzaira abiapuntu zein xede dela, bitartekariak esku hartzen duen egoera espezifikoak praktikan jartzea eta modu kritikoan aztertzea.<br>- Erabiltzaile mota bakoitzari dagokion komunikazio-bitartekotzako egoerak aztertzea eta ereduen bidez azaltzea.<br>- Komunikazio-bitartekotzako egoerak simulatzea erabiltzaile errealekin, unean uneko urrats, prozedura, metodo, teknika, estrategia eta laguntza tekniko egokiak nabarmenduta. |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazio-bitartekaritzaren prozesua. Definizioa eta ezaugarriak. Interpretazio-prozesuarekiko aldeak.<br>- Komunikazio-bitartekotzaren prozesuaren faseak eta antolakuntza.<br>- Komunikazio-bitartekotzako esku-hartzeen motak eta esparruak.<br>- Komunikazio-bitartekotzan informazioa transferitzeko metodoak (esan ostekoak, aldiberekoak, etab.).<br>- Komunikazio-bitartekotzan informazioa transferitzeko modalitateak (idatzizko edo zeinuzko testuak, telefono bidezko komunikazioa, bideo-deiak, etab.).<br>- Komunikazio-bitartekotzaren berezko teknika, estrategia, baliabide eta laguntza tekniko pertsonalizatuak.<br>- Erabiltzaileari komunikazioa transmititzera mugatutako aldibereko komunikazio-bitartekotzako ekintzak. |
| jarrerazkoak | - Malgutasuna eta tolerantzia izatea lanbide-jardunean.<br>- Loturiko beste profesional batzuekin lankidetzan jarduteko prestasuna (interpreteak, laguntzaileak, etab.). |

| 3. ZEINUZKO MEZUAK IGORTZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Komunikazio-bitartekotzaren jarduera inplizituak urratsez urrats zehaztea: ahozko edo idatzizko mezu jatorrizkoak osorik edo zati batean interpretatzea eta/edo itzultzea, egokitzea, etab., zeinuzko mezu bihurtzeko.<br>- Ahozko eta idatzizko mezu jatorrizko bat esan ostean zeinuzko mezu bihurtzeko prozesua urratsez urrats azaltzea.<br>- Ahozko eta idatzizko mezu jatorrizko bat aldi berean zeinuzko mezu bihurtzeko prozesua urratsez urrats azaltzea.<br>- Ahozko edo idatzizko mezuen pertzepzio-, arreta- eta kontzentrazio-, baztertze-, oroimen- eta ulermen-estrategiak zehaztea eta praktikan jartzea.<br>- Hizkuntza-ariketak eta -estrategiak zehaztea eta praktikan jartzea –gramatika-jarioa, -egokitasuna, etab.– datuak zeinuzko helburu-hizkuntzara aldatzeko erraztasunari, erritmoari, abiadari, atzerapenari |

| | |
|---|---|
| | eta abarri dagokienez.<br>- Ahozko edo idatzizko mezuak zeinu-mintzairan ematea erraztasun, erritmo, etab., egokiekin.<br>- Arau profesionalak aplikatzea informazioaren transmisioan. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazio-bitartekotzako laguntza-tresnak, baliabideak, etab., jatorrizko mezua ahozkoa edo idatzizkoa denerako.<br>- Espainiako zeinu-mintzaira eta haren aldaerak.<br>- Espainiako zeinu-mintzairaren keinuzko adierazpen-baliabide paralinguistikoak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Arazoak ebazteko ekimena eta eraginkortasuna.<br>- Errespetua, tolerantzia eta pazientzia izatea erabiltzaileekiko komunikazioan. |

| 4. ZEINUZKO MEZUETAN OINARRITUTAKO AHOZKO EDO IDATZIZKO MEZUAK IGORTZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Komunikazio-bitartekotzaren jarduera inplizituak urratsez urrats zehaztea: zeinuzko mezu jatorrizkoak osorik edo zati batean interpretatzea eta/edo itzultzea, egokitzea, etab., ahozko edo idatzizko mezu bihurtzeko.<br>- Zeinuzko mezu jatorrizko bat esan ostean ahozko edo idatzizko mezu bihurtzeko prozesua urratsez urrats azaltzea.<br>- Zeinuzko mezu jatorrizko bat aldi berean ahozko edo idatzizko mezu bihurtzeko prozesua urratsez urrats azaltzea.<br>- Zeinuzko mezuen pertzepzio-, arreta- eta kontzentrazio-, baztertze-, oroimen- eta ulermen-estrategiak zehaztea eta praktikan jartzea.<br>- Hizkuntza-ariketak eta -estrategiak zehaztea eta praktikan jartzea –gramatika-jarioa, -egokitasuna, etab.– datuak ahozko edo idatzizko helburu-hizkuntzara aldatzeko erraztasunari, erritmoari, abiadari, atzerapenari eta abarri dagokienez.<br>- Zeinuzko mezuen ahozko edo idatzizko mezuetarako translazioa egitea erraztasun, erritmo, etab., egokiekin.<br>- Arau profesionalak aplikatzea informazioaren transmisioan. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazio-bitartekotzako laguntza-tresnak, baliabideak, etab., jatorrizko mezua zeinuzkoa denerako.<br>- Ahozko eta idatzizko hizkuntzen baliabide linguistikoak eta paralinguistikoak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Arazoak ebazteko ekimena eta eraginkortasuna.<br>- Errespetua, tolerantzia eta pazientzia izatea erabiltzaileekiko komunikazioan. |

| 5. KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZA EBALUATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Autoebaluaziorako eta kanpo-ebaluaziorako bitarteko eta estrategia egokienak definitzea eta aplikatzea.<br>- Komunikazio-akats ohikoenak, linguistikoak eta linguistikoak ez direnak, zehaztea eta aztertzea.<br>- Etengabeko hobekuntza txertatzea komunikazio-bitartekotzako zerbitzuetan. |
| | |

| | |
|---|---|
| kontzeptuzkoak | - Ebaluazioaren etapak:<br>• Komunikazio-bitartekotza egin aurretik, bitartean eta ondoren.<br>• Etengabea.<br>- Laguntza-baliabideak.<br>- Kanpo-ebaluazioaren eragileak.<br>- Ebaluazio-txostenak.<br>- Segurtasun- eta higiene-arauak eta laneko gaixotasunak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Beti kritika eraikitzaileak egitea.<br>- Zerbitzua hobetzeko motibazio pertsonala eta besteena bultzatzea.<br>- Zerbitzu espezifikoen eta, oro har, lanbidekoen hobekuntzan pertsonalki inplikatzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu honi dagokionez, eta irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuak antolatzeari eta martxan jartzeari begira, hainbat gomendio eskainiko dira jarraian, prozesua era bikainean gara dadin, eraginkortasunari dagokionez:

### 1) Sekuentziazioa

Eredu zehatz hau egituratzeko, jarraian zehaztutako faseak edo atalak ezarritako hurrenkeran gauzatzea komeni da:

1. Esku-hartzearen ingurunea eta prozesua zehaztea, zeinu-mintzaira erabiltzen duten pertsonekin komunikazio-bitartekotza egitean.
2. Komunikazio-bitartekotzako partaideen arteko zeinuzko, ahozko eta idatzizko mezuen igorpen pragmatikoaren translazioa.
3. Komunikazio-bitartekotzaren prozesua antolatzea, ezartzea eta aztertzea.

1. Lehen unetik zehaztu behar da komunikazio-bitartekotzan eskainiko diren zerbitzuak eta beteko diren funtzioak, ikuspegi malguago baten arabera, ez direla interpretazioari dagozkionak.

Hala ere, ikuspegi praktiko baten arabera, bitartekariaren lanaren zati bat ahozko edo idatzizko mezuen zeinuzko mezuetarako translazioa egitea izango da, edo alderantziz; beharrezkoa da hori, bitartekotza eraginkorra izango bada.

Horrenbestez, bitartekariaren zeregina zehaztu behar da, kontuan hartuta esku-hartze egoerak, jarduteko oinarrizko arauak, etab., hala nola bere esku ez dauden zereginak, beste profesional eskudun baten ardura direnak.

Halaber, aldi berean landuko dira erabiltzaile-taldearen behar soziokulturalak eta linguistikoak (zailtasunak ulermenezko irakurketan eta idazketan, ezpainak irakurtzeko jarri beharreko arretan, etab.) eta komunikazioan parte hartzen duten aldeen arten informazioa transferitzeko teknikak, estrategiak, baliabideak eta metodoak.

2. Jatorri-hizkuntzako mezuak helburu-hizkuntzan interpretatzeko prozesua dugu komunikazio-bitartekotzan informazioaren translazioa egiteko oinarria.

Horrenbestez, prozesu horretan erabilitako hizkuntzak menderatzea ezinbestekoa da (hala alderdi formalak, nola paralinguistikoak); izan ere, bitartekariaren ardura da, eskura dituen baliabide guztiak erabilita eta ingurune soziokultural jakin bat kontuan hartuta, aldeek mezua zehatz ulertzea. Ulertu ezean, sasikomunikazio ulertezinean galtzeko arriskua dago.

Aipatutako prozesua osatzen duten bestelako trebetasunak eta gaitasunak (arreta, memoria, ulermena, etab.) ezagutzea eta etengabe praktikan jartzea eta, ondoren, horiek sistema integratu gisa mekanizatzea.

3. Azkenik, mezuak bidali–hartu–ulertu aurretik, bitartean eta ondoren prozesu arin bati bide ematen dioten aipatutako eskakizun guztiak erantzun-eredu batean biltzea komeni da, komunikazio-bitartekotzaren oinarrian eta zerbitzura dauden printzipioen arabera.

Komunikazio-tresna eta -baliabide estandarrak aipatu behar dira, hala nola ikasleak, profesionalizatze-mailakatuan aktiboki parte hartzearen ondorioz, eskaini ditzakeenak.

Edonola ere, egituraketa eta ezagutza teorikoak eta horiek praktikan jartzea ia aldi berean landu behar dira, eta lanean topatuko dituzten baldintza ahalik eta antzekoenetan, lan-prozesuak ez ezik, beharrezkoak diren jarrerak, erantzukizuna, errespetua, malgutasuna eta egokitzapenak ere ikas ditzan. Hala, bere lana arrakastatsua izango da, ikuspegia edozein dela ere.

## 2) Alderdi metodologikoak

Oso agerikoa da modulu honen izaera praktiko eta prozedurazkoa. Horrenbestez, oro har, ikuspegi bikoitz sinkronizatu batetik egin behar zaio aurre; alegia, azaldutako ezagutza teorikoen adibide praktikoak eskainiz.

Zikloaren curriculuma garatu ahala agerikoa bada etorkizuneko profesionalek normalean oharkabean igaro ohi den errealitatea ezagutzeko interes gero eta handiagoa dutela, modu honek inplikazio erabatekoa galdegiten die, hori delako bidea tituludun bat gehiago izan ordez bitartekari taxuzkoa izateko.

Ikaskuntzaren erantzulea ikaslea bera izan behar da; bere inplikazioaren mende egongo da edukietan aurrera egiteko abiada. Azalpen soiletan oinarritutako ezagutza-transmisioa porrot ziurra da; alferrikakoa litzateke ziklo honen bidez lortu nahi diren konpetentziak eskuratzeko prozesua.

Horrenbestez, ikasgelan egindako lan oro ikasgelatik kanpo islatu behar da, areagotuta, eta ikasleak ordura arte landutako edukietan sakontzeko ardura izan behar du. Hala bada, ezagutza-metaketa elkarri lotutako ezagutzetan oinarrituko da edukien gainjarpenean baino gehiago.

Halaber, zuzeneko zein zeharkako profesionalek parte hartzeak izan dezakeen garrantzia nabarmendu behar da, baita erabiltzaileena ere, hezkuntza-espazio mugatu horri errealismo ukitua emango diote eta.

Zikloko irakasleek koordinatuta jardutea komeni da, beraz, eta bikoiztasunak saihestea, landutako moduluak elkarren osagarri izatea sustatuz.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Komunikazio-bitartekotzako partaideen arteko zeinuzko, ahozko eta idatzizko mezuen igorpen pragmatikoaren translazioa:
    - Elkarrizketa laburrak diseinatzea, hiruko taldeetan, bai zeinu-mintzairan, bai ahozko nahiz idatzizko hizkuntzan, eta hiru horietako bakoitzak bitartekariaren eta komunikazio-prozesuko parte-hartzaileen paperak betetzea, txandaka.
    - Eskolaz kanpoko harremanak sustatzea balizko erabiltzaileen ohiko hizkuntzak hitz egiten dituztenekin.

- Akats eta asmatze linguistiko eta ez linguistiko sistematikoak aztertzea (banaka, talde txikitan, denen artean).
- Mezuen translazioa egitea komunikazio-bitartekotzan erabiliko diren hizkuntzak abiapuntu zein helmuga direla, bai esan ostean, bai aldi berean, konplexutasun gero eta handiagoarekin, bitartekotza gauzatzeko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak erabilita eta, bereziki, alde komunikatzaileak elkar ulertzeko.
- Konplexutasun-maila desberdineko mezuen translazioa egiten ohitzea, bitartekari diren aldetik, maizen jardungo diren esparruetan, egoeretan, etab.
- Ikasleek komunikazio-bitartekotzako zerbitzuak eskaintzen diren lekuetara irtenaldiak egitea, beraiek azal dezaten zein den beren eginkizuna, mintzaira bat edo bestea erabiliz.
- Ikasleak komunikazio-bitartekotza prestatu eta inprobisatuetan esku hartzen grabatzea, aurrez prestatuta eta inprobisatuta, eta esku-hartzeen grabaketak aztertzea.
- Hizkuntza batetik besterako mezuen translazioa egiteko aholkularitza, informazioa, ariketak, etab., eskaintzen dituzten webguneak bilatzea eta biltzea kurtsoan zehar, betiere hizkuntza horietako bat zeinuzkoa izan behar dela kontuan hartuta.

✓ Komunikazio-bitartekotzaren prozesua antolatzea, ezartzea eta aztertzea:

- Ikasleei konplexutasun-maila gero eta handiagoko egoerak proposatzea, bitartekariaren jardunbide onenari buruz eztabaida dezaten.
- «Muturreko egoerak» proposatzea, ikasleek konponbide sortzaileak eman ditzaten eta/edo esku-hartzea ondo ateratzeko bitarteko guztiak balia ditzaten.
- Komunikazio-bitartekotzaren eta esku-hartze sozialaren esparruan diharduten ikasgelaz kanpoko profesionalek parte hartzea, ikasleei egungo egoeraren berri eman diezaieten era interaktiboan.
- Ikasleak binaka jarriko dira, eta bikotekide desberdinak izango dituzte kurtsoan zehar, hainbat ikaskideren lana aztertzeko eta, aldi berean, hainbat ikaskidek bere lana aztertzeko. Horrela, bitartekotzan beharrezkoak diren komunikazio-trebetasunak sendotzen lagunduko diote elkarri.
- Komunikazio-bitartekotzako zerbitzuen proiektuak ezarri diren lantokiak bisitatzea, baita halakorik ezarri ez eta horren premia dutenak ere.

## 9. lanbide- modulua

# KOMUNIKAZIO-SISTEMA HANDIGARRIAK ETA ALTERNATIBOAK

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak** |
| Kodea: | 0343 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 132 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Kreditu kop.: | 10 |
| Irakasleen espezialitatea: | Gizartearentzako zerbitzuak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)<br>Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak finkatzea, egokitzea eta aplikatzea. |
| Helburu orokorrak: | 2 / 3 / 4 / 5 / 6 / 10 / 11 / 12 / 20 / 22 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Erabiltzailearen komunikazio-premiak hautematen ditu, komunikazio-sistema handigarriekin eta alternatiboekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erabiltzailearen komunikazio-beharrak identifikatu ditu.
b) Komunikazio-prozesua errazten duten bitartekoak identifikatu ditu.
c) Komunikazioak pertsonen eguneroko jardunean duen eragina aztertu du.
d) Komunikazio-sistema bat edo bestea hautatzea eragiten duten alderdiak deskribatu ditu, erabiltzailearen ezaugarri motorren, kognitiboen eta jarrerazkoen arabera.
e) Elkarreragin motak eta komunikazioa ezartzeko baldintza onenak aztertu ditu.
f) Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak zuzen erabiltzea oztopatu dezaketen kanpo-elementuak identifikatu ditu.
g) Familiaren eta ingurukoen inplikazioa sustatzeko estrategiak aplikatu ditu komunikazio-sistema handigarrien eta alternatiboen bidez esku hartzean.
h) Zaintzaileei eskainitako informazio eta orientabide nagusiak aztertu ditu, ezarritako komunikazio-portaerak orokortzea erraztuz.

2. Komunikazioa indartzeko esku-hartzea antolatzen du, erabiltzailearen eta ingurunearen ezaugarriak interpretatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Esku-hartzeetan komunikazioak duen garrantzia nabarmendu du.
b) Helburuak zehaztu ditu, erabiltzailearen beharren arabera.
c) Esku-hartzea egingo den ingurunearen komunikazio-ingurunea aztertu du.
d) Esku-hartze proposamenetarako estrategiak eta komunikazio-metodologiak hautatu ditu.
e) Esku-hartze prozedura egokiak identifikatu ditu.
f) Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak hautatu ditu, aurreikusitako helburuen arabera. Laguntza tekniko egokiak identifikatu ditu.
g) Komunikaziorako laguntzaren esparruko esku-hartzea antolatzearen garrantzia nabarmendu du.

3. Esku-hartze programak aplikatzen ditu komunikazioaren esparruan, sistema handigarri eta alternatibo lagunduak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Laguntza bidezko komunikazio-sistema alternatibo nagusien oinarrizko erabilerak eta ezaugarriak deskribatu ditu.
b) Mezuak sortu ditu lagundutako komunikazio-sistemen bidez, erabiltzaileari bideratutako komunikazioa eta arreta erraztuz.
c) Arreta sozioedukatiboan ohikoak diren egoeretan erabilitako zeinu nagusiak deskribatu ditu.
d) Laguntza bidezko komunikazio-sistemen bitartez adierazitako mezuak ulertu ditu.
e) Beharrezkoak diren doikuntzak egin ditu, erabiltzaileen bereizgarrien arabera.
f) Bereizitako kasu praktikoetan aplika daitezkeen laguntza teknikoak identifikatu ditu, hala nola bete beharreko kokapen- eta erabilera-betekizunak.
g) Komunikazio-estrategiak aplikatu ditu, hainbat ingurune aztertuta.
h) Sinboloen eta piktogramen kopurua areagotzearen garrantzia aztertu du, erabiltzailearen interesen eta beharren arabera.
i) Hirugarrenek parte hartzea beharrezkoa den sistemak zuzen erabiltzen diren egiaztatu du.

4. Esku-hartze programak aplikatzen ditu komunikazioaren esparruan, zeinu-mintzaira eta laguntza gabeko sistema handigarri eta alternatiboak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Laguntza gabeko sistema alternatiboen oinarrizko egiturak eta arreta sozioedukatiboko ohiko egoeretan erabilitako zeinu nagusiak deskribatu ditu.
b) Mezuak sortu ditu laguntza gabeko komunikazio-sistemen eta zeinu-mintzairaren bidez, erabiltzaileari komunikazioa eta arreta eskainiz.
c) Beharrezkoak diren doikuntzak aplikatu ditu, erabiltzaileen bereizgarrien arabera.
d) Zeinu-mintzairaren eta laguntzarik gabeko komunikazio-sistemen bitartez adierazitako mezuak ulertu ditu.
e) Komunikazio-estrategiak aplikatu ditu, hainbat komunikazio-ingurune aztertuta.
f) Zeinuen kopurua eta horien edukia handitzearen garrantzia aztertu du, erabiltzailearen interesen eta beharren arabera.
g) Hirugarrenek parte hartzea beharrezkoa den sistemak zuzen erabiltzen diren egiaztatu du.

5. Esku-hartzearen eraginkortasuna egiaztatu du, komunikazioaren esparruan hobetu daitezkeen alderdiak hautemanda.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erabiltzaileak komunikazio-sistema nagusietan duen gaitasun komunikatiboaren maila erregistratu du.
b) Hautatutako komunikazio-sistema osatzen duten elementuen erabilera zuzena egiaztatu du.
c) Komunikazioan esku hartzea oztopatu dezaketen aplikatutako komunikazio-sistemaz bestelako elementuak erregistratu ditu.
d) Erabiltzailearen eta ezarritako komunikazio-sistemaren arteko bat ez etortzeak identifikatu ditu.
e) Ezarritako helburuen betetze-maila aztertu du.
f) Komunikazio-erregistroak egitearen garrantzia nabarmendu du, erabiltzailearen gaitasun komunikatiboa ebaluatzeko bitarteko gisa.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. ERABILTZAILEEN KOMUNIKAZIO-BEHARRAK HAUTEMATEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Komunikazio handigarria eta alternatiboa egiteko hautagaiak identifikatzea.<br>- Beharrak aztertzea.<br>- Erabilera-aukerak identifikatzea.<br>- Komunikazio-sistemen sailkapena. |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazio handigarria eta alternatiboa.<br>- Lagundutako eta laguntza gabeko komunikazioa. |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-disfuntzioak hautemateko zorroztasuna.<br>- Esku-hartze prozesua aztertzea.<br>- Komunikazioak pertsonen eguneroko jardunean duen eragina aztertzea. |

| 2. ESKU-HARTZEA ANTOLATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Baliabideak eta jarduerak antolatzea.<br>- Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak irakasteko estrategiak erabiltzea.<br>- Errutinak ezartzea.<br>- Ingurune adierazgarriak ezartzea. |
| kontzeptuzkoak | - Esku-hartze estrategiak.<br>- Komunikazio-sistema alternatibo eta handigarri nagusiak.<br>- Komunikazioan esku hartzeko proiektuak.<br>- Komunikazioa sustatzeko berariazko programak. |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-disfuntzioak hautemateko zorroztasuna.<br>- Esku-hartzea antolatu beharra aztertzea.<br>- Komunikazio-erregistroak egitearen garrantzia nabarmentzea, gaitasun komunikatiboa ebaluatzeko bitarteko gisa. |

| 3. LAGUNDUTAKO KOMUNIKAZIO-SISTEMA ALTERNATIBOAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Bliss sistema erabiltzea.<br>- SPC sistema erabiltzea.<br>- Bestelako lagundutako komunikazio-sistema ez estandarizatuak erabiltzea.<br>- Komunikaziorako sinbolo motak sailkatzea. |
| kontzeptuzkoak | - Informazioa eskuratzeko kodeak.<br>- Teknologia-maila altuko eta baxuko laguntzak. |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-disfuntzioak hautemateko zorroztasuna.<br>- Laguntza bidezko komunikazio-sistema baloratzea.<br>- Adeitasuna eta errespetua artatutako pertsonarekiko tratuan. |

| 4. LAGUNTZA GABEKO KOMUNIKAZIO-SISTEMAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Zeinu-mintzaira erabiltzea.<br>- Sistema bimodala erabiltzea.<br>- Laguntza gabeko beste komunikazio-sistema batzuk erabiltzea.<br>- Komunikazio-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea.<br>- Gaitasun komunikatiboen erregistro-sistemak sailkatzea, ebaluatu beharreko elementuen arabera. |
| kontzeptuzkoak | - Gaitasun komunikatiboen erregistroetako adierazle esanguratsuak.<br>- Komunikazio-sistemaren doikuntza edo aldaketa zehazten duten irizpideak. |
| jarrerazkoak | - Komunikazio-disfuntzioak hautemateko zorroztasuna.<br>- Laguntza gabeko komunikazio-sistemak aztertzea.<br>- Adeitasuna eta errespetua artatutako pertsonarekiko tratuan. |

| 5. KOMUNIKAZIO-SISTEMAREN ERAGINKORTASUNA EGIAZTATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Gaitasun komunikatiboen adierazleak ebaluatzea.<br>- Ebaluazio-sistemak martxan jartzea. |
| kontzeptuzkoak | - Gaitasun komunikatiboen erregistroak.<br>- Komunikazio-sistemak. Doikuntza edo aldaketa zehazten duten irizpideak. |
| jarrerazkoak | - Ebaluazioan objektibotasuna baloratzea.<br>- Esku-hartze sozialeko proiektuak ebaluatzearen garrantzia nabarmentzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZA

## 1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komeni da ikasleak ezagutzea zein komunikazio-behar dituzten esku-hartzearen subjektuek. Hala, hasieran, komunikazio-sistemen sailkapenari buruzko edukiak landuko dira: komunikazio handigarria eta alternatiboa eta komunikazio lagundua eta laguntza gabekoa. Era berean, komunikazio handigarriaren eta alternatiboaren hautagaiak identifikatu eta horien komunikazio-beharrak aztertuko dira.

Ondoren, lehen fasean landutako komunikazio-beharren ondorioz, komeni da hautemandako beharretatik eratorritako esku-hartzearen antolaketa lantzea. Horrenbestez, komunikazioan esku hartzeko proiektuen osaera landuko dute, hala nola komunikazioa areagotzeko berariazko programak: esku hartzeko estrategien eta komunikazio-sistema handigarrien eta alternatiboen deskribapena eta errutinen eta ingurune adierazgarrien ezarpena.

Esku-hartzea proposatu eta antolatu ondoren, ikasleak komunikazio-sistema alternatibo lagunduak eta laguntza gabekoak aplikatzea egoki da. Hasteko, komunikazio-sistema alternatibo lagunduen aplikazioa landuko dute. Tartean, komunikaziorako sinbolo motak eta informazioan sartzeko kodeak, teknologia-maila altuko eta baxuko laguntzak, sinboloak hautatzeko prozedura, Bliss sistema, SPC sistema eta estandarizatu gabeko beste sistema lagundu batzuk erabiltzea eta komunikazio-sistema lagunduak aztertzea.

Azkenik, ikasleak laguntza gabeko komunikazio-sistema alternatiboak aplikatzea egoki da. Hortik aurrerakoan, honako edukiak landuko dira: gaitasun komunikatiboak erregistratzeko adierazle adierazgarriak; komunikazio-gaitasunak erregistratzeko sistemak, ebaluatu beharreko elementuen arabera; komunikazio-sistema doitzeko edo aldatzeko irizpideak; sistema bimodala erabiltzea eta laguntza gabeko beste komunikazio-sistema ez orokortu batzuk erabiltzea.

## 2) Alderdi metodologikoak

Lehenik, irakasleak moduluaren edukiak aurkeztea eta garatzea komeni da, eta ikasleen inplikazioa bilatzea, landutako edukiak ariketa praktikoetan txertatzeko.

Ondoren, ikasleek parte-hartze handiagoa izatea bultzatuko da; komunikazioa sustatzeko proiektu eta programa espezifikoen diseinuan inplikatuko dira talde-lanaren bitartez. Ikasleen talde-lana gidatu dezake irakasleak, eduki jakin batzuk azalduz edo material jakin batzuk zein informazio-iturrietarako sarbidea eskainiz.

Esku-hartze proiektuak gauzatu ondoren, ikasleak gai izan behar dira komunikazio-sistema alternatibo lagunduak eta laguntza gabekoak aplikatzeko. Ikasleak gaitzeko, interesgarria da jardun profesionalean topatuko dituzten komunikazio-zailtasunen antzekoak dituzten pertsonen eta/edo kolektiboen kasuak eta egoerak lantzea. Kasu edo egoera horiek egoki ebazteko, fase horretan ezarritako edukiak aplikatu behar dira.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ KSHA bidez esku hartzea errazteko estrategiak diseinatzea:
  - Informazioa biltzeko estrategiak diseinatzea.
  - Bildutako informazioa ebaluatzeko estrategiak diseinatzea.
  - Zeinuak ulertzera bideratutako irakaskuntza-estrategiak diseinatzea.
  - Zeinuak erabiltzera bideratutako irakaskuntza-estrategiak diseinatzea.
  - Elkarreragite-estrategiak diseinatzea.

✓ Komunikazio-sistema handigarri eta alternatibo grafikoak ezartzea:
- Komunikazio-sistema handigarri eta alternatibo (KSHA) grafikoak identifikatzea.
- KSHA grafikoak sailkatzea.
- Sinbolo piktografikoak ezagutzea.
- Komunikazio-taulen, -plafoien eta -koadernoen ezaugarriak deskribatzea.
- Komunikazio-taula grafikoak egitea.

✓ Mezuak sortzea, sistema daktilologikoa erabilita:
- Sistemari buruzko informazioa bilatzea.
- Kodea identifikatzea.
- Mezuak hautatzea.
- Mezuak kodetzea.

# 10. lanbide- modulua
# GIZARTE-TREBETASUNAK



## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Gizarte-trebetasunak** |
| Kodea: | 0017 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 132 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Kreditu kop.: | 6 |
| Irakasleen espezialitatea: | Interbentzio soziokomunitarioa (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Tituluaren profilari lotutako modulua. |
| Helburu orokorrak: | 15 / 17 / 19 / 20 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ingurunearekiko komunikazioa eta harreman sozialak errazteko estrategiak eta teknikak ezartzen ditu, eta adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioak deskribatu ditu.
b) Gizarte-trebetasunek lan-jardunean duten garrantzia balioetsi du.
c) Komunikazio-prozesu batean etapa guztiak ezaugarritu ditu.
d) Komunikazio-estiloak, eta horien abantailak eta mugak identifikatu ditu.
e) Pertsonen arteko harremanetan hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa erabiltzeak duen garrantzia baloratu du.
f) Zereginak esleitzeko, jarraibideak jasotzeko eta ideiak eta informazioa trukatzeko komunikazio eraginkorra ezarri du.
g) Egoeraren arabera gizarte-trebetasun egokiak erabili ditu, kultura-aniztasuna aintzat hartuta.
h) Pertsonak ez epaitzeko eta haien bereizgarri pertsonalak (hala nola emozioak, sentimenduak, nortasuna…) errespetatzeko interesa agertu du.
i) Aldaketaren eta gertatzen den guztitik ikastearen aldeko jarrera agertu du.
j) Autokritikak eta autoebaluazioak pertsonen arteko harremanetako eta komunikazioko trebetasun egokiak garatzeko duten garrantzia balioetsi du.

2. Taldearen lana dinamizatzen du, teknika egokiak aplikatuta, eta teknika horien hautaketa justifikatzen du taldearen ezaugarrien, egoeraren eta helburuen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Talde baten funtsezko elementuak, egitura, dinamika eta horiek alda ditzaketen faktoreak deskribatu ditu.
b) Taldeen dinamizazio- eta funtzionamendu-teknikak analizatu eta aukeratu ditu.
c) Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak azaldu ditu.
d) Talde batean ager daitezkeen rolak eta beren arteko loturak bereizi ditu.
e) Taldeko komunikazioaren oztopo nagusiak identifikatu ditu.
f) Hainbat jardun-estrategia planteatu ditu, gidaritzak eta rolek taldearen egituran eta funtzionamenduan duten eginkizunaz baliatzeko.
g) Talde-laneko prozedura gisa zereginen banaketa zehaztu du.
h) Taldearen konfiantza bereganatzeko jarrera jasanbera eta enpatia izatearen garrantzia balioetsi du.
i) Lankidetzako lan-giro lasaia lortu du.
j) Norberarena ez bezalako iritziak eta taldearen erabakiak errespetatu ditu.

3. Bilerak bideratzen ditu, eta esku hartzeko eta antolatzeko moduak edo estiloak aztertzen ditu, hartzaileen ezaugarriak eta testuingurua kontuan izanda.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bileren motak eta funtzioak deskribatu ditu.
b) Bilera bat garatzeko etapak deskribatu ditu.
c) Bilerak moderatzeko teknikak aplikatu ditu, bai eta horiek justifikatu ere.
d) Ideiak argi eta labur adierazteko gaitasunaren garrantzia egiaztatu du.
e) Bilera baten arrisku-faktoreak eta litezkeen oztopatzeak deskribatu ditu, eta horiek ebazteko estrategiak justifikatu ditu.
f) Bileren deialdia egitean informazio ona eta zabala ematearen beharra baloratu du.
g) Bileretan parte hartzea lortzeko, motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantzia deskribatu du.
h) Bilera baten informazioa biltzeko eta emaitzak ebaluatzeko teknikak aplikatu ditu.
i) Bilerak zuzentzean, errespetuz eta tolerantziaz aritu da.

4. Gatazkak kudeatzeko eta arazoak konpontzeko estrategiak ezartzen ditu, estrategia horiek testuinguruaren arabera hautatuta eta eskura dauden ereduak analizatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Taldeko arazo eta gatazken iturri nagusiak aztertu eta identifikatu ditu.
b) Gatazkak kudeatzeko teknika eta estrategia nagusiak deskribatu ditu.
c) Arazoen irtenbideak bilatzeko eta ebazteko estrategiarik egokienak identifikatu eta deskribatu ditu.
d) Erabakiak hartzeko prozesuaren fase guztiak deskribatu ditu.
e) Arazoak eta gatazkak ebazteko, kasu bakoitzerako prozedura egokiak aplikatu ditu.
f) Arazo eta gatazketarako litezkeen konponbideei dagokienez, besteen iritziak errespetatu ditu.
g) Bitartekaritza- eta negoziazio-teknikak behar bezala aplikatu ditu.
h) Erabakiak hartzeko prozesuan, pertsonak (erabiltzaileak) kontuan hartu ditu, haien adina nahiz egoera fisikoa eta mentala edozein izanik ere.
i) Erabakiak hartzeko zeregina eta prozesuaren autoebaluazioa planifikatu ditu.
j) Erabakiak hartzeko unean komunikazio-trukeak duen garrantzia balioetsi du.

5. Talde-prozesuak eta lanbide-funtzioak garatzeko hark duen gizarte-konpetentzia ebaluatzen ditu, hobe daitezkeen alderdiak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
b) Gizarte-ikerketako teknikak eta teknika soziometrikoak aplikatu ditu.
c) Profesionalaren abiapuntuko egoera pertsonalari eta sozialari buruzko autoebaluazioa egin du.
d) Informazioa biltzeko tresnak diseinatu ditu.
e) Datuak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu.
f) Bildutako datuak interpretatu ditu.
g) Hobetu beharra duten egoerak identifikatu ditu.
h) Hobekuntzan bete beharreko jarraibideak ezarri ditu.
i) Profesionalak gauzatutako prozesuaren amaierako autoebaluazioa egin du.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. GIZARTE-HARREMANAK ETA KOMUNIKAZIOA LAGUNTZEN DUTEN ESTRATEGIAK ETA TEKNIKAK EZARTZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Komunikazioaren eta bizi-kalitatearen arteko harremana aztertzea jardun-esparruetan.<br>- Komunikazioaren eta gizarte-harremanen printzipioen eta adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioen arteko lotura.<br>- Zereginak esleitzeko, jarraibideak jasotzeko eta ideiak edo informazioa trukatzeko komunikazio eraginkorra ezartzea.<br>- Komunikazio enpatiko eta asertiboa ezartzea.<br>- Egoeran egoerako gizarte-trebetasun erabiltzea. |
| kontzeptuzkoak | - Gizarte-trebetasunak eta horiei loturiko kontzeptuak.<br>- Komunikazio-prozesua. Etapak. Ahozko komunikazioa, ez ahozkoa eta paralinguistikoa.<br>- Komunikazioaren erraztaileak eta oztopoak.<br>- Testuinguruaren balorazio komunikatiboa: erraztaileak eta hesiak/oztopoak komunikazioan.<br>- Adimen emozionala. Emozioak eta sentimenduak.<br>- Hezkuntza emozionala.<br>- Adimen soziala.<br>- Defentsa-mekanismoak.<br>- Komunikaziorako eta gizarte-trebetasunerako programak eta teknikak.<br>- Komunikazio-estiloak: estilo erasokorra, estilo inhibitu/pasiboa, estilo asertiboa.<br>- Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikariaren eta antzeko profilen printzipio deontologikoak. |
| jarrerazkoak | - Gizarte-trebetasunek lan-jardunean duten garrantzia balioestea.<br>- Pertsonarteko harremanetan ahozko komunikazioa, ez ahozkoa eta paralinguistikoa egoki erabiltzearen garrantzia nabarmentzea..<br>- Pertsonen bereizgarriak errespetatzea eta ez epaitzea: emozioak, sentimenduak, nortasuna, etab.<br>- Aldaketaren eta gertatzen den guztitik ikastearen aldeko jarrera agertzea.<br>- Autokritikak eta autoebaluazioak pertsonen arteko harremanetako trebetasun eta komunikazio egokien garapenean duten garrantzia |

| | |
|---|---|
| | balioestea. |

| 2. TALDE-LANA DINAMIZATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Taldeen egitura eta prozesuak aztertzea.<br>- Talde-egitura eta -dinamika eraldatu dezaketen faktoreak identifikatzea.<br>- Talde-dinamizaziorako teknika eta tresna egokiak aplikatzea.<br>- Talde-dinamizazioko tekniken hautaketa arrazoitzea, taldearen ezaugarrien, egoeraren eta helburuen arabera.<br>- Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak aztertzea.<br>- Askotariko jarduteko estrategiak aplikatzea, lidergo-funtzioa eta egiturako eta talde-funtzionamenduko rol positiboak aprobetxatu eta negatiboak neutralizatzeko edo zuzentzeko.<br>- Lan-giro lasaia eta lankidetzakoa lortzea.<br>- Talde-konfiantza eta -kohesio egokia lortzeko teknikak eta dinamikak aplikatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Taldea: motak eta ezaugarriak. Taldearen egitura eta dinamika. Talde-garapena.<br>- Taldeen arteko komunikazioa. Komunikazio-estiloak. Hitzezko eta keinuzko komunikazioa. Bestelako hizkuntzak: ikonikoa, ikus-entzunezkoa, IKTak. Oztopoak.<br>- Taldeak aztertzeko teknikak.<br>- Taldea dinamizatzeko teknikak.<br>- Lankidetza eta lehia taldeetan.<br>- Talde-dinamikak. Talde-dinamikei aplikatutako oinarri psikosoziologikoak.<br>- Lantaldea. Elkarlanerako estrategiak. Zereginen antolaketa eta banaketa.<br>- Bakarlana eta talde-lana.<br>- Talde-rolak: rol positiboak eta negatiboak. Rol positiboak indartzeko eta negatiboak neutralizatzeko edo zuzentzeko jarduteko estrategiak.<br>- Konfiantza eta kohesioa taldean. |
| | |
| jarrerazkoak | - Subjektuaren garapen osoan komunikazioak duen garrantzia baloratzea.<br>- Talde-dinamikan motibazioak duen eginkizuna baloratzea.<br>- Talde-lanean banakoen arteko desberdintasunak errespetatzea.<br>- Taldearen konfiantza lortzeko jarrera tolerante eta enpatikoak duen garrantzia balioestea. |

| 3. BILERAK ZUZENTZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Bilerako parte-hartzaile motak identifikatzea.<br>- Bilerak moderatzeko eta dinamizatzeko teknikak modu arrazoituan aplikatzea, parte-hartzaileen eta ingurunearen ezaugarrien arabera.<br>- Bileran sor daitezkeen gatazkak ebazteko estrategiak modu arrazoituan aplikatzea.<br>- Bilera bati buruzko informazioa biltzeko eta haren emaitzak ebaluatzeko teknikak aplikatzea.<br>- Talde baten portaeran eragina duten faktoreak aztertzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Bilera talde-lan gisa. |

| | |
|---|---|
| | - Bilera motak eta horien eginkizunak.<br>- Bilera baten garapen-etapak.<br>- Bilerak dinamizatzeko eta moderatzeko teknikak.<br>- Bilera bateko arrisku-faktoreak. Balizko gatazkak. Ebazpen-estrategiak.<br>- Bilera bati buruzko informazioa biltzeko eta haren emaitzak ebaluatzeko teknikak. |
| jarrerazkoak | - Ideiak argi eta labur adierazteko gaitasunaren garrantzia balioestea.<br>- Bilera-deialdietan informazio egokia eta zehatza emateko beharra balioestea.<br>- Bileretan parte-hartzea lortzeko, motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantziaz jabetzea.<br>- Bilerak begirunez eta tolerantziaz gidatzea. |

| 4. GATAZKAK KUDEATZEKO ETA ERABAKIAK HARTZEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Taldeko gatazkak ebazteko teknika eta estrategia egokiak aplikatzea.<br>- Bitartekaritza- eta negoziazio-teknikak egoki aplikatzea.<br>- Erabakiak hartzeko prozesua planifikatzea eta horren autoebaluazioa egitea. |
| kontzeptuzkoak | - Gatazka: kontzeptua, ezaugarriak eta motak.<br>- Taldeko arazoak eta gatazkak. Gatazka-iturri nagusiak.<br>- Gatazkak ebazteko teknikak eta estrategiak.<br>- Erabakiak hartzeko prozesua. Faseak. Prozesua planifikatzea eta ebaluatzea.<br>- Taldeko gatazkak kudeatzea.<br>- Negoziazioa eta bitartekotza. Negoziazio- eta bitartekotza-teknikak. |
| jarrerazkoak | - Gatazka baloratzea talde-dinamiketan garapena errazten duen elementu positibotzat.<br>- Arazoak eta gatazkak ebazteko garaian errespetuaren eta tolerantziaren eginkizuna baloratzea.<br>- Erabakiak hartzeko unean komunikatzeak eta informazioa trukatzeak duen garrantzia balioestea. |

| 5. GIZARTE-KONPETENTZIA ETA TALDE-PROZESUAK EBALUATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Taldeak aztertzeko estrategiak eta tresnak aztertzea.<br>- Informazioa biltzeko tresnak diseinatzea.<br>- Talde-lanean teknika soziometrikoak eta gizarte-ikerketakoak aplikatzea.<br>- Lortutako emaitzak interpretatzea.<br>- Hobekuntza-jarraibide egokiak ezartzea, lortutako emaitzen arabera.<br>- Profesionalaren hasierako, prozesuan zeharreko eta amaierako egoera pertsonalaren eta sozialaren autoebaluazioa, hobetu daitezkeen alderdiak identifikatuta. |
| kontzeptuzkoak | - Gizarte-konpetentziaren ebaluazioa.<br>- Taldeen egituraren eta prozesuen ebaluazioa.<br>- Gizarte-ikerketako teknikak.<br>- Oinarrizko soziometrikoa. |

| | |
|---|---|
| | - Datu-bilketa.<br>- Informazioa biltzeko tresnak. Tresnak diseinatzea.<br>- Emaitzak aztertzea eta interpretatzea.<br>- Balizko hobekuntza-jarraibideak ezartzea, lortutako emaitzen arabera.<br>- Haur-hezitzaileen hasierako prestakuntzaren azterketa eta prozesua, eta lanbide-bizitzan zeharrekoa. |
| | |
| jarrerazkoak | - Konpetentzia soziala hobetzeko estrategia gisa autoebaluazioa baloratzea.<br>- Talde-ebaluazioa balioestea taldeen hobekuntza- eta garapen-estrategia gisa.<br>- Konfidentzialtasuna datuen tratamenduan. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

### 1) Sekuentziazioa

Irakatsiko den lehenengo blokea «**Gizarte-harremanak eta komunikazioa laguntzen duten estrategiak eta teknikak ezartzea**» izango da. Bertan, besteak beste, gizarte-trebetasunei, komunikazioari, eta adimen emozional eta sozialari buruzko hainbat kontzeptu eta prozedura zehaztu eta aztertuko dira.

Ostean, *«Talde-lana dinamizatzea»* eta *«Bilerak zuzentzea»* blokeak landuko dira, zeinetan irakatsi eta ikasteko prozesuak aztertu eta abian jarriko baitira, honako hauen inguruan, esaterako: komunikazio-teknikak, talde-dinamikak, taldeak dinamizatzeko estrategiak, bilera motak, etapak, bilera baten informazioa biltzeko eta emaitzak lortzeko teknikak, eta abar.

Bloke horien ondoren, gatazkak ebatzi eta kudeatzeko gai honetan bilduko da arreta: *«Gatazkak kudeatzeko eta erabakiak hartzeko estrategiak ezartzea»*. Bertan, talde-arazoak eta -gatazkak, gatazken iturri nagusiak, arazoak ebazteko teknikak eta estrategiak eta abar aztertuko dira.

Alderdi horiek guztiak jorratutakoan, «Gizarte-konpetentzia eta talde-prozesuak ebaluatzea» blokea irakatsiko da. Oinarrizko soziometria-teknikak landuko dira, konpetentzia soziala ebaluatzeko, hala nola ikerketa-teknikak, emaitzak aztertu eta interpretatzekoak, etab.

### 2) Alderdi metodologikoak

Lanbide-modulu honek barne hartutako prestakuntzaren bidez, ikasleek beharrezko gizarte-trebetasunak eskuratuko dituzte, laguntza-lanbidea garatu eta beste pertsona batzuekiko lanbide-harremanetan behar bezala jardun ahal izateko, euren portaera harreman horien ezaugarrietara eta testuingurura egokituta.

Modulua prozedurazkoa eta jarrerazkoa da funtsean, eta jarduera praktikoak eta dinamikoak dira protagonistak.

Behar-beharrezkoa da gizarte-trebetasunei buruzko kontzeptuzko alderdiak ezagutu, aztertu, ulertu eta horien inguruan hausnartzea, baina garrantzitsuena horiek guztiak barneratzea da. Gizarte-trebetasunak arituz ikasi eta eskuratzen dira, horietan trebatuz.

Horretarako, hainbat partaidetza-metodo jarriko dira praktikan, esaterako:

- Jarraibideetan oinarritutako eredua eta informazio kontzeptuala: hitzezko zein keinuzko jarraibideak eta taldeko solasaldia edota eztabaida, garatu beharreko trebetasunaren inguruan.
- Modelatzea eta imitazioa: behaketaren bidez ikastean datza. Hala, ikasleek trebatu nahi den trebetasuna edo portaera behar bezala erakusten duten ereduak ikusiko dituzte.
- *Role-playing* edo antzezpena (portaera-proba): taldeko dramatizazio-teknika horrek portaerak eta jarrerak aldatu zein eskuratzen laguntzen du.
- Askotariko talde-dinamikak (lankidetza-jarduerak, gatazkak ebaztea, komunikazio-jarduerak, etab.), parte-hartzea eta ondoren taldean gogoeta egitea beharrezkoa direnak.

Jarduera gehienak taldekoak izango dira, eta talde-lana izango da nagusi (talde txikiak edo handiak). Nolanahi ere, bakarkako jarduerak ere egingo dira, hausnarketa-jarduerak eta gizarte-konpetentzien autoebaluazioa egitekoak kasu.

Irakasleak ikasleen arteko lankidetza eta moduluaren inguruko motibazioa bultzatu beharko ditu, bai eta lan-arloan, lanbide-jardunean eta orokorrean, gure bizitzan gizarte-trebetasunek dituzten balioak eta garrantzia balioesteko jarrerak helarazi ere.

Era berean, gizarte-trebetasunak eta pertsonen arteko harremanetakoak baloratu eta saritzen diren testuinguruak ere sustatuko ditu; era horretan, trebetasun horiek eskuratu eta praktikan jartzeko interesa piztuko du ikasleengan.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Talde-dinamikak: aurkezpena-ezagutza.
- ✓ Horma-irudi edo collage bat egitea talde txikitan, gizarte-trebetasunen adibideen mapa kontzeptuala irudikatuz.
- ✓ Emozioei buruzko horma-irudi edo collage bat egitea.
- ✓ Komunikazio-estiloei buruzko *role-playinga*.
- ✓ Komunikazio-erraztaileei/-oztopoei buruzko role-playinga (moldatzeko teknika erabili daiteke komunikazio-erraztaileak lantzeko).
- ✓ Lankidetzako talde-dinamikak.
- ✓ Talde-lanari eta talde-rolei buruzko talde-dinamikak.
- ✓ Gatazken ebazpenari eta talde-rolei buruzko talde-dinamikak.
- ✓ Taldeko kohesio eta konfiantzari buruzko talde-dinamikak.
- ✓ Talde txikitan, taldea dinamizatzeko hainbat teknika diseinatzea, ostean praktikan jartzeko.
- ✓ Talde-lanaren eta bakarkako lanaren abantailei eta desabantailei buruzko *brainsterminga*.
- ✓ Lan-bilera bati buruzko *role-playinga*.
- ✓ Gatazken ebazpenari buruzko dinamikak.
- ✓ Bitartekotza- eta negoziazio-teknikak *role-playing* bidez antzeztea.
- ✓ Teknika soziometrikoak aplikatzea.
- ✓ Gizarte-konpetentziaren autoebaluazioa.

# 11. lanbide- modulua
# LEHEN LAGUNTZAK

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Lehen laguntzak** |
| Kodea: | 0020 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 60 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Kreditu kop.: | 3 |
| Irakasleen espezialitatea: | Prozedura sanitario eta asistentzialak<br>Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)<br>Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Tituluaren profilari lotutako modulua. |
| Helburu orokorrak: | 14 / 21 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Larrialdi bateko laguntzaren hasierako balorazioa egiten du, eta arriskuak, eskura dauden bitartekoak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Eremua prozedura egokiaren arabera babestu du.
b) Istripua izan duten pertsonak manipulatzean norbera babesteko erabili beharreko teknikak identifikatu ditu.
c) Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia, eta produktuen eta sendagaien oharrak deskribatu ditu.
d) Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak ezarri ditu.
e) Aire-bideen iragazkortasuna egiaztatzeko prozedurak deskribatu ditu.
f) Aireztatzeko/oxigenatzeko funtzionamendu-baldintza egokiak identifikatu ditu.
g) Odoljariorik izanez gero jarduteko prozedurak deskribatu eta gauzatu ditu.
h) Konorte-maila egiaztatzeko prozedurak deskribatu ditu.
i) Bizi-konstanteak hartu ditu.
j) Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) xedatutako protokoloaren arabera identifikatzea jardun-sekuentzia.

2. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatu ditu.
b) Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatu ditu.
c) Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatu ditu.
d) Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDE) egin du.
e) Bizkortze ondoko neurriak aplikatu ditu.
f) Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adierazi ditu.
g) Istripua izan duenaren lehen eta bigarren mailako balorazioa deskribatu du.
h) Agente fisikoen, kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioen aurrean, lehen laguntzak aplikatu ditu.
i) Premiazko patologia organikoen aurrean, lehen laguntzak aplikatu ditu.
j) Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztu du.

3. Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu, eta, horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Biktimarengana hurbiltzeko beharrezko maniobrak egin ditu.
b) Immobilizatu eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatu ditu.
c) Pertsona lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritu ditu.
d) Mobilizazio eta lekualdatze desegokiaren ondorioak deskribatu ditu.
e) Gaixorik dauden pertsonak edo istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatu ditu, material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz halabeharrezko baliabideekin.
f) Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatu ditu.

4. Istripua izan duenari eta laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolekoa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Istripua izan duen pertsonarekin eta laguntzaileekin komunikatzeko oinarrizko estrategiak deskribatu ditu.
b) Istripua izan duen pertsonaren behar psikologikoak hauteman ditu.
c) Istripua izan duen pertsonaren egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoko oinarrizko teknikak aplikatu ditu.
d) Istripua izan duenari jardun osoan zehar konfiantza eta baikortasuna emateak duen garrantzia nabarmendu du.
e) Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.
f) Dolu, antsietate, larritasun edo oldarkortasuneko egoera kontrolatzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
g) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
h) Estres-egoeretan norbera kontrolatzearen garrantzia baloratu du.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. LARRIALDIETAKO LAGUNTZAREN HASIERAKO BALORAZIOA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Esku hartzeko eremua babesteko teknikak aplikatzea. Larrialdietako arreta-zerbitzuetarako sarbideak identifikatzea.<br>- Norbera babesteko teknikak identifikatu eta aplikatzea.<br>- Informazioa emateko teknikak aplikatzea. Berariazko terminologia erabiltzea.<br>- Lesioen larritasuna eta mota kontuan hartuta, jardun-lehentasunak identifikatzea. Bizi-arriskua dakarten egoerak identifikatzea. Oinarrizko triajeak egitea.<br>- Istripua izan duen pertsonaren hasierako baloraziorako teknikak aplikatzea. Aire-bideen iragazkortasuna, aireztapena eta zirkulazioa egiaztatzea. Konorte-maila baloratzea. Bizi-konstanteak hartzea.<br>- Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) xedatutako protokoloaren arabera identifikatzea jardun-sekuentzia.<br>- Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko materiala identifikatu eta erabiltzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Larrialdietarako sistemak.<br>- Lehen laguntzak. Helburuak eta mugak. BAS jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta laguntza-sistemak).<br>- Istripuak. Motak eta ondorioak.<br>- Eremua babesteko sistema. Metodoak eta materialak.<br>- Terminologia mediko sanitarioa lehen laguntzetan. Informazioa emateko protokoloak.<br>- Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak. Triaje sinpleko metodoak.<br>- Istripua izan duen pertsona baloratzeko teknikak. Bizi-arriskuaren zantzuak helduengan, haurrengan eta bularreko umeengan. Larrialdi-zantzuak eta -sintomak.<br>- Miaketa egiteko protokoloak. Konorte-maila baloratzeko sistemak. Bizi-konstanteak hartzea.<br>- Lehen esku-hartzailearen jarduna. Lege-esparrua, erantzukizunak eta etika profesionala.<br>- Norberaren babesa eta segurtasuna esku-hartzean. Arriskuak. Neurriak eta ekipoak.<br>- Lehen laguntzetako botikina. Osagaiak, erabilera eta aplikazioak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokoloei zorrotz jarraitzea.<br>- Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa eta baretasuna erakustea.<br>- Bere jardunaren mugez jabetzea. |

| 2. BIZI-EUSKARRIKO TEKNIKAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Bizi-arriskuko egoerak aztertzea.<br>- Bizi-seinaleen presentzia identifikatu eta egiaztatzea.<br>- Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea.<br>- Bizi-euskarriko teknikak identifikatzea eta egoera bakoitzerako xedatutako jardun-protokoloekin lotzea.<br>- Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortze-teknikak (BBB) aplikatzea.<br>- Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatzea. |

| | |
|---|---|
| | - Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatzea.<br>- Kanpoko desfibriladore automatikoak erabiltzea.<br>- Bizkortze ondoko neurriak aplikatzea.<br>- Istripua izan duten pertsonen lehen eta bigarren mailako balorazioa egitea.<br>- Lehen laguntzako teknikak aplikatzea honako lesio hauetan: agente fisikoen ondoriozkoak (traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak), agente kimikoen ondoriozkoak, agente biologikoen ondoriozkoak eta premiazko patologia organikoaren ondoriozkoak. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Aire-bideen iragazkortasuna kontrolatzea. Zabaltzeko eta buxadura kentzeko teknikak. Mantentze-lanak.<br>- Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea (BBB). Protokoloak helduekin, bularreko umeekin eta haurrekin.<br>- Kanpoko desfibrilazio automatikoa (KDA). Teknikak. Ekipoen funtzionamendua eta mantentzea. Egoera bereziak. Informazio-prozedurak. Legeria. Ziurtagiria.<br>- Istripua izan duen pertsonaren balorazioa. Bizi-seinaleak. Lehen eta bigarren mailako balorazioa. Zer egoeratan ez den esku hartu behar.<br>- Hasierako arreta agente fisikoen ondoriozko lesioetan (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak).<br>- Hasierako arreta agente kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioetan.<br>- Hasierako arreta premiazko patologia organikoan.<br>- Konortearen asaldurak. Konorterik gabe dauden pertsonak baloratu eta zaintzea.<br>- Krisi konbultsiboak dituzten pertsonak zaintzea. |
| | |
| jarrerazkoak | - Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean.<br>- Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan.<br>- Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa eta baretasuna erakustea.<br>- Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan.<br>- Bere jardunaren mugez jabetzea. |

| 3. IMMOBILIZATZEKO ETA MOBILIZATZEKO PROZEDURAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko teknikak aplikatzea.<br>- Jarrera egokian jartzeko teknikak aplikatzea.<br>- Immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatzea (hala nola ferulak eta ohatilak). |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Immobilizatu, mobilizatu eta garraiatzeko teknikak. Indikazioak. Motak. Materialak. Ohatilak. Ondorioak.<br>- Lekualdatzeko beharra ebaluatzea.<br>- Segurtasun- eta itxarote-jarrerak. Lekualdatzeko jarrerak. Indikazioak.<br>- Segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean.<br>- Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan.<br>- Norbera babesteari eta segurtasunari buruzko arauei zorrotz jarraitzea.<br>- Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta |

| | |
|---|---|
| | lasaitasuna sortzeko interesa eta baretasuna erakustea. |

| 4. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA AUTOKONTROLEKOA EMATEKO TEKNIKAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Komunikazioan jokabide egokienak hautatzea.<br>- Dolu, antsietate, larritasun edo agresibitateko egoerak kontrolatzeko eta horietan laguntza psikologikoa emateko oinarrizko teknikak aplikatzea.<br>- Autokontroleko eta hutsegitea edo adore falta gainditzeko teknikak aplikatzea.<br>- Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Oinarrizko komunikazio-estrategiak. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak.<br>- Lehen esku-hartzailearen erantzun emozionala. Lehen esku-hartzailearen zeregina balioestea. Istripu edo larrialdiko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak. Kontrol-teknikak.<br>- Laguntza psikologikorako oinarrizko teknikak. Istripua izan duen pertsonaren eta haren familiakoen behar psikologikoak. Dolu, larritasun, antsietate, urduritasun edo agresibitateko egoerak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa eta baretasuna erakustea.<br>- Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamena.<br>- Zuhurtzia eta interesa sekretu profesionalari eusteko. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu hau garatzeko, edukien hurrenkera hau gomendatzen dugu:

- Lehen laguntzen helburuak, terminologia, BAS (babestea, abisatzea eta sorostea).
- Lehen esku-hartzailea, haren jardunaren mugak, esparru etikoa, harremanak beste profesional batzuekin...
- Segurtasuna eta autobabesa, arrisku pertsonalak eta prebentzio-neurriak.
- Lehen laguntzetako botikina.
- Istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa, zantzuak eta sintomak, esplorazio-protokoloak, bizi-konstanteei erreparatzea, eta abar.
- Oinarrizko bizi-euskarria aplikatzea, BBB, aire-bideak, desfibriladoreak erabiltzea…
- Mobilizatzeko eta immobilizatzeko teknikak. Segurtasun-jarrerak.
- Lehen laguntzak ematea traumatismoak, zauriak eta odoljarioak daudenean.
- Lehen laguntzak ematea beste egoera batzuetan (adibidez, beste eragile fisikoek, kimikoek edo biologikoek zein patologia organikoak eragindakoak).

– Komunikatzeko zein laguntza psikologikoa eta autokontrolekoa emateko teknikak aplikatzea.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan funtsezkoa da ikasleek ikasitako teknikak larrialdi-egoeretan aplikatzeko gauza izatea; horrenbestez, ezinbestekoa da praktikoki garatzea. Hala, ikasgelan lehen laguntzetako teknikak modu praktikoan aplikatuko dira behar bezalako ezaugarriak dituzten egoeretan.

Egoera horien ezaugarria zehazteko, arlo profesionala har daiteke erreferentziatzat, era horretan gehien gertatzen diren egoerak aurkezteko. Hainbat aldaketa egin daitezke esku hartzen duten pertsonei edota horien adinari edo ezaugarriei, istripuaren tokiari eta abarrei dagokienez. Planteatutako egoerari zein aplikatutako teknikari buruz azterketa eta gogoeta egitea garrantzitsua izango da ikaskuntza horiek orokortzearren.

Eduki teorikoek bigarren mailako funtzioa dute; hortaz, teknikak aplikatzeko beharrezkoak diren neurrian erantsiko dira. Nolanahi ere, bigarren mailako eginkizun hori gorabehera, beharrezkoak dira jarduna ulertzeko eta hobeto gogoratzeko, eta, era horretan, teknikak praktiketan jorratu ez diren beste egoera batzuetan aplikatu ahal izateko eta informazioa helarazi ahal izateko edota larrialdiak koordinatzeko zentro baten jarraibideei jarraitzeko.

Lehen laguntzak emateko egoera batekin lotuta ikasiko dira eta, oro har, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran. Aurkezteko sistemak, azalpenezko metodoak adibidez, eta metodo askoz parte-hartzaileagoak erabil daitezke, hala nola ariketak ebaztea eta eskemak prestatzea, betiere ikasleen parte-hartzea eta jakin-mina lortzeko.

Ikasteko materiala, batetik, lehendik prestatutakoa izan daiteke (apunteak, aldizkariak edo eskulibururen bat), eta beste kasu batzuetan ikasleek beraiek presta dezakete material hori, bibliografia edo aplikazio informatikoak kontsultatuta. Ikasleak ohitu behar dira laneko protokoloak eta jarraibideak erabiltzera, eta horiei behar bezala eta zehaztasunez jarraitzera. Protokolo batzuei dagokienez, azken gomendioei adi egon beharra dago (ILCOR, esaterako), maiz berritzen baitituzte.

Jarduera praktikoak egiteko, honako bitarteko hauek behar dira: lehen laguntzetako manikiak (helduak, umeak eta bularreko umeak), oxigenoterapiako ekipoa, desfibriladorea, norbera babesteko ekipoak, sendatzeko materiala, immobilizatzeko materiala eta mobilizatzeko materiala; eta ikastetxeko hainbat gune erabil daitezke, besteak beste, ikasgelak, patioak, eskailerak edo korridoreak.

Profesionalen edo beste ikaskide batzuen jardunak, irudietan hartuta, azter daitezke; hala, zer osasun-arreta eman duten ikusi ondoren, hobekuntzak proposa daitezke edo interesgarriena nabarmen daiteke.

Ezinezkoa da lehen laguntzak emateko egoera guztiak praktiketan garatzea (adibidez, eragile fisiko, kimiko edo biologiko guztiek zein patologia organikoak eragindakoak). Maiztasunagatik edo larritasunagatik garrantzitsuenak direnak hauta daitezke. Helburua da egoera horietan ikasleei jarduteko gaitasun oinarrizkoenak harraraztea, besteak beste, honakoa hauek: sintoma batzuk antzematea, laguntza ematen hastea, larrialdietako zentro koordinatzailearekin telefonoz harremanetan jartzea, informazioa ematea eta jarraibideak betetzea.

Laguntza psikologikoarekin eta komunikatzeko teknikekin lotutako edukiak ohikoak dira oso, ikasketa-planetan. Horiei heltzeko, ikasleen aurretiko ezagutzak hartu behar dira oinarritzat, eta aurretik ikasi badira, larrialdietako komunikazioarekin eta laguntzarekin

lotura handien duen atala aztertuko da. Talde-teknikak egin daitezke (*role-playing*, kasuen azterketa...), ikasleen jokabidea behatu eta haien gaitasunak agerian jarri ahal izateko.

Modulu honetan lortutako trebetasun batzuk oso egoera txarretan aplikatu beharko dira (presa, nerbioak…), horregatik oinarrizko edukiak eta garrantzitsuenak ongi finkatu behar dira (jardunaren sekuentziazioa, BBB, autobabesa…). Moduluaren amaieran, ikasitakoa berrikusteko denbora bat ezar daiteke; bertan askotariko egoerak presta daitezke, unitate didaktiko guztien edukiekin lotuta, era horretan ikasleek lortutako heldutasuna ebaluatzeko.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Jarduteko BAS protokoloa aplikatzea hainbat egoeratan. Gunea eta istripua izan duena babestea. Abisatzea eta informazioa igortzea. Sorospen-neurriak hastea.
- ✓ Norberaren arriskuak identifikatzea, eta istripu-kasu ezberdinetako prebentzio-neurriak erabiltzea.
- ✓ Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko osagaiak identifikatzea. Produktuen zerrendak prestatzea, baita horiek erabiltzeko arauak biltzen dituzten agiriak ere. Sendaketak egitea.
- ✓ Laguntzaren hasierako balorazioa egitea hainbat egoeratan. Zantzuak eta sintomak bilatzea. Bizi-konstanteak hartzea. Jardun-protokoloa identifikatzea.
- ✓ Lehen laguntzetako hainbat teknika aplikatzea. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatzea. BBB egitea. Aire-bideei erreparatzea. Kanpoko desfibriladore automatikoa erabiltzea. Pertsonak mobilizatzea. Istripua izan dutenak lekualdatzea. Pertsonak immobilizatzea.
- ✓ Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Informazioa prestatzea eta transmititzea.
- ✓ Laguntza psikologikoko teknikak aplikatzea.
- ✓ Taldeko tekniketan parte hartzea. Iritziak eta sentimenduak adieraztea.
- ✓ Laneko dependentziak eta egoerak aztertzea, eta horietako bakoitzean egon daitezkeen arriskuak zehaztea.
- ✓ Larrialdietako egoerak aztertzea zer egin behar den eta zer egin behar ez den baloratzeko.
- ✓ Jarduteko idatzizko eta ahozko protokoloak interpretatzea.

12. lanbide- modulua 12

# KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZA SUSTATZEKO PROIEKTUA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Komunikazio-bitartekotzako proiektua** |
| Kodea: | 1119 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 50 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Kreditu kop.: | 5 |
| Irakasleen espezialitatea: | Gizartearentzako zerbitzuak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)<br>Interbentzio soziokomunitarioa<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Zeharkako modulua |
| Helburu orokorrak: | Guztiak |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen ereduzko proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
b) Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu, haien antolamendu-egitura eta sail bakoitzaren funtzioak adierazita.
c) Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
d) Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.
e) Aurreikusten diren eskariei arreta egiteko behar den proiektu mota identifikatu du.
f) Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
g) Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
h) Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.
i) Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.

2. Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barnean hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.
d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien irismena identifikatu du.
e) Proiektua gauzatzeko beharrezko baliabide materialak eta pertsonalak aurreikusi ditu.
f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
g) Abian jartzeko finantziazio-beharrak identifikatu ditu.
h) Diseinatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektuaren gauzatzea planifikatzen du, eta esku-hartze plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduerak sekuentziatu ditu, eta inplementatze-beharren arabera antolatu ditu.
b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.
c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.
d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
e) Proiektua abiaraztearen berezko arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta ekipoak definitu ditu.
f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.
g) Inplementatzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
h) Proiektua inplementatzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4. Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura definitu du.
b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.
c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta litekeen konponbidea ebaluatzeko eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.
d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
f) Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta berariazko dokumentuak prestatu ditu.
g) Hala badagokio, proiekturako baldintzen orria beteko dela ziurtatzeko sistema bat ezarri du.

5. Proiektua aurkeztu eta defendatzen du, eta proiektua lantzean eta heziketa-zikloko ikaskuntza-prozesua garatzean eskuratutako konpetentzia teknikoak eta pertsonalak eraginkortasunez erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.

b) Aurkezpen bat prestatu du informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabilita.
c) Proiektuaren azalpena egin du. Bertan, haren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta jasotako ekintza-proposamenen hautaketa justifikatu du.
d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du, eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.
e) Proiektua defendatu du, eta arrazoituta erantzun die epaimahai ebaluatzaileak planteatzen dituen galderei.

## c) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu honen helburua heziketa-ziklo osoan landu diren konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak indartu eta finkatzea da. Horretarako, talde-proiektu bat garatuko da.

Bi edo hiru ikasleko taldeak osatzea izango da lehen urratsa. Talde horien bidez ikasle guztiak proiektuaren garapenean inplika daitezen lortuko da. Talde homogeneoak eta konpetentzia osagarriak izango dituztenak ezartzen saiatuko da.

Taldearen lehen zeregina garatu beharreko proiektua aukeratzea izango da. Modulu hau denboran bat datorrenez «Lantokiko prestakuntza» moduluarekin, praktikak egiten direneko enpresa ideia-iturri egokia izan daiteke proiekturako. Nolanahi ere, komenigarria da tutoreak garatu daitezkeen proiektu teknikoki bideragarri batzuk prest izatea, proposatu behar izanez gero ere.

Ondoren, proiektua garatzeko eredu bati jarraituz, haren faseak landuko dira:

- Diseinua.
- Plangintza.
- Gauzatzea eta jarraipena egitea.
- Amaiera eta ebaluazioa.

Bukatzeko, talde bakoitzak proiektuaren aurkezpena eta defentsa prestatu eta egingo du, eta, horretarako, hainbat aurkezpen-teknika erabiliko dituzte IKTetan oinarrituta.

### 2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau antolatzeko garaian, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboak erabiltzea proposatzen da, hala nola talde-lana eta PBL-AOI *(Problem Based Learning,* Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza). Zehazki, zikloko zenbait moduluren konpetentziak zeharka bilduko dituzten proiektuen garapenean berariaz oinarritutako PBL metodologia erabil daiteke. Metodologia horiek ikaslea behartzen dute arazoak identifikatzera, horiek konpontzeko aukerak bilatzera, horretarako beharrezko baliabideak abian jartzera eta informazioa behar bezala kudeatzera.

Gainera, metodologia horiek bakarlaneko uneak sustatzen dituzte, eta lan horiek garrantzi handikoak dira, taldea osatzen duten ikasleetako bakoitzak proiektua defendatzean erakutsi beharko dituen ezagutzak eta konpetentziak eskuratzeko.

Bestalde, talde-lanaren bidez, ikasleek harreman-konpetentziak garatzen dituzte eta taldeen funtzionamendua ezagutzen dute, lanerako tresna gisa, baita horrek dakarren

guztia ere: taldearen antolaketa, rolen eta zereginen banaketa, pertsonen arteko komunikazioa, gatazken konponketa, etab.

Ikasleen autoikaskuntza osatzeko, proiektu-talde bakoitzari aldizka jarraipen bat egitea proposatzen da, ikaskuntza gidatzeko eta taldeari finkatutako helburuen barruan eusteko. Gainera, sortzen diren beharren arabera, laguntzako azalpen edo mintegiren bat programatzea gomendatzen da, proiektua garatzeko beharrezkoak diren berariazko edukiei edo metodologiei buruzko ezagupenetan gabeziak betetzeko.

Azkenik, talde bakoitzak landutako proiektuaren azalpen bat egitea proposatzen da, bi helburu hauekin:

- Proiektua garatzean ikasle bakoitzak bereganatutako konpetentzia teknikoak ebaluatzea.
- Ikasleen gaitasun komunikatibo pertsonalak eta sozialak ebaluatzea.

Azalpena prestatu eta garatzeko, ikasleei teknologia berriak erabil ditzaten proposatuko zaie, hau da, hainbat informatika-aplikazio erabiltzea diapositiba-aurkezpenak, web-orrien formatuak, eta abar lantzeko. Horretarako bideo-proiektagailuak eta ordenagailuak ere erabiliko dituzte eta, hala, etorkizunean lanerako baliagarri izango dituzten tresnekin trebatzen hasteko aukera izango dute.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Modulua ebaluatzerakoan, proiektua azken produktu gisa eta egindako lanketa-prozesuaren amaiera gisa ebaluatzea garrantzitsutzat jotzen dugu. Horretarako, lantaldearen funtzionamenduari buruzko informazioa jaso behar da, kide bakoitzak zereginetan eta proiektuan izan duen inplikazioari buruzkoa, oro har, taldean sortutako zailtasunei buruzkoa, ikasle bakoitzak bereganatutako konpetentzia pertsonal eta sozialei buruzkoa, etab.

Era berean, kalifikazioaren zati batean, proiektuaren azalpenari eta defentsari buruz irakasleak egindako balorazioa jasotzea proposatzen da. Zehazki, azalpenaren ebaluazio-adierazleetako batzuk honako adierazle hauek izan daitezke:

- Proiektuaren aurkezpenak duen diseinu-kalitatea.
- Aurkezpena egiteko baliabide lagungarrien erabilera: baliabide informatikoak, modeloak edo maketak, eta abar.
- Azalpenaren argitasuna.
- Azalpenaren antolamendua.
- Azalpenaren bizitasuna.
- Azalpenaren eraginkortasuna.
- Frogatutako komunikazio-trebetasunak: ahots-doinua, hitzezko adierazpena, hitzik gabeko komunikazioa, eta abar.
- Irakasle ebaluatzaileek egindako galderei erantzuteko gaitasuna.

Behar-beharrezkoa izango da taldeko ikasle guztiek bete-betean parte hartzea proiektuaren defentsan. Horrela, bakarkako ebaluazioa egin ahal izango da, eta ikasle bakoitzak moduluarekin lotzen diren ikaskuntzaren emaitzak lortu dituela erakutsi ahal izango du. Hala, taldea osatzen duten kide guztiek proiektua garatzen lagundu dutela ziurtatzen saiatu beharko da.

Azkenik, proiektuan parte hartzen duen talde bakoitzari erantzun xehatua ematea gomendatzen da. Erantzun horretan, produktuari buruzko ebaluazioaren, eta haren prozesuaren eta azalpenaren indarguneak eta ahulguneak azpimarratuko dira. Horrela, ikasleei lagundu egingo zaie aurrerantzean euren lan-ibilbidean garatu eta azaldu beharreko proiektuetan egin litezkeen hobekuntzak identifikatzen.

# 13. lanbide- modulua 13
# INGELES TEKNIKOA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Ingeles teknikoa** |
| Kodea: | E-200 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 40 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Kreditu kop.: | |
| Irakasleen espezialitatea: | Ingelesa<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Zeharkako modulua |
| Helburu orokorrak: | Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko konpetentziak |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
b) Egoera jakin batzuk ebazteko ahozko mezu zehatzak igorri ditu: hitzordua, produktu bat bidaltzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/aparatu baten oinarrizko funtzionamendua.
c) Ahozko argibideak ezagutu ditu, eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
d) Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
e) Mezu bat bere elementu guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
f) Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
g) Beharrezkotzat jo duenean, diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.
h) Laneko elkarrizketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.
i) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentu idatziak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarri eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo bidaltze-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
c) Euskarri telematikoen bitartez jasotako mezua interpretatu du: posta elektronikoa, faxa, besteak beste.
d) Sektoreko web orri bateko oinarrizko informazioak identifikatu ditu.
e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.
h) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.
i) Profilarekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.
j) Bere konpetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
k) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.
l) Curriculum vitaea egiteko, norberaren prestakuntza eta konpetentzia profesionalak aurkezteko Europako herrialdeetan erabiltzen diren jarraibideak bete ditu.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den gizarteko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
c) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.
e) Beste herrialdearen berezko balioak eta ohiturak identifikatu eta bere jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzearren.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. PROFILAREKIN LOTUTAKO AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea.<br>- Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.<br>- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.<br>- Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehentasunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta zalantzaren adierazpena eta bestelakoak.<br>- Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.<br>- Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak |

| | |
|---|---|
| | - Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa.<br>- Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea.<br>- Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.<br>- Laneko elkarrizketa bat prestatzea, dituen prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Sektoreko terminologia espezifikoa.<br>- Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak.<br>- Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak.<br>- Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea.<br>- Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.<br>- Informazio-trukean bete-betean parte hartzea.<br>- Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.<br>- Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea. |

| **2. PROFILAREKIN LOTUTAKO IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulu profesionalak eta egunerokoak.<br>- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.<br>- Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza.<br>- Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.<br>- Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea.<br>- Puntuazio-markak erabiltzea.<br>- Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.<br>- Testu koherenteak lantzea.<br>- Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea.<br>- Dagokion profilarekin lotutako lan-eskaera prestatzea: curriculuma eta gutun eragingarria. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Euskarri telematikoak: faxa, posta elektronikoa, burofaxa, web orriak.<br>- Hizkuntzaren erregistroak.<br>- Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura.<br>- Europako Curriculum Vitaearen eredua.<br>- Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.<br>- Beste kultura batzuen alderdi profesionalekiko interesa erakustea.<br>- Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea |

| | |
|---|---|
| | erespetatzea.<br>- Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea. |

| 3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementurik esanguratsuenak interpretatzea.<br>- Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea. |
| kontzeptuzkoak | - Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak. |
| jarrerazkoak | - Nazioarteko harremanetan, arau soziokulturalak eta protokolokoak balioestea.<br>- Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

### 1) Sekuentziazioa

Eduki multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da ibilbide didaktiko bat antolatzea, multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko trebetasunak lortzeari lehentasuna emango diona.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza, eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoek eta sintaktikoek ez lukete inongo zentzurik, ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarrizko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamena eta idazmena, garatzea da lortu beharreko helburua.

Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan, beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, oso baliagarria izango da lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egiturak (aditz-denbora, hiztegia, eta abar), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten

egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irmotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-konpetentzia batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako beharrezkoak diren unitate didaktikoak definituko dira.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lan-munduan komunikatzeko tresna gisa ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Ahozko hizkuntzari garrantzi berezia eman beharko zaio, egungo egoera profesionalek eta globalizazioak hori eskatzen baitute.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu eta. Mezuaren ulermenari lehentasuna emango zaio, zuzentasun gramatikalaren gainetik, eta ahoskera eta jarioa azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira-eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, ikasleek beren burua behatuz eta beren akatsak aztertuz alderdi neketsuena hobe dezaten; hots, ahozko mezuen sorkuntza. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak bisitatuz (ahal dela, ingelesak) edo jarduneko langileak gonbidatuz aberastu daiteke. Hartara, lanbide-ingurunetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalei.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren ikus-entzunezko materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da (gutunak, fakturak, gidak, liburuxkak…), eta ingelesezko web-orriak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitutako hainbat motatako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, eta abar) eskaini behar dira.

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, posta elektronikoa, burofaxa eta abar.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzaile eta bideratzaile gisa jardungo dute, ikasgelan ingelesez hitz egin dezaten, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezen. Horretarako, ikasleak ahalik eta gehien inplikatuko dituzte ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Ingurune profesionalarekin lotutako materialak lehentasunez erabiltzea (erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak), eta zenbakiekin, datekin, orduekin eta eskainitako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileekin praktikatzea.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoa eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezero baten galderak, ezbehar txikiak, noizbehinkako azalpenak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburra ematea.
- ✓ Unean uneko oharrak egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoen berri emateko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitaea aurkeztea motibazio-gutunarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea, eta abar.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan laneko egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarrizketak bideoz grabatzea, geroago aztertzeko.

# 14. lanbide- modulua 14
# LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Laneko prestakuntza eta orientabidea** |
| Kodea: | 1120 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Animazio Soziokulturala eta Turistikoa |
| Iraupena: | 99 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Kreditu kop.: | 5 |
| Irakasleen espezialitatea: | Laneko prestakuntza eta orientabidea<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Zeharkako modulua |
| Helburu orokorrak: | 16 / 17 / 18 / 19 / 19 / 20 / 25 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Laneratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzarako aukerak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatzeko aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
b) Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
c) Profilari lotutako jarduera profesionalerako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zein diren zehaztu ditu.
d) Titulundunarentzako enplegu-sorgune eta laneratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
e) Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak azaldu ditu.
f) Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako aukerak aurreikusi ditu.
g) Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

*2.* Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lantaldeak identifikatu ditu.
c) Lantalde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak zer ezaugarri dituen zehaztu du.
d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen alderdi ezaugarritzat onartu du.
f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta gaitasuna dauka horiek lan-kontratuetan aurkitzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak identifikatu ditu.
b) Enpresaburuen eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
d) Kontratazio-modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak xedatutako neurriak baloratu ditu.
f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
g) Soldata-ordainagiria aztertu du, eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du, eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuak eta langileak dituzten betebeharrak identifikatu ditu.
e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langileari eta enpresaburuari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak azaldu ditu.
h) Oinarrizko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneko lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikatutako eragile guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebehar nagusiak zehaztu ditu.
b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauetan xedatutako irizpideen arabera.
c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihetsezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babesteko teknikak zehaztu ditu.
b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen sorospenetako oinarrizko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. LANERATZEKO ETA BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARAKO PROZESUA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.<br>- Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.<br>- Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea.<br>- Norberaren ibilbidea planifikatzea:<br>▪ Beharrekin eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea.<br>▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak.<br>- Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeko zerrenda bat ezartzea.<br>- Laneratzeko beharrezkoak diren dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitaea...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea. |
| kontzeptuzkoak | - Lana bilatzeko teknikak eta tresnak.<br>- Erabakiak hartzeko prozesua.<br>- Sektoreko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.<br>- Europan ikasi eta enplegatzeko aukerak. Europass, Ploteus. |
| jarrerazkoak | - Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.<br>- Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.<br>- Autoenplegua lan-mundura sartzeko hautabidetzat balioestea.<br>- Behar bezala laneratzeko lan-ibilbideak baloratzea.<br>- Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea. |

| 2. GATAZKA ETA LANTALDEAK KUDEATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Antolakundea pertsona talde gisa aztertzea.<br>- Antolamendu-egiturak aztertzea.<br>- Kideek lantaldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea.<br>- Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea.<br>- Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea.<br>- Gatazkak ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea.<br>- Lantaldeen sorrera aztertzea. |
| kontzeptuzkoak | - Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa.<br>- Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera.<br>- Lantaldeen sorrera aztertzea.<br>- Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa.<br>- Lantalde eraginkorraren ezaugarriak.<br>- Gatazka definitzea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak.<br>- Gatazkak ebazteko edo ekiditeko metodoak: bitartekaritza, adiskidetzea eta arbitrajea. |

| | |
|---|---|
| jarrerazkoak | - Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea.<br>- Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea.<br>- Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea.<br>- Lantaldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.<br>- Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea. |

| 3. LAN-KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN-BALDINTZAK | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.<br>- Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.<br>- Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.<br>- Nomina interpretatzea.<br>- Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea. |
| kontzeptuzkoak | - Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren zuzentarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.<br>- Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.<br>- Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.<br>- Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).<br>- Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak.<br>- Soldata kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZa.<br>- Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea.<br>- Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.<br>- Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.<br>- Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana… |
| jarrerazkoak | - Lana arautzeko beharra baloratzea.<br>- Bere jarduera profesionalari dagokion sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ikasteko interesa izatea.<br>- Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.<br>- Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboei dagokienez.<br>- Gizartea hobetzeko eragile gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta balioestea. |

| 4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.<br>- Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea. |
| kontzeptuzkoak | - Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.<br>- Enpresaburuen eta langileen betebehar nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa.<br>- Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.<br>- Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.<br>- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak. |
| jarrerazkoak | - Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea.<br>- Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea. |

| 5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.<br>- Arrisku-faktoreak aztertzea.<br>- Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.<br>- Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.<br>- Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.<br>- Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.<br>- Lanbide-eginkizunaren araberako arrisku-protokoloa ezartzea.<br>- Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea. |
| kontzeptuzkoak | - Arrisku profesionalaren kontzeptua.<br>- Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarrizko elementu gisa.<br>- Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak.<br>- Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak. |
| jarrerazkoak | - Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.<br>- Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.<br>- Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.<br>- Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea. |

| 6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarrizko prebentzio-tresna gisa. |

| | |
|---|---|
| | - LAP Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarrizko araua aztertzea.<br>- LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea.<br>- Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.<br>- Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.<br>- Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.<br>- Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.<br>- LAPean eta osasunean esku hartzen duten eragileak eta horien eginkizunak.<br>- Prebentzioaren kudeaketa enpresan.<br>- Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria).<br>- Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.<br>- Prebentzioaren plangintza enpresan.<br>- Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan. |
| | |
| jarrerazkoak | - LAParen garrantzia eta beharra baloratzea.<br>- LAPeko eta LO Laneko Osasuneko eragile gisa duen posizioa baloratzea.<br>- Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea.<br>- Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea. |

| 7. ENPRESAN PREBENTZIO- ETA BABES-NEURRIAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Norbera babesteko teknikak identifikatzea.<br>- Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakakoek dituzten betebeharrak aztertzea.<br>- Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea.<br>- Larrialdi-egoerak aztertzea.<br>- Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.<br>- Langileen osasuna zaintzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.<br>- Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.<br>- Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak.<br>- Seinale motak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Larrialdien aurreikuspena balioestea.<br>- Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea.<br>- Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

## 1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen laneratze-ibilbidearen logikan oinarritzen da; hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

a) Lana bilatzea.
b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia.
c) Lanpostuan jardutea.
d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- Europan lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio-modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitzeko hasierako aldia gaindituta, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein suposiziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Lan-baldintzak: soldata, lanaldia eta lan-atsedenaldia.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantza: prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkaritza.
- Negoziazio kolektiboa.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.

- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko konpetentziak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzegatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hasieran, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen parte-hartze eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, taldeka nahiz banaka: ikasleen esperientzia pertsonalen berri ematea, prentsako albisteak erabiltzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagunen arteko gatazkak… erabil daitezke aldeen portaerak eta arazoen konponbideak aztertzeko.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatuetako ordezkariak, lan-arloko abokatuak, eta abar), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea eta abar. Horretarako, erakundeen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak, eta abar. Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, esaterako: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komenigarria litzateke kasu praktiko bat aurrera eramatea eta ikasleek benetako enplegu-bilaketa egitea simulatzea: horretarako, normalean erabiltzen diren dokumentuak egingo dituzte (curriculuma, aurkezpen-gutuna), eta komunikabide ohikoenetan agertzen diren lan-eskaintzak aukeratuko dituzte.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
- Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
- Sektorean enplegatzeko aukerak identifikatzea.
- Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.

✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
- Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
- Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
- Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).

✓ Lantaldeak eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
- Lantaldeen tipologia identifikatzea.
- Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.

✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
- Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
- Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.

✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea:
- Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.

✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
- Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
- Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
- IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
- Bizialdi osoko ikaskuntzaren garrantzia baloratzea.

# 15. lanbide- modulua 15
# ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Enpresa eta ekimen sortzailea** |
| Kodea: | 1121 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Animazio Soziokulturala eta Turistikoa |
| Iraupena: | 60 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Kreditu kop.: | 4 |
| Irakasleen espezialitatea: | Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Zeharkako modulua |
| Helburu orokorrak: | 17 / 18 / 19 / 20 / 22 / 23 / 24 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako trebetasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
b) Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
c) Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enplegatuaren lanerako ekimena aztertu du.
e) Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
f) Jarduera ekintzaile ororen elementu saihetsezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
g) Enpresaburuaren kontzeptua eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du; enpresa-ideia aukeratzen du, eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu, eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak azaldu ditu.
f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomenoa eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten Balantze Soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du, eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako «sistema» kontzeptua aztertu du.
b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
d) Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila azaldu du.
h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitzen dituen izapideak aztertu ditu.
j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.

c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
d) Zerga-egutegian, zerga motak bereizi ditu.
e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

## c) Oinarrizko edukiak:

| 1. EKIMEN SORTZAILEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).<br>- Ekintzaileen faktore garrantzitsuenak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko ahalmena, plangintza eta prestakuntza.<br>- Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea. |
| kontzeptuzkoak | - Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.<br>- Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.<br>- Enpresaburuaren kontzeptua.<br>- Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.<br>- Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.<br>- Ekintzaileen arteko lankidetza.<br>- Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.<br>- Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.<br>- Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan. |
| jarrerazkoak | - Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea.<br>- Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzailetzaren bultzatzaile gisa. |

| 2. ENPRESA-IDEIAK, INGURUNEA ETA HAIEN GARAPENA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea.<br>- Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.<br>- Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.<br>- Lanbide-arloko ereduzko enpresa bat aztertzea.<br>- Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.<br>- Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.<br>- Erabakitako ideiaren gainean berrikuntza-ariketak egitea. |
| kontzeptuzkoak | - Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen jasangarria).<br>- Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.<br>- Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.<br>- Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak. |

| | |
|---|---|
| jarrerazkoak | - Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea.<br>- Genero-berdintasuna errespetatzea.<br>- Enpresa-etika baloratzea. |

| 3. ENPRESA BATEN BIDERAGARRITASUNA ETA ABIARAZTEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.<br>- Produkzio-plana prestatzea.<br>- Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.<br>- Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.<br>- Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua. |
| kontzeptuzkoak | - Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.<br>- Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.<br>- Zergen arloa enpresetan.<br>- Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (Ogasuna eta Gizarte Segurantza, besteak beste).<br>- Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.<br>- Enpresaren jabeek duten erantzukizuna. |
| jarrerazkoak | - Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorroztasunez ebaluatzea.<br>- Administrazioko eta legezko izapideak betetzea. |

| 4. ADMINISTRAZIO-FUNTZIOA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.<br>- Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.<br>- Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak, letrak, etab. |
| kontzeptuzkoak | - Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak.<br>- Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.<br>- Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).<br>- Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak. |
| jarrerazkoak | - Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.<br>- Administrazioko eta legezko izapideak betetzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

## 1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo dute; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-ideia garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-ideia jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenekotik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa eta abar aztertuko dira.

Azkenik, kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruko oinarrizko kontzeptuak azalduko zaizkio ikasleari.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailetza-trebetasunak bereganatzearren.

Ikasleek proiektuan aurrera egiten duten heinean, irakasleak beharrezko ezaguerak helaraziko dizkie azalpenen edo gelan garatutako jardueren bitartez, edo liburu edo artikulu jakin batzuk irakurrarazi eta gero horien edukia ikasturteko proiektura egokitzeko lan bat eginez.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta banan banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
- Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sektoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
- Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
- Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
- Sektorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
- Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.

✓ Enpresa-ideiak garatzea:
- Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
- Lantaldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.

- Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilita, etab.
- Hautatutako negoziorako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
- Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
- Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.

✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:

- Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
- Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
- Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
- Internet erabilita, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
- Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.

✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:

- Diruzaintzako plan bat, emaitzen kontua eta egoera-balantzea aztertzea.
- Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
- Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak, letrak, etab.

16. lanbide- modulua 16
# LANTOKIKO PRESTAKUNTZA



## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Lantokiko prestakuntza** |
| Kodea: | 1122 |
| Heziketa-zikloa: | Komunikazio-bitartekotza |
| Maila: | Goi-maila |
| Lanbide-arloa: | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak |
| Iraupena: | 360 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Kreditu kop.: | 22 |
| Irakasleen espezialitatea: | Interbentzio soziokomunitarioa<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea)<br>Gizartearentzako zerbitzuak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) |
| Modulu mota: | Lanbide-profilari lotuta. |
| Helburu orokorrak: | Guztiak |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
b) Enpresaren egitura sektorean dauden ereduzko enpresa-antolamenduekin alderatu du.
c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota lotu ditu enpresa-jardueraren garapenarekin.
d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
e) Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko konpetentziak baloratu ditu.
f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
   - lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.
   - lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
   - jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
   - lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
   - lantaldearekin eta enpresan ezarritako hierarkiekin lotutako jarrerak.
   - lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
   - profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan laneratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.

b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarrizko alderdiak identifikatu ditu.
c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko ekipamendua.
d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.
f) Esleitutako lanaren erantzukizuna hartu du, eta jasotako aginduak interpretatu eta bete ditu.
g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldekideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
h) Gainerako taldekideekin koordinatu da, eta sortutako gorabehera garrantzitsuak jakinarazi ditu.
i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu ditu.
j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3. Komunikazio-bitartekotza prestatzeko eragiketak egiten ditu, ezarritako arauen eta jarraibideen araberako teknikak eta prozedurak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Komunikazio-bitartekotza prestatzeko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
b) Garatu beharreko komunikazio-bitartekotza prestatzearekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
c) Ezarritako arauen eta jarraibideen araberako kontrol-prozedurak erabili ditu esku-hartzean.
d) Komunikazio-bitartekotza garatuko den espazioen egokitzapen-beharrak identifikatu ditu.
e) Jarduerari hasiera emateko irizpideak behar bezala aplikatu ditu, ezarritako arauak eta jarraibideak kontuan izanik.
f) Zerbitzuaren hartzaileen komunikazio-beharrak ezagutu eta finkatu ditu, ezarritako protokoloak kontuan hartuta.
g) Erabiltzaileekin lehen harremana izateko prozedurak behar bezala egin ditu, bitartekoak erabilita eta teknikak aplikatuta, ezarritako jarraibideen eta/edo arauen arabera.
h) Jarduera prestatzeko prozesuan sortu diren zailtasunak identifikatu ditu.
i) Jarduera prestatzeko jarduera guztiak egin ditu, erabiltzaileen intimitatea errespetatzeko printzipioak kontuan hartuta.

4. Lan-plangintzan aurreikusten diren jarduerak inplementatzen ditu, ezarritako arauak eta jarraibideak garatu beharreko jardueren berezko prozeduren eta tekniken aplikazioarekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Komunikazio-bitartekotza egiteko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
b) Garatu beharreko komunikazio-bitartekotza prozesuekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
c) Ezarritako prozedurei jarraituz egin ditu zereginak.
d) Komunikazio-bitartekotza gauzatu du, lanbidearen irizpide deontologikoak kontuan hartuta.
e) Erabiltzaileei buruzko informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu du.
f) Erabiltzaile, egoera edo zereginen araberako jarrera egokiak erabili ditu.
g) Komunikazio-jarduerarako baliabide tekniko eta laguntza-bitarteko egokiak erabili ditu.
h) Baliabide teknikoen eta komunikaziorako laguntza-bitartekoen erabileran ezarritako prozedurei jarraitu die.
i) Erabilitako teknikak zerbitzuaren hartzaileen komunikazio-beharrekin lotu ditu.

5. Segurtasun- eta higiene-irizpideak betetzen ditu, eta higiene- eta osasun-arauak, laneko segurtasunekoak eta ingurumena babestekoak aintzat hartuta jarduten du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Legezko araudiarekin lotutako nahitaez bete beharreko higiene- eta osasun-arauak, eta enpresaren beraren berariazkoak antzeman ditu.
b) Higiene- edo osasun-arazoak nahiz segurtasunekoak sorraraz ditzaketen portaera edo jarrera guztiak antzeman ditu.
c) Jarduerarako jantzi egokiak erabili ditu.
d) Jarduera profesionalak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko tresneria.
e) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak identifikatu ditu.
f) Garatutako jardueretan, ingurumena errespetatzeko jarrera argia izan du, eta horrekin lotutako barruko eta kanpoko arauak aplikatu ditu.
g) Hondakinak biltzeko, hautatzeko, sailkatzeko eta ezabatzeko edo isurtzeko eragiketak aplikatu ditu.

6. Egindako zerbitzua aztertzen du, esku hartzeko prozeduraren kalitate-irizpideekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Lan-jarduera egiteko jasotako jarraibideen betetze-maila baloratu du.
b) Norberaren jarduera kontrolatzeko eta jarraipena egiteko prozesuarekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
c) Jarduerak egiteko moduarekiko jarrera kritikoa erakutsi du.
d) Zereginak egiteko ezarritako prozedurari jarraitu zaiola egiaztatu du.
e) Lanbide-jarduerak egitean, lanbidearen irizpide deontologikoak aplikatu ditu.
f) Erabilitako baliabideen eta tekniken egokitzapena argudiatu du.

## c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira.

- ✓ Bitartekari-lanbidea beharrezkoa den lan-merkatuko nitxoetan informazioa biltzeko landa-lana.
- ✓ Erakundearen zereginak egitea eta interpretazio-zerbitzuak prestatzea.
- ✓ Gorren eta/edo gor-itsuen erkidegoan gauzatuko diren jarduerak –hala soziokulturalak (hitzaldiak, antzerkia, kirolak, etab.) nola administraziokoak (izapideak, etab.)– antolatzea eta horien segimendua egitea.
- ✓ Erabiltzaile gorrek eta gor-itsuek aurre egin beharreko balizko komunikazio-oztopoak hautematea, eta azken horien kasuan, baita oztopo arkitektonikoak ere.
- ✓ Esku-hartze sozialeko programa orokorren dokumentu-analisia eta komunikazio-bitartekotzarako egokitzapen-proposamenak.
- ✓ Erabiltzaileen gaineko informazioa biltzea, ahal dela, autonomia pertsonala maila onekoa izan dadin.
- ✓ Esku-hartze sozial komunikatiboaren proiektua antolatzea, gauzatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.
- ✓ Pertsona gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten kolektiboak sentsibilizatzeko hitzaldiak antolatzea.
- ✓ Pertsona gorrekin, gor-itsuekin eta komunikazio-zailtasunak dituztenekin harreman duten pertsonen kolektiboak sentsibilizatzeko hitzaldiak antolatzea.
- ✓ Gizarte-sentsibilizazioko programen gaineko estrategiak diseinatzea, antolatzea eta aplikatzea eta kontrol- eta segimendu-jarduerak gauzatzea.
- ✓ Zeinu-mintzaira, esku ahurreko daktilologia, etab., ikasteko kurtsoak antolatzea eta bitartekari lanak egitea erakundearen eta ikasle gorraren edo entzumendunaren artean.
- ✓ Mezuen translazioa egitea komunikazio-bitartekotzan erabiliko diren hizkuntzak abiapuntu zein helmuga direla, bai esan ostean, bai aldi berean, bitartekotza gauzatzeko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak erabilita eta, bereziki, alde komunikatzaileak elkar ulertzeko.
- ✓ Gaztelaniazko mezu idatziak zeinu-mintzairara itzultzea, eta alderantziz.
- ✓ Pertsona gorren edo komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuen elkarte baten barne-analisia, komunikazio-bitartekari batek izan ditzakeen premiak eta funtzioak erregistratzeko.
- ✓ Mintzaira-nahasmenduak dituzten pertsonekin esku hartzeko proba nagusiak identifikatzea, profesional eskudunarengana bidaltzeko.
- ✓ Mintzairaren esparruko nahasmendua edo autismoaren esparruko nahasmendua duten pertsonekin lan egiten duten profesionalen multzoa sentsibilizatzea, aipatutako kolektiboari eskainitako arretan ezarritako neurri zuzentzaileei buruz.
- ✓ Pertsona gorrek edo komunikazio-zailtasunak dituztenek behar dituzten laguntza tekniko pertsonalak eta kolektiboak identifikatzea.
- ✓ Erabiltzaile gorraren ezaugarri pertsonalak kontuan hartuta, bitartekaritza edo zeinu-mintzairaren interpretazioa komeni den aztertzea.
- ✓ Pertsona gor-itsuen ezaugarriak identifikatzea.
- ✓ Pertsona gor-itsuekin egin beharreko esku-hartzea hautatzea, horien ezaugarri pertsonalen arabera.
- ✓ Askotariko pertsona gor-itsuekin esku hartzeko jarduerak diseinatzea.
- ✓ Pertsona gor-itsuaren gaitasunen eta jarduera-planaren araberako ikasmaterialak osatzea.
- ✓ Pertsona gor-itsuaren gaitasunen eta jarduera-planaren arabera egokitzea jada erabilgarri dauden ikasmaterialak.
- ✓ Pertsona gor-itsuak beharrezkoak dituen laguntza tifloteknikoak deskribatzea, hezkuntza-, gizarte-, lan-, familia- edo etxebizitza-arloetako esku-hartzeari dagokionez.
- ✓ Pertsona gor-itsuei zuzendutako hezkuntza-arloko esku-hartzean inplikatutako alde guztien ebaluazioa egiteko, beharrak hautemateko eta gogobetetze-maila neurtzeko tresnak diseinatzea.
- ✓ Erabiltzaile gor-itsuaren ezaugarri pertsonalak kontuan hartuta, bitartekaritza edo gida-interpretazioa komeni den aztertzea.

- ✓ Pertsona gor-itsuarentzat egoki den komunikazio-sistema edo -bitartekoa hautatzea, subjektu bitartekariaren aurrean duen portaera paralinguistikoa edo erreakzioa behatuta.
- ✓ Pertsona entzumendun baten edo gehiagoren eta pertsona gor-itsu baten edo gehiagoren arteko mezu-trukea.
- ✓ Pertsona gor-itsuekin komunikatzea laguntza tifloteknikoen eta komunikaziorako laguntzaren bitartez.
- ✓ Braillerazko testuak ulertzea eta idaztea.
- ✓ Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak erabiltzea (grafikoak, sinbolo piktografikoak, taulak, plafoiak eta komunikazio-koadernoak, etab.).
- ✓ Teknika soziometrikoak aplikatzea.
- ✓ Genero-ikuspegia esku-hartze sozialeko eta komunikazio-bitartekotza proiektuetan txertatzeko irizpideak identifikatzea.
- ✓ Esku-hartze sozial komunikatiboko programen osaeran parte hartzea.
- ✓ Ikasleak lan-zentroan izandako parte-hartzearen analisi eraikitzailea.

# 4. GUTXIENEKO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

| PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA | AZALERA ($M^2$) / 30 IKASLE | AZALERA ($M^2$) / 20 IKASLE |
|---|---|---|
| Balio anitzeko gela | 60 | 40 |
| Komunikazio-bitartekotzako tailerra | 60 | 40 |

## 4.2 Ekipamenduak:

| PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA | EKIPAMENDUA |
|---|---|
| Balio anitzeko gela | - Ikus-entzunezko ekipoak.<br>- Sarean instalatutako PCak, proiekzio-kanoiak eta Internet.<br>- Arbel finkoa.<br>- Hondakinen eduki-ontzia.<br>- Irakaslearen mahaia, eserlekuarekin.<br>- Idazmahaiak.<br>- Esekigailuak.<br>- Argazki-kamera digitala.<br>- Informatikako eta ikus-entzunezko ekipamendua gordetzeko armairua, sarrailarekin.<br>- Armairua: kristalezko ateduna.<br>- Apalategiak.<br>- *Software* interaktiboa.<br>- Bideo-kamera.<br>- Hormako proiekzio-pantaila. |
| Komunikazio-bitartekotzako tailerra | - Ordenagailua.<br>- Pantailak irakurtzeko softwarea.<br>- Pantaila handitzeko softwarea.<br>- Eskanerra.<br>- OCR softwarea.<br>- Telefono mugikorra. |

## 5. IRAKASLEAK

### 5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Komunikazio Bitartekotza heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

| LANBIDE-MODULUA | IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA | KIDEGOA |
|---|---|---|
| 1111. Komunikazio-, mintzaira- eta hizketa-arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko metodologia | Interbentzio soziokomunitarioa | Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| 1112. Gizarte-sentsibilizazioa eta partaidetza | Interbentzio soziokomunitarioa | Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| 1113. Gor-itsuekin gizartean eta hezkuntzan esku hartzea | Gizartearentzako zerbitzuak | Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |
| | Irakasle espezialista | |
| 1114. Gor-itsuekiko kominikazio-bitartekotzaren testuingurua | Gizartearentzako zerbitzuak | Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |
| | Irakasle espezialista | |
| 1115. Zeinu-mintzaira | Irakasle espezialista | |
| 1116. Zeinu-mintzaira aplikatzeko eremuak | Irakasle espezialista | |
| 1117. Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzea | Gizartearentzako zerbitzuak | Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |
| | Irakasle espezialista | |
| 1118. Komunikazioan esku hartzeko teknikak | Irakasle espezialista | |
| 0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak | Gizartearentzako zerbitzuak | Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |
| | Irakasle espezialista | |
| 0017. Gizarte-trebetasunak | Interbentzio soziokomunitarioa | Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| 0020. Lehen laguntzak | Prozedura sanitario eta asistentzialak | Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |
| | Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak | |
| | Irakasle espezialista | |
| 1119. Komunikazio- | Interbentzio soziokomunitarioa | Bigarren Hezkuntzako |

| | | |
|---|---|---|
| bitartekotzako proiektua | | irakaslea |
| | Gizartearentzako zerbitzuak | Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |
| E-200 Ingeles teknikoa | Ingelesa | Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| 1120. Laneko prestakuntza eta orientabidea | Laneko prestakuntza eta orientabidea | Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| 1121. Enpresa eta ekimen sortzailea | Laneko prestakuntza eta orientabidea | Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| 1122. Lantokiko prestakuntza | Interbentzio soziokomunitarioa | Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| | Gizartearentzako zerbitzuak | Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |

# 6. LANBIDE-MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

| HEZIKETA-ZIKLOETAKO LANBIDE-MODULUAK (LOGSE, 1/1990) | KOMUNIKAZIO-BITARTEKOTZA HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOE 2/2006) |
|---|---|
| | |
| Pertsona gorren eta gor-itsuen psikosoziologia<br>Pertsona gor-itsuen gida-interpretazioa | 1113. Gor-itsuekin gizartean eta hezkuntzan esku hartzea<br>1114. Gor-itsuekiko kominikazio-bitartekotzaren testuingurua |
| Espainiako zeinu-mintzaira interpretatzeko teknikak aplikatzea | 1118. Komunikazioan esku hartzeko teknikak |
| Espainiako zeinu-mintzaira<br>Zeinu-mintzairari aplikatutako gorputz-adierazpena | 1115. Zeinu-mintzaira<br>1116. Zeinu-mintzaira aplikatzeko eremuak |
| Komunikazioko oinarrizko jarraibideak eta sistema alternatiboak | 0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak |
| Zeinu Mintzairaren Interpretazioko goi-mailako teknikari-tituluaren prestakuntza lantokietan | 1122. Lantokiko prestakuntza |

# 7. TITULUKO LANBIDE-MODULUEN ETA KONPETENTZIA-ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE- ETA EGOKITASUN-LOTURAK

## 7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

| KONPETENTZIA-ATAL EGIAZTATUAK | BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE-MODULUAK |
|---|---|
| | |
| UC0252_3: Gizarteratzeko esku-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea.<br>UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea esku-hartze sozialeko proiektuetan. | 1111. Komunikazio-, mintzaira- eta hizketa-arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko metodologia |
| UC1447_3: Gorren erkidegoaren gaineko aholkuak eta sentsibilizazioa ematea banakoei, kolektiboei eta erakundeei.<br>UC1023_3: Elkarte-ehunaren sorreran eta garapenean esku hartzea, bultzatzea eta laguntzea. | 1112. Gizarte-sentsibilizazioa eta partaidetza |
| UC1439_3: Pertsona gor-itsuentzako hezkuntza- eta prestakuntza-programen garapenean parte hartzea.<br>UC1441_3: Pertsona gor-itsuek oinarrizko zereginetan ingurunearekin elkarreragitea erraztea. | 1113. Gor-itsuekin gizartean eta hezkuntzan esku hartzea |
| UC1438_3: Pertsona gor-itsuen berariazko komunikaziorako laguntza-sistemak eta -bitartekoak eta gidari ikusmendunaren teknikak erabiltzea.<br>UC1440_3: Pertsona gor-itsuen isolamendu-egoerak arintzera bideratutako esku-hartzeak egitea. | 1114. Gor-itsuekiko kominikazio-bitartekotzaren testuingurua |
| UC1437_3: Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzea bere eginkizunak gauzatzean. | 1115. Zeinu-mintzaira<br>1116. Zeinu-mintzaira aplikatzeko eremuak |
| UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak finkatzea, egokitzea eta aplikatzea. | 0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak |

## 7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

| GAINDITUTAKO LANBIDE-MODULUAK | EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA-ATALAK |
|---|---|
| | |
| 1111. Komunikazio-, mintzaira- eta hizketa-arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko metodologia | UC0252_3: Gizarteratzeko esku-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea.<br>UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea esku-hartze sozialeko proiektuetan. |
| 1112. Gizarte-sentsibilizazioa eta partaidetza | UC1447_3: Gorren erkidegoaren gaineko aholkuak eta sentsibilizazioa ematea banakoei, kolektiboei eta erakundeei.<br>UC1023_3: Elkarte-ehunaren sorreran eta garapenean esku hartzea, bultzatzea eta laguntzea. |
| 1113. Gor-itsuekin gizartean eta hezkuntzan esku hartzea | UC1439_3: Pertsona gor-itsuentzako hezkuntza- eta prestakuntza-programen garapenean parte hartzea.<br>UC1441_3: Pertsona gor-itsuek oinarrizko zereginetan ingurunearekin elkarreragitea erraztea. |
| 1114. Gor-itsuekiko kominikazio-bitartekotzaren testuingurua | UC1440_3: Pertsona gor-itsuen isolamendu-egoerak arintzera bideratutako esku-hartzeak egitea. |
| 1115. Zeinu-mintzaira<br>1116. Zeinu-mintzaira aplikatzeko eremuak | UC1437_3: Espainiako zeinu-mintzaira erabiltzea bere eginkizunak gauzatzean. |
| 0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak | UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak finkatzea, egokitzea eta aplikatzea. |

Instituto Vasco del Conocimiento
de la Formación Profesional
Lanbide Heziketaren
Ezagutzaren Euskal Institutua

Avda. Lehendakari
Aguirre, 184
48015 –Bilbao

T. 944 47 40 37
F. 944 47 38 62

www.ivac-eei.eus
web@ivac-eei.eus

EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Formación
Profesional